# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia | Iruña, 2018ko abuztuaren 31 | 103. ZK.

**A U R K I B I D E A**

G SAILA:
**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**
—Nafarroako Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Agentziak 2016an egindako kontratazio publikoari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

**G saila:**
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

# Nafarroako Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Agentziak 2016an egindako kontratazio publikoari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko ekainaren 25ean eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak Nafarroako Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Agentziak 2016an egindako kontratazio publikoari buruzko fiskalizazio-txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 205. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona hau ERABAKI DA:

**1.** Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2018ko ekainaren 25ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## Nafarroako Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Agentziak 2016an egindako kontratazio publikoari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina

### AURKIBIDEA

**I.** Sarrera (3. or.).

**II.** Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentzia (4. or.).

**III.** Helburuak, norainokoa eta mugak (11. or.).

**IV.** Ondorioak eta gomendioak (13. or.).

**V.** Zerbitzuen kontratazioaren analisia (16. or.).

V.1. Adjudikazio-prozeduren berrikuspena (16. or.).

V.2. Moduluari buruzko zenbatespenak eta langileen kostuaren ebaluazioa zerbitzu kontratatuen lizitazioetan (24. or.).

V.3. Adjudikazio-irizpideen balorazioa eta beheranzko eskaintzek aplikatzekoa den hitzarmen sektoriala betetzeko bermean duten eragina. (35. or.).

V.4. Kontratuen betetzea, eta aplikatutako jarraipena eta kontrola (38. or.).

V.5. Zerbitzuen kalitatea (42. or.).

1. eranskina Zentroen eta kontratatutako tokien zerrenda (46. or.).

2. eranskina Desgaitasun arloko zentro bakoitzeko ratioen zenbatespena eta lansari-egitura (49. or.).

3. eranskina Gaixotasun mentalaren arloko zentro bakoitzeko ratioen zenbatespena eta lansari-egitura (51. or.).

4. eranskina Adingabearentzako arretaren arloko zentro bakoitzeko ratioen zenbatespena eta lansari-egitura (54. or.).

Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioak (57. or.).

Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioei Kontuen Ganberak emandako erantzuna (70. or.).

## I. SARRERA

2017ko martxoan, Kontuen Ganberan eskaera parlamentario bat erregistratu zen, Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren ekimenez, Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziaren (hemendik aurrera, PAGNA) 2016ko ekitaldiko laguntza-kontratuei buruzko fiskalizazio-txosten bat egiteko.

Zehazki, honako hau jasotzen zuen eskaerak:

- *“Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziaren laguntza-kontratuen eta zerbitzuen emakidarako kontratuen espedienteetako lagin bat berrikustea.*
- *Zerbitzu horien kostu-kalitatearen egokitasuna aztertzea, aztertutako espedienteetan ezarrita dauden zenbateko lizitatuak ikusita.*
- *Kontratuetako baldintza-orrietan eta enpresa adjudikazio-hartzaileen eskaintzetan garrantzitsuentzat iritzitako alderdiak betetzen diren aztertzea.*
- *Zerbitzuak emateko kontratatutako langileen kostu erreala kalkulatzea”.*

Lan hau sartu zen Kontuen Ganberak 2017rako onetsi zuen urteko fiskalizazio-programan.

Lana auditoriako hiru auditoria-teknikarik eta auditore batek osatutako lantaldeak egin du, 2017ko abendutik 2018ko apirilera, Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen laguntzarekin.

Jarduketa honen emaitzak Eskubide Sozialetako kontseilariari eta Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Gerentziaren Zuzendaritzari helarazi zitzaizkien, kasua bazen egokitzat jotzen zituzten alegazioak aurkezteko, Nafarroako Kontuen Ganberari buruzko 19/1984 Foru Legeko 11.2. artikuluan aurreikusitakoari jarraituz. Epea iraganda, Eskubide Sozialetako Departamentuko kontseilari Miguel Laparra Navarro jaunak aurkeztu ditu alegazioak.

Eskerrak eman nahi dizkiogu PAGNAko langileei eta Errealitate Sozialaren Behatokiaren eta Gizarte Politiken Plangintzaren eta Ebaluazioaren Zuzendaritza Nagusiko Kalitate eta Ikuskapen Zerbitzuari lan hau egitean emandako laguntzarengatik.

## II. PERTSONEN AUTONOMIARAKO ETA GARAPENERAKO NAFARROAKO AGENTZIA

### *II.1. DATU OROKORRAK*

Uztailaren 22ko 8/2015 Foru Dekretuak ezartzen duen bezala, Eskubide Sozialetako Departamentuak, beste eskumen batzuen artean, honako arlo hauetakoak dauzka: gizarte gaiak, familia, haur eta nerabeentzako arreta, pertsonen autonomiaren sustapena, eta hirugarren adinekoen eta desgaitasunak dituztenen beharretarako laguntza.

Abuztuaren 28ko 128/2015 Foru Dekretuaren bitartez, Eskubide Sozialetako Departamentuaren egitura organikoa ezartzen da. Hona hemen organigrama:




PAGNA Eskubide Sozialetako Departamentuari atxikitako erakunde autonomo bat da. PAGNAren estatutu indardunak 172/2015 Foru Dekretuaren bidez onetsi ziren, eta autonomia pertsonalaren sustapenerako politikekin eta mendekotasunaren prebentzioarekin, familiekin eta adingabeen babesarekin lotutako eskumenak esleitzen zaizkio.

Txostenaren xede diren kontratuen kudeaketan eta kontrolean esku hartzen duten unitateak, PAGNArenak zein Departamentuarenak, honako hauek dira:

- PAGNAren eremuan:

a) Kudeaketaren eta Baliabideen Zuzendariordetzaren pean, Ituntze Atalak, besteak beste, laguntza-kontratu berrietarako proposamenak egiteari buruzko eginkizunak betetzen ditu, kasuan kasuko arloen arduradunekin elkarlanean.

b) Balorazioen eta Zerbitzuen Zuzendariordetzaren pean, Desgaitasuna duten Pertsonentzako Zerbitzuen Atalak, besteak beste, Zuzendariordetzako beste atal batzuekiko lankidetzan, zerbitzuen eta zentroen koordinazio, kudeaketa, laguntza eta aholkularitza eginkizunak beteko ditu.

c) Familiaren eta Adingabeen Zuzendariordetzaren pean, Zaintza Kudeatzeko eta Neurri Judizialak Betearazteko Atalak, besteak beste, honako eginkizun hauek beteko ditu: babeserako etxebizitza funtzionaletan eta egoitza-zentroetan dauden adingabeen gainbegiratzea eta jarraipena eta atal honi esleitutako eskumenen eremuari dagozkion kontratuen eta entitateen kontrola eta gainbegiratzea.

- Eskubide Sozialetako Departamentuaren arloan, eta Errealitate Sozialaren Behatokiaren eta Gizarte Politiken Plangintzaren eta Ebaluazioaren Zuzendaritza Nagusiaren pean:

a) Kalitate eta Ikuskapen Zerbitzua, zeinari Ikuskapen Atala atxikita baitago kontrola eta ikuskapena Departamentuko gainerako unitate organikoekin lankidetzan betetzen duen unitatea den aldetik, gizarte zerbitzuei eta itunei buruzko araudian xedatutakoa betetzen dela egiaztatzeko[1].

[1] Txosten honen testuinguruan, itunak eta itundutako tokiak egiazki dagozkie Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Legearen esparruan kontratatutako laguntza-kontratuei eta tokiei.

### *II.2. GIZARTE ZERBITZUEN OINARRIZKO ARAU-ESPARRUA*

Autonomia Pertsonala Sustatzeko eta Mendekotasun Egoeran dauden Pertsonak Artatzeko 39/2006 Legea 2006ko abenduaren 14an onetsi zen. Esparru horretan zehazten da mendetasun-egoeran dauden pertsonek eskubidea dutela aipatutako legean aurreikusitako prestazio eta zerbitzuak berdintasun-baldintzetan eskuratzeko, Estatu espainiarreko edozein lurraldetan bizi izanda ere.

Halaber, aurreikusten da ezarritako prestazio eta zerbitzuak kasuan kasuko autonomia erkidegoetako gizarte zerbitzuen sarea osatuko luketela, berenganatuta dauzkaten eskumenen eremuan. Ezartzen du, gainera, zentroen sarea honako hauek osatuta egonen litzatekeela:

*a) Autonomia-erkidegoetako eta toki-erakundeetako zentro publikoak*

*b) Pertsonen autonomia sustatzeko eta mendetasuna duten herritarrei arreta eskaintzeko Estatuko erreferentzia-zentroak*

*c) Behar bezala egiaztatuta dauden zentro pribatu itunduak.*[2]

Azkenik, gehitzen da hitzartutako zentro pribatuen erregimen juridikoa eta jarduteko baldintzak autonomia-erkidegoek zehaztuko dituztela.

Nafarroan, 2006ko abenduaren 14an, Nafarroako Gizarte Zerbitzuei buruzko 15/2006 Foru Legea onetsi zen; lege-esparru hori gero erregelamenduz garatzen da, Gizarte Zerbitzu Orokorren Zorroa onesten duen 69/2008 Foru Dekretuaren bidez; zorro horretan, izan ere, sistema publikoko prestazioak ezartzen dira. 15/2006 Foru Legeak indarrean mantentzen du maiatzaren 23ko 209/1991 Foru Dekretua[3], gizarte zerbitzuen arloko baimenen, arau-hausteen eta zehapenen araubideari buruzkoa.

Honako hauek dira Gizarte Zerbitzuen Zorroak jasotzen dituen prestazio bermatuak (eskubide subjektibo gisa exigitu daitezkeenak) eta bermatu gabekoak (aurrekontuan dirua egotekotan soilik exigitu daitezkeenak):

- Oinarrizko osasun-laguntza
- Mendekotasunerako arreta
- Desgaitasuna duten pertsonentzako arreta
- Gaixotasun mentala duten pertsonentzako arreta
- Gizarte bazterketako edo arriskuko egoeran dauden pertsonentzako arreta
- Adingabeentzako arreta
- Generoko indarkeriaren biktimentzako arreta

Gure jarduketa honako zerbitzu hauei dagozkien kontratuen azterketan zentratu da:

- Egoitza-arreta eta eguneko zentroetakoa desgaitasuna eta gaixotasun mentala duten pertsonentzat
- Adingabeentzako arreta

Arreta horiek honako bi zentro-mota hauetan eskaintzen dira:

a) Nafarroako Gobernuak kudeatzen dituen zentro publikoak, baliabide propioekin nahiz kanpoko baliabideekin kudeatzen direnak enpresekin edo entitate kudeatzaileekin egindako kontratu-adjudikazioen bitartez.

[2] 39/2006 Legearen 16. artikuluaren hitzez hitzeko testua; alabaina, ituntzeari buruzko txostenaren testuinguruan, Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legearen esparruko kontratazioari dagokio.

[3] Gizarte zerbitzuen arloko baimenen, arau-hausteen eta zehapenen araubideari buruzko azaroaren 13ko 9/1990 Foru Legearen erregelamenduzko garapena; gaur egun indarrik gabe geratutako lege-esparrua da.

b) Zentro pribatuak, enpresekiko edo entitate kudeatzaileekiko kontratu-adjudikazioen bitartez.

Kontratuen adjudikazioa, bi zentro-mota horietan, kokatuta dago Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legearen eremu objektiboan, zeina gero garatzen baita.

Hurrengo taulan, zentroen zerrenda ematen dugu, titulartasunaren arabera eta fiskalizazioaren xede diren eremuetako kudeaketa-araubidearen arabera antolatua:

| DESTAGAITASUNA | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| Titulartasun publikoa | | | | Titulartasun pribatua | |
| Baliabide propioekin kudeatutako zentroa | Baliabide propioekin kudeatutako etxebizitza funtzionalak | Kudeaketa kontratatua duten zentroak | Kudeaketa kontratatua duten etxebizitza funtzionalak | Kudeaketa kontratatua duten zentroak | Kudeaketa kontratatua duten etxebizitza funtzionalak |
| 1 | 1 | 6 | 5 | 4 | 2 |

| GAIXOTASUN MENTALA | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| Titulartasun publikoa | | | | Titulartasun pribatua | |
| Baliabide propioekin kudeatutako zentroa | Baliabide propioekin kudeatutako etxebizitza funtzionalak | Kudeaketa kontratatua duten zentroak | Kudeaketa kontratatua duten etxebizitza funtzionalak | Kudeaketa kontratatua duten zentroak | Kudeaketa kontratatua duten etxebizitza funtzionalak |
| 1* | 0 | 1 | 1 | 5 | 4 |

*Osasun Departamentuari atxikia

| ADINGABEENTZAKO ARRETA | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| Titulartasun publikoa | | | | Titulartasun pribatua | |
| Baliabide propioekin kudeatutako zentroa | Baliabide propioekin kudeatutako etxebizitza funtzionalak | Kudeaketa kontratatua duten zentroak | Kudeaketa kontratatua duten etxebizitza funtzionalak | Kudeaketa kontratatua duten zentroak | Kudeaketa kontratatua duten etxebizitza funtzionalak |
| 0 | 0 | 4 | 5 | 7 | 11 |

1. eranskinean, zentroen xehetasunak eta kontratatutako tokien kopurua ageri da. Adierazi beharra dago tokien kopuruak ez duela erabiltzaileen kopurua esan nahi, zeren eta toki batean, ondoz ondo, erabiltzaile desberdinak egon baitaitezke kontratu bakoitzak irauten duen bitartean.

### *II.3. GIZARTE ZERBITZUEN ZORROAN AURREIKUSITAKO PRESTAZIO ETA ZERBITZUEN KONTRATAZIOA*

Kontratazio publikoari buruzko zuzentarauetan aurreikusitako Europako kontratazioaren araudian eta Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legean ezartzen diren aukerekin bat[4], gizarte zerbitzuen zeharkako kudeaketa bideratzeko araubide bat artikulatzen da, izaera administratiboa izan eta laguntza-kontratu gisa kalifikatzen diren kontratuak eginez[5].

Kontratuak, gainera, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legean eta Gizarte zerbitzu orokorren zorroa onesten duen ekainaren 17ko 69/2008 Foru Dekretuan ezarritakoari egokitu behar zaizkio.

Administrazio publikoen eta entitate pribatuen arteko zeharkako kudeaketaren eta haietatik datozen kontratu-harremanen eremuan sartzen dira bai gizarte ekimeneko entitateak, zeinek ezaugarri gisa baitute irabazi asmorik ez izatea, bai irabazi asmoa dutenak ere, zeinak merkataritza-eremuan jarduten duten pertsonifikazio juridiko desberdinak baitira.

2017ko azaroaren 16an, osasunaren eta gizarte zerbitzuen eremuetarako, Itun Sozialak arautzen dituen 13/2017 Foru Legea[6] onetsi zen, zeinak honako hau baitu xede: “Pertsonei zerbitzu sozialak, sanitarioak eta soziosanitarioak emateko zeharkako kudeaketa arautzea, irabazi-asmorik gabeko entitateekin itunak eginez, 2.1 artikuluaren bidetik eta kontratazio publikoaren arloko araudiari lotu gabe, baliabide publikoak aski edo egoki ez direnean zerbitzu publikoen zorroa bermatzeko”.

Bai sektorerako berariazko esparru berri horrek, bai kontratazio publikorako esparru orokorrak ere —2018ko apirilaren 13ko Kontratu Publikoei buruzko 2/2018 Foru Lege berrian jasotakoa— suposatzen dute Europako zuzenbidea —EBFTren 14. artikulua eta 2014ko otsailaren 26ko 2014/24/EB Zuzentaraua, kontratazio publikoari buruzkoa—integratzea; izan ere, horrek aurreikusten du aukera egon dadila interes orokorreko zerbitzuen eta zuzeneko laguntzakoen ematea erreserbatzeko irabazi asmorik gabeko entitateentzat, betiere elkartasun-xedeak eta aurrekontu-efizientziakoak zaintzen dituen esparru batean, eta horrek lehia nahastea ez dakarrenean.

[4] Lana egiteko egun indarrean dagoen kontratu-esparrua. 2018ko maiatzaren 7an, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legeak hartu zuen indarra; esparru juridiko berri hori Kontratazio Publikoari buruzko 2014/24/UE eta 2014/23/UE zuzentarauei egokituta dago.

[5] Ulertzen da kontratuen xedea jasota dagoela Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legearen II.B eranskineko “Gizarte eta osasun zerbitzuak” izeneko 25. kategoriako “Gizarte laguntzako zerbitzuak, ostatuarekin”, “Gizarte ongizateko zerbitzuak minusbaliatuentzat” eta “Eguneko zentroko zerbitzuak” epigrafeetan.

[6] 2017ko azaroaren 30eko 231. NAO.

### *II.4. PAGNAREN ZERBITZUEN AURREKONTU- ETA KONTRATU-EGOERA 2016KO EKITALDIAN*

PAGNA programa baten gisara egituratuta dago aurrekontuaren ikuspuntutik, zehazki 920. programan, eta 2016ko ekitaldian kapituluz kapituluko honako betetze-datu hauek dauzka:

| Kapituluak | Behin betiko kredituak | Aitortutako betebeharrak | % Betetzea | Aurrekontu osoaren gaineko % |
|---|---|---|---|---|
| 1. Langile-gastuak | 22.834.683 | 22.693.992 | 99 | 14 |
| 2. Gastu arruntak | 97.810.548 | 96.400.217 | 99 | 58 |
| 4. Transferentzia arruntak | 45.075.573 | 44.929.244 | 100 | 27 |
| 6. Inbertsioak | 1.219.883 | 1.130.563 | 93 | 1 |
| 7. Kapital-transferentziak | 200.000 | 150.000 | 75 | 0 |
| Orokorra, guztira | 167.140.686 | 165.304.016 | 99 | 100 |

Txostenaren xede diren kontratuak egozten zaizkien aurrekontuko partidek honako aurrekontu-betetze hau dute:

| Aurrekontuko partidak | 2016an aitortutako betebeharrak | 2. kapituluko gastu osoaren gaineko % |
|---|---|---|
| Desgaitasuna duten pertsonentzako zentroen kudeaketa | 30.058.883 | 31,18 |
| Gaixotasun mentaleko zentroen kudeaketa | 5.535.106 | 5,74 |
| Familiari laguntzeko zerbitzuak: familia-orientazioa eta -bitartekotza | 186.258 | 0,19 |
| Adingabeentzako laguntzak | 13.621.659 | 14,13 |
| Aitortutako betebeharrak, guztira | 49.401.906 | 51,25 |

2013ko maiatzean, Kontuen Ganberak "Mendekotasunaren eremuko egoitzako eta eguneko arretarako zerbitzuak Nafarroan (2008-2012)" izeneko txostena egin zuen. Gastuak 2008-2012 aldian izandako bilakaera islatzen zuen txosten horrek. Hona hemen 2012-2017 aldiko partidek izan duten bilakaera:

| Aurrekontuko partidak | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 | 2016 | 2017 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Desgaitasuna dutenentzako zentroen kudeaketa | 28.194.904 | 28.509.252 | 28.861.014 | 29.429.549 | 30.058.883 | 27.445.052 |
| Gaixotasun mentalerako zentroen kudeaketa | 4.996.170 | 5.431.010 | 5.460.337 | 5.478.531 | 5.535.106 | 4.834.263 |
| Familiari laguntzeko zerbitzuak: familia-orientazioa eta -bitartekotza | 446.097 | 194.481 | 153.848 | 179.263 | 186.258 | 254.953 |
| Adingabeentzako laguntzak | 12.381.603 | 12.906.400 | 13.312.749 | 13.513.499 | 13.621.659 | 13.230.097 |
| Partidak, guztira | 46.018.774 | 47.041.143 | 47.787.948 | 48.600.842 | 49.401.906 | 45.764.365 |

2017ko aurrekontuan txostenaren xede diren partidek 2016ko ekitaldian baino betetze txikiagoa edukitzearen arrazoia da 2017ko ekitaldiaren itxierako arauak aplikatu direla[7]; horien arabera, 2018ko aurrekontuari egozten zaio 6.563.014 euro egiten duten betebeharren aitorpena. Txosten honen V.4 atalean aztertu ditugu betebehar horiek.

2016ko ekitaldian, fiskalizazioaren xede diren zerbitzuen kontratu-egoera eta hark ekarri duen aurrekontu-gastua hurrengo egoera-orrian ikusten direnak dira:

[7] Ogasuneko eta Finantza Politikako Kontseilariaren ekainaren 22ko 84/2017 Foru Agindua

| Kontratua | Kontratuaren jatorria | Adjudikazioaren indarraldia | 2016ko lizitazio berriaren indarraldia | Kontratua mugae-guneratua duen zerbitzua | Gastua 2016an |
|---|---|---|---|---|---|
| Adacen | 2015 | 2015eko apirila-2019ko apirila | | | 1.348.866 |
| Ademna | 2015 | 2015eko apirila-2019ko apirila | | | 206.638 |
| Zerbitzua* | 2014 | 2014ko martxoa-2018ko martxoa | | | 393.177 |
| Tafalla eta Zangoza | 2010 | | | 2014ko azarotik | 277.167 |
| Tafalla eta Zangoza | 2016 | | 2016ko abuztua-2020ko uztaila | | 290.706 |
| PF Barañáin | 2016 | | 2016ko abuztua-2020ko uztaila | | 42.926 |
| Carmen Aldave | 2015 | 2015eko azaroa-2019ko urria | | | 2.343.958 |
| Ramón y Cajal | 2014 | 2014ko apirila-2018ko martxoa | | | 3.892.887 |
| Oncineda | 2013 | 2013ko maiatza-2017ko apirila | | | 3.036.991 |
| Las Hayas, Valle de Roncal | 2014 | 2014ko apirila-2018ko martxoa | | | 7.904.055 |
| Atalaya | 2014 | 2014ko apirila-2018ko martxoa | | | 2.558.482 |
| Atalaya | 2016 | | 2016ko azaroa-2020ko azaroa | | 1.329.737 |
| Vencerol, Las Torchas eta Mendebaldea | 2011 | | | 2015eko irailetik | 680.958 |
| Vencerol, Las Torchas eta Mendebaldea | 2016 | | 2016ko abuztua-2020ko uztaila | | 510.970 |
| PF Iturrama | 2011 | | | 2015eko abendutik | 237.927 |
| PF Iturrama | 2016 | | 2016ko abuztua-2020ko uztaila | | 177.719 |
| Infanta Elena | 2014 | 2014ko otsaila-2018ko urtarrila | | | 3.684.773 |
| Infanta Elena | 2016 | | 2016ko azaroa-2020ko azaroa | | 514.390 |
| Valle del Roncal | 2016 | | 2016ko azaroa-2020ko azaroa | | 626.555 |
| Guztira | | | | | 30.058.883 |

* ANFASen laguntza goiztiarrerako eskualdeko zerbitzuei dagozkie, eta desgaitasun-mota hori duten 0-3 urteko haurren jarduerei.

| Kontratua | Kontratuaren jatorria | Adjudikazioaren indarraldia | Kontratua mugaeguneratua duen zerbitzua | Gastua 2016an |
|---|---|---|---|---|
| Ekipoak** | 2010 | 2010eko azaroa-2014ko azaroa | 2014ko azarotik | 431.760 |
| Ordoiz EPSZ | 2005 | 2005eko azaroa-2080ko urria | | 521.835 |
| Argako EPSZ | 2005 | 2005eko azaroa-2080ko urria | | 541.039 |
| Queiles EPSZ | 2005 | 2005eko azaroa-2080ko urria | | 401.219 |
| Félix Garrido | 2012 | 2012ko martxoa-2016ko martxoa | 2016ko martxotik | 1.094.757 |
| Tuterako etxebizitza | 2005 | 2005eko azaroa-2015eko azaroa | 2015eko abendutik | 49.932 |
| CRPS Benito Menni | 2005 | 2005eko azaroa-2080ko urria | | 128.101 |
| Padre Menni/Benito Menni | 2013 | 2013ko azaroa-2017ko azaroa | 2017ko abendutik | 2.366.464 |
| Gaixotasun mentala, guztira | | | | 5.535.106 |

** Barneratze soziokomunitarioko zerbitzuak, gizarteratze arazoak dituzten pertsonak artatzen dituztenak eta hainbat lantalde eta tailerren bitartez gauzatzen direnak.

| Kontratua | Kontratuaren jatorria | Adjudikazioaren indarraldia | Gastua 2016an |
|---|---|---|---|
| Larritasun handiko zailtasun sozialeko egoeran dauden adingabeen ikerketa eta balorazioa, eta balorazioa eta esku-hartzea adingabeen aurkako sexu-erasoen kasuetan | 2004 | 2004ko ekaina-2016ko abendua | 95.513 |
| Babesgabetasun egoeran dauden eta gatazka sozialeko profila duten adingabeentzako egoitza-harrerako 36 plazen kudeaketa. | 2009 | 2009ko abendua-2019ko azaroa | 1.790.209 |
| Adingabe arau-hausleak neurri judizialak betetzeko zentroaren kudeaketa | 2014 | 2014ko uztaila-2018ko uztaila | 1.661.956 |
| Beste pertsona, familia edo hezkuntza-talde batekiko bizikidetasuneko ingurune irekiko neurri judizialen programaren kudeaketa | 2016 | 2016ko martxoa-2018ko uztaila | 252.885 |
| Ingurune irekiko lantaldearen eta nerabeentzako hezkuntza programaren kudeaketa | 2016 | 2016ko martxoa-2018ko uztaila | 559.712 |
| Adopzioaren ondoko familia-laguntzaren zerbitzua ematea eta familia hartzaileei akonpainamendua egitea | 2015 | 2015eko urria-2019ko iraila | 142.387 |
| Etxebizitza funtzionaletako egoitza-harrerako 64 tokien zerbitzuaren kudeaketa | 2006 | 2006ko azaroa-2016ko urria | 2.025.971 |
| Beren burua adopziorako eskaintzen duten pertsonei zuzendutako adopzioaren aurretiko prestakuntza | 2012 | 2012ko ekaina-2016ko uztaila | 2.189 |
| Familia-orientazioko zerbitzua* | 2016 | 2016ko abendua-2019ko abendua | 15.904 |
| Toxikoen kontsumoari lotutako gatazka-egoeran dauden adingabeentzako egoitza-harrerako 4 tokiren kudeaketa | 2013 | 2013ko abuztua-2017ko abuztua | 71.069 |
| Tuterako eta Lizarrako barrutietan zaitasun sozialeko egoeran dauden haurrei eta nerabeei arreta emateko lantaldearen kudeaketa | 2012 | 2012ko azaroa-2016ko azaroa | 391.355 |
| Tafallako barrutian zaitasun sozialeko egoeran dauden haurrei eta nerabeei arreta emateko lantaldearen kudeaketa | 2013 | 2013ko maiatza-2017ko maiatza | 143.372 |
| Familian esku hartzeko programa gauzatzea | 2015 | 2015ko martxoa-2019ko abendua | 933.755 |
| Honako hauen kudeaketa: oinarrizko egoitza-harrerako 40 toki; egoitza-harrera espezializatuko 5 toki; behaketa eta harrerako 12 toki; adingabeentzako eguneko zentroko 18 toki, eta larrialdiko familietan harrera-egoeran dauden adingabeak baloratzeko programa | 2013 | 2013ko uztaila-2017ko uztaila | 3.161.449 |
| Familia-topagunearen zerbitzua kudeatzea | 2005 | 2005eko ekaina-2015eko ekaina | 355.410 |
| Etxebizitza funtzionaletako egoitza-harrerako 64 tokien zerbitzuaren kudeaketa | | Aberaste bidegabea 2016ko urritik aurrera | 403.259 |
| Familia-bitartekotzarako zerbitzua* | | Aberaste bidegabea 2016. urte osoa | 67.422 |
| Familia-orientazioko zerbitzua* | | Aberaste bidegabea 2016ko azarora arte | 102.300 |
| Tuterako eta Lizarrako barrutietan zaitasun sozialeko egoeran dauden haurrei eta nerabeei arreta emateko lantaldearen kudeaketa | | Aberaste bidegabea 2016ko azarotik | 54.101 |
| Zailtasun-egoeran edo gizarte-gatazkan dauden adingabeentzako barnetegi araubideko 25 tokiren erreserba- eta okupazio-zerbitzua ematea | | Aberaste bidegabea 2015eko apiriletik | 2.369.690 |
| Adingabeentzako arreta, guztia | | | 13.807.917 |

* Familiari laguntzeko zerbitzuen partidari honako hauek egozten zaizkio: familia-orientazioa eta -bitartekotza

## III. HELBURUAK, NORAINOKOA ETA MUGAK

Gure lana zentratu da desgaitasuna edo gaixotasun mentala dutenentzako eta adingabeen arretarako 2016an egindako egoitza-arretako eta eguneko zentroetako zerbitzuak emateko kontratuak berrikustean, honako helburu hauekin:

- Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziaren kontratazio publikoa aztertzea eta kontratuen lagin bat berrikustea.
- Zerbitzu horien kostu-kalitatearen egokitasuna aztertzea, aztertutako espedienteetan ezarrita dauden zenbateko lizitatuak ikusita.
- Kontratuetako baldintza-orrietan eta enpresa adjudikazio-hartzaileen eskaintzetan garrantzitsuentzat iritzitako alderdiak betetzen diren aztertzea.
- Zerbitzuak emateko kontratatutako langileen kostu erreala kalkulatzea.

Gure lana 2017ko ekitaldira zabaldu da, aztertzeko zein izan diren 2017-2019 urteetarako Desgaitasunaren arlorako IV. Hitzarmenak indarra hartzearen eraginak, bai eta 2017ko ekitaldian egindako adjudikazioak ere, 2016an hasitako lizitazioetatik datozenak.

Txosteneko II.4 apartatuan islatutako kontratuen zerrendatik abiatuta, honako lagin hau hautatu dugu:

| Desgaitasuna | Zentro-mota | Adjudikazioaren zenbatekoa (BEZik gabe) |
|---|---|---|
| Oncineda zentroa | Propioa | 3.450.444 |
| Infanta Elena zentroa | Propioa | 4.112.194 |
| La Atalaya zentroa | Propioa | 3.084.653 |
| Carmen Aldave zentroa | Besteren kontura | 2.437.504 |
| Iturrama, Tafalla eta Zangozako etxebizitza funtzionalak | Besteren kontura-koak/Propioak | 1.113.509 |
| Mendebaldea, Las Torchas eta Vencerol etxebizitza funtzionalak | Propioa | 1.188.455 |

| Gaixotasun mentala | Zentro mota | Adjudikazioaren zenbatekoa (BEZik gabe) |
|---|---|---|
| Félix Garrido | Propioa | 1.325.421 |
| Tuterako etxebizitza | Propioa | 49.932* |
| Padre Menni eta Benito Menni | Besteren kontura | 4.268.815 |

* 2016ko gastuaren zenbatekoa

| Adingabeentzako arreta | Zentro mota | Adjudikazioaren zenbatekoa (BEZik gabe) |
|---|---|---|
| Familia-orientazioko zerbitzua | - | 173.881 |
| - Familia-bitartekotzarako zerbitzua | - | 79.954 |
| Egoitza-harrerako 38 tokiren kudeaketa | Besteren kontura-koak/Propioak | 1.685.922 |
| Gizarte-gatazka handiko profila duten adingabeentzako egoitza-harrerako hiru programaren eta ingurune irekiko programa baten kudeaketa | Besteren kontura-koak/Propioak | 2.028.046 |

Kontratu horiei buruz, eta parlamentu-eskariari erantzunez, honako alderdi hauek berrikusi ditugu, funtsean:

- Kontratuak kontratazio publikoaren esparru juridikoaren arabera adjudikatzea.
- Moduluen kalkulua eta langileen gastuarekin duten lotura.
- Hitzarmen kolektiboen aplikazioa.
- Nominen lagin bat, hitzarmen kolektiboen araberakoak diren egiaztatzeko.

- Kalitate eta Ikuskapen Zerbitzuaren kontrol-jarduketak.

Halaber, lana egiteko, kontuan hartu dira Ganbera honek 2013ko maiatzean egin zuen "Mendekotasunaren eremuko egoitzako eta eguneko arretarako zerbitzuak Nafarroan (2008-2012)" izeneko txosteneko ondorioak eta gomendioak.

Zerbitzuak betetzeko kontratatutako langileen kostu errealari buruzko parlamentu-eskaerari dagokionez, ez dugu iritzia emanen, zeren eta daukagun informazioa soil-soilik adjudikazio-hartzaileek emandakoa baita, eta ez baitago PAGNAk berrikusi eta gainbegiratuta. Gainera, ez dugu datu egiaztaturik ordezkapenei, absentismoari eta horiek hasierako aurreikuspenetan dauzkaten eraginei buruz. Hala eta guztiz ere, langile-gastuen estaldura egiaztatu dugu, kontratuak lizitatzeko eta adjudikatzeko unean.

Kostua-kalitatea atalari dagokionez, horri buruzko iritzia emateko informaziorik ez dago. Hala eta guztiz ere, hurbilketa batzuk egin ditugu, txosteneko V.5 atalean jasotzen den bezala.

Lana egin da Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Kontuen Ganberak fiskalizazio-eskuliburuan garatu dituen sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta arauei jarraituz, eta, funtsean, “Fiskalizazio finantzarioko oinarrizko printzipioak” ISSAI-ES 200 eta "Betetzeari buruzko fiskalizazioaren oinarrizko printzipioak" ISSAI-ES 400 arauak aplikatu dira.

## IV. ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Ondoren, egindako lanaren ondorio nagusiak aurkezten ditugu, bai eta kontratazioaren kudeaketa hobetzeko egokitzat jotzen ditugun gomendioak ere:

• 2016ko eta 2017ko ekitaldietan egindako kontratuak lizitatzeko eta adjudikatzeko prozedurak Kontratuei buruzko 6/2006 Foru Legearen arabera egin dira, eta pleguetan aintzat hartu dira eragina zuzena duten 2014/24/EB Zuzentarauaren xedapenak.

• Espedienteen lizitazioak izapidetzen ari badira ere, aurreko kontratuen indarraldia amaitu delako, oraindik ere zerbitzu batzuk badaude zeinetan aurreko adjudikazio-hartzaileak haiek ematen jarraitzen baitu, indarraldi hori gainditu bada ere, bai eta zerbitzuak ordaintzen ere, aberaste bidegabearen teoriaren arabera. Horrelako egoerak ahal den guztian saihestu beharrekoak dira.

• 2015eko otsailaren 3az geroztik egindako lizitazioek —data horretan hartu zuen indarra 6/2006 Foru Legearen 49. artikuluaren aldaketak— klausula administratibo partikularren kasuan kasuko pleguetan jaso dituzte aplikatzekoak diren hitzarmen kolektiboei dagozkien klausula sozialak. Egiaztatu dugu lizitazioen zenbatekoak langileen gastuei buruzko zenbatespenak nahikotasunez estaltzen dituela, aipatutako klausulan aurreikusitakoari hasiera batez estaldura emateko. Ondorio bera atera daiteke aipatutako artikuluaren aldaketak indarra hartu aurretik berrikusitako lizitazioak direla eta, nahiz eta artikulu hori ez izan exigitzekoa.

Gainera, aplikatzekoak diren hitzarmen kolektiboetan aurreikusita dauden lansarien mailak eta egitura betetzeari buruzko lagineko nominak egiaztatu ditugu.

• Desgaitasunaren arloan, kontratazioa modu homogeneoan gauzatzen da, plegu berdinei jarraituz eta desgaitasunaren hitzarmen kolektibo bera aplikatuz zentro eta etxebizitza guztietarako[8]. Homogeneotasun hori ez da gaixotasun mentalaren eta adingabearentzako arretan gertatzen; arlo horietan, ez da aplikatzekoa desgaituen kolektiborako hitzarmena, eta aplikatzekoak dira estatu- eta enpresa-erramuetako hitzarmen kolektiboak.

• 2011ko ekitalditik aurrera, aurrekontu-egonkortasuna ez-betetzearen agertoki batean eta defizita murrizteko helburuarekin, laguntza-kontratuetako prezioen berrikuspenaren aplikazioa kentzen da, eta, horrenbestez, prezioak izoztu egiten dira ondoz ondoko luzatzeetan. Egoera horrek eragina izan zuen enpresa adjudikazio-hartzaileek hurrenez hurreneko hitzarmen kolektiboetan aurreikusitako ordainari-hobekuntzen aplikazioan. Nahiz eta tradizionalki Nafarroako Gobernuak *de facto* lansarien igoerak finantzatzen zituen kontratu-moduluaren geroztiko aldaketaren bitartez, 2017-2019 urteetarako Desgaitasunaren IV. Hitzarmen Kolektiboan Eskubide Sozialetako Departamentuaren konpromiso formal bat sartu zen, hitzarmenean jasotako ordainsari-hobekuntzak finantzatzekoa hark indarra duen bitartean. Konpromiso horretatik abiatuta, baimena dago aipatutako eremuan modulua urtero berrikusteko; berrikuspen hori, ordea, ez dago baimenduta gaixotasun mentalaren eta adingabearentzako arretaren esparruetan, eta horrek eragiten du kontratuko arriskuaren eta menturaren printzipioak, kontratistak bere gain hartzen duenak, desberdin jokatzea.

• Lizitazioak egin baino lehen aurreikuspen eta plangintza ekonomiko exhaustibo bat dago pleguetan ezarritako beharren inguruan. Hala eta guztiz ere, gure ustez, aurrekontuen kalkulua oso doia da, eta horrek neurri handi batean mugatzen du langileenak ez diren gastuetarako maniobra-tartea, tasatutako onura gehienez ere ehuneko hirukoa izateaz gainera; horrek, izan ere, enpresa txiki eta ertainen lehia efektiboa muga lezake enpresa handien onurarako. Izan ere, gaur egun desgaitasunaren eremuko zerbitzu guztiak enpresa bakarrari adjudikatuta daude; enpresa hori enpresa handitzat kalifikatuta dago merkataritzaren esparru juridikoan. Balizko muga hori kontraesanean egon liteke kontratazioaren zuzentarau berrien helburuetako batekin —Kontratu Publikoei buruzko 2/2018 Foru Legearen bitartez egin da haien transposizioa—; honako hau da helburu hori: enpresa txiki eta ertainek kontratazio publikorako sarbidea izan dezaten erraztea.

[8] Desgaitasunaren hitzarmen kolektiboak zentro zehatzen erreferentzia duen eremu subjektibo bat osatzen du. Gaixotasun mentalaren eta adingabeentzako arretaren arloetan aplikatzekoak diren hitzarmenak eremu objektiboei dagozkie.

• Pleguetan kontratuen betetze faserako exigitzen diren gainbegiratze- eta kontrol-eskakizun batzuek zuzendu beharko liratekeen gabezia aipagarriak dauzkate; hona hemen horietako bi: zentroetan eta etxebizitzetan bertatik bertarako kontrol-mekanismo egokiak egotea langileen arloko betekizunak egiaztatzeko, eta txosten teknikoak eta ekonomikoak behar den denboran eta moduan egiaztatzea, hartara nahikotasunez eta egokitasunez ebaluatu ahal izateko kontratatutako zerbitzuen kalitate materialaren eta funtzionamenduko kalitatearen maila. Gabezia horiek eragotzi egiten digute egiaztatzea pleguetan exigitzen diren betekizun jakin batzuk guztiz betetzen diren.

• Ikuskapen Atalak, une honetan, hiru ikuskatzaile dauzka; horrek eragotzi egiten du PAGNAren kontratuen gainbegiratze- eta kontrol-eginkizunak betetzea, aztertutako arlo guztietan[9].

• Desgaitasunaren arloan, eta pleguetan aurreikusitakoaz bestera, gure iritziz betetze-fasean ez dira ebaluatu adjudikazio-hartzaileei adjudikazio-irizpide moduan baloratutako apartatu guztiak.

• Gizarte Zerbitzuei buruzko 15/2006 Foru Legeak ezartzen du kalitate planak onetsi behar direla gizarte zerbitzuetarako, lau urteko indarraldiarekin. Onetsitako plan bakarra 2010-2013 aldiari dagokiona da.

• Pleguetan exigitzen diren langile-arloko betekizunak 209/1991 Foru Dekretuan gutxieneko gisa ezarritakoetatik gora daude.

• Ebaluazio-adierazleei eta adjudikazio-hartzaileei exigitutako gogobetetze-maila neurtzeko inkestei buruzko informazioak ahuldade nabarmenak dauzka, kontratatutako zerbitzuen kalitatea baloratzeko kudeaketa-tresna gisa daukaten erabilgarritasunaren aldetik.

Gure iritziz, ikusitako gabeziak hobetzeko hainbat alderdi hartu beharko lirateke kontuan, eta horiexek dira horiei buruz egin behar ditugun gomendioak:

*• Pleguetan jasotako exigentziak egiaztatzea eta, zehazki, ekitaldi bakoitzaren amaieran oroitidazki tekniko eta ekonomikoak berrikustea.*

*• Aztertzea kontrol-mekanismoak egokiak diren eta aukera ematen duten pleguetan exigitutako langileen bertaratze-betekizuna egoki egiaztatzeko.*

*• Aztertzea ea Kalitate eta Ikuskapen Zerbitzuaren baliabideak nahikoak diren PAGNAren kontratuen gaineko kontrol-eginkizunak betetzeko; edo, bestela, agentziaren menpean kontratuen kontrolerako eta jarraipenerako berariazko unitate bat eratzea.*

*• Enpresei dokumentazioa eskatzea haiek oroitidazkietan deklaratutako alderdi jakin batzuen betetzea egiaztatzeko.*

*• PAGNAren eta Kalitate eta Ikuskapen Zerbitzuaren artean adostutako prozedura bat zehaztea, pleguen balizko ez-betetzeetarako.*

*• Lizentzia berriak izapidetzea, aberaste bidegabearen figuraren pean ematen eta ordaintzen jarraitzen diren zerbitzuei estaldura egokia emateko.*

*• Aztertzea ez ote den egokia hitzarmen kolektibo sektorial bakar bat sustatzea gizarte zerbitzuen kudeaketaren arlorako.*

*• Aztertzea arrazoizkoa ote den lizitazio-aurrekontuek eskaintzen duten tarte eskasa, aurrekontu horiek ez dezaten eraginik izan kontratatutako zerbitzuen kalitatean.*

*• Kalitate plan berri bat onestea, 15/2006 Foru Legean aurreikusitako moduan, eta 2016ko ekitaldian, onetsitako kalitate plan bakarraren harira, egin zen ebaluazio-txostenean agerian jarritako mugak eta gabeziak berrikustea.*

[9] Paragrafo hau aldatuta dago, lehenengo alegazioaren lehen apartatuari jarraituz.

- *Agentziak zerbitzuen kalitatea ebaluatzeko adierazle egokiak zehaztu eta ezartzea, beren xederako modu eraginkorrean balio dezaten; horiei modu homogeneoan egokitu beharko zaizkie zerbitzuen adjudikazio-hartzaile diren enpresak.*
- *Inkestak egiteko modua hobetzea, honakoen moduko alderdietan: emaitzak adierazgarriak izateko gutxieneko gisa jotako kopurua, eta zein emaitza-tartetatik aurrera hartu behar diren neurri zuzentzaileak.*

# V. ZERBITZUEN KONTRATAZIOAREN ANALISIA

## V.1. ADJUDIKAZIO-PROZEDUREN BERRIKUSPENA

Atal honetan, laginaren xede diren kontratuei aplikatutako adjudikazio-prozeduren izapidetze administratiboa aztertzen da. Hala eta guztiz ere, V.3 atalean, adjudikazio-irizpideen eta langile-gastuen analisi xeheagoa egiten dugu.

Honako hauek dira eremuen araberako emaitzak:

### V.1.1. Desgaitasunaren eremua

Oncineda, Infanta Elena eta La Atalaya zentroak

PAGNAk 2016ko martxoaren 1ean akordio bat sinatu zuen batzorde parekidea osatzen duten zentral sindikalekin; akordio horren bidez, Administrazioak konpromisoa hartzen zuen “Desgaitasuna dutenei arreta emateko Nafarroako Gobernuarekin itundutako zentroen III. hitzarmen sektorialean” jasotako baldintza ekonomikoak osorik betetzea bermatzeko. Horretarako, nahiz eta 2017ra arte indarrean dauden kontratuak egon, hain zuzen ere 2013an eta 2014an adjudikatutako kontratuak, 2016ko uztailean, PAGNAk zentro publiko eta pribatuen kudeaketarako kontratuen lizitazio berria egin zuen. Inguruabar hori aurreikusita, kontratu indardunak luzatu egin ziren, adjudikazio berrira arteko iraupena zuen epe batekin.

Espedienteak zentro guztiak hartzen ditu; Europar Batasuneko atalasetik gorako adjudikazio-prozedura irekiaren bidez izapidetu zen, eta adjudikazioa loteka eginen zela ezarri zen, honako banaketa honen arabera:

| Loteak | Egoitzetako tokiak | Eguneko zentroetako tokiak | Tokiak, guztira |
|---|---|---|---|
| 1. lotea, Las Hayas | 50 | 45 | 95 |
| 2. lotea, La Atalaya | 50 | 16 | 66 |
| 3. lotea, Oncineda | 61 | 5 | 66 |
| 4. lotea, Valle del Roncal | 104 | 10 | 114 |
| 5. lotea, Infanta Elena | 70 | 12 | 82 |

1. lotetik 4. lotera bitartekoak adimen-desgaitasuna duten pertsonentzako egoitzetarako dira. 5. lotea desgaitasun fisikoa duten pertsonentzako egoitzari dagokio.

Espedientearen lizitazioa 2016ko uztailean argitaratu zen, eta eskaintzak hautatu eta baloratzeko izapideak egin ondoren, 2016ko azaroan adjudikatu ziren kasuko loteak.

Hautatutako laginean, adjudikazio-prozeduraren datuak, BEZik gabe, honako hauek dira:

| Loteak | Balio zenbatetsia | Lizitatzaileak | Lizitazioaren zenbatekoa | Adjudikazioaren zenbatekoa | Beherapenaren ehunekoa |
|---|---|---|---|---|---|
| 2. lotea, La Atalaya | 15.533.248 | 6 | 3.171.760 | 3.084.653 | -2,7* |
| 3. lotea, Oncineda | 17.126.523 | 4 | 3.542.578 | 3.450.444 | -2,6* |
| 5. lotea, Infanta Elena | 20.894.176 | 3 | 4.328.626 | 4.112.194 | -5,0* |

* Beherapenaren batez besteko portzentajea eguneko zentroaren eta egoitzaren zerbitzuetan.

Infanta Elena zentroaren kontratua geroztik aldatu zen hasierako lizitazioan bi akats aurkitu zirelako. Bata gobernanta-lanpostuari buruzkoa zen, zeina ez baitzegoen jasota, eta bestea garbiketako eta sukaldeko orduen arteko doikuntza bati zegokion.

Pleguek aurreikusten zuten ezinezkoa izanen zela enpresa bera adjudikazio-hartzaile suertatzea hiru lote baino gehiagotan. Hori dela eta, 4. eta 5. loteak Infanta Elena eta Valle de Roncal zentroei zegozkienak, bigarren puntuazio onena lortu zuen enpresari adjudikatu zitzaizkion. Bere

eskaintzan, ehuneko bosteko beherapen bat aurkeztu zuen. Bi zentro horien kudeaketa 2017aren amaieran atera zen gero berriz ere lizitaziora, adjudikazio-hartzaileak kontratua luzatzeari uko egin ziolako, hain zuzen ere uste zuelako ez zela bideragarria zerbitzua ematen jarraitzea. Lizitazio berrian, bi zentro horietan behin betiko adjudikazio-hartzaile suertatu da 1., 2. eta 3. loteak hasiera batean adjudikatu zitzaizkion enpresa bera; hori dela eta, une hauetan Nafarroako Gobernuko desgaitasunerako zentro guztien adjudikazio-hartzailea da.

Mendebaldea, Las Torchas eta Vencerol etxebizitza funtzionalak

2016ko apirilean espediente bat izapidetu zen Mendebaldea, Las Torchas eta Vencerol etxebizitza funtzionaletan desgaitasuna dutenei laguntza espezializatua emateko zerbitzua kudeatzeko. Adjudikazioa hiru lotetan zatituta dago; hona hemen banaketa:

| Loteak | Tokiak, guztira |
|---|---|
| 1. lotea, Mendebaldea | 14 |
| 2. lotea, Las Torchas | 12 |
| 3. lotea, Vencerol | 18 |

Lizitazioaren arrazoia da aurreko kontratuan posible ziren luzapen guztiak amaitu direla; izan ere, haren indarraldia 2015ko irailaren 8an amaitzen zen. Kontratu berriaren adjudikaziora arte, aurreko enpresak zerbitzua ematen jarraitzen du Administrazioak eskatuta, adjudikazio berrira arte, eta zerbitzuaren prestazioaren jarraitutasuna ordainduz, “aberaste bidegabearen teoriaren” figuraren arabera.

Lizitazio berrian zentroen aldetik III. hitzarmen kolektiboa osorik betetzeari buruz aipatu dugun konpromiso bera aurreikusten da. Adjudikazio prozedura irekia da, Europar Batasuneko atalasetik gora, eta 2016ko apirilean argitaratu zen. 2016ko uztaileko eskaintzen hautatze- eta balorazio-prozedurak egin ondoren adjudikatu zen.

Adjudikazio-prozeduraren datuak, BEZik gabe, honako hauek dira:

| Loteak | Balio zenbatetsia | Lizitatzaileak | Lizitazioaren zenbatekoa | Adjudikazioaren zenbatekoa | Beherapenaren ehunekoa |
|---|---|---|---|---|---|
| 1. lotea, Mendebaldea | 1.856.352 | 6 | 385.703 | 381.846 | -1 |
| 2. lotea, Las Torchas | 1.868.953 | 5 | 388.866 | 384.977 | -1 |
| 3. lotea, Vencerol | 2.057.312 | 4 | 425.891 | 421.632 | -1 |
| Guztira | 5.782.617 | | 1.200.460 | 1.188.455 | |

Adjudikazioa enpresa bakarraren aldekoa izan zen hiru lotetan.

Iturrama, Tafalla eta Zangozako etxebizitza funtzionalak

2016ko maiatzean lizitazio bat izapidetu zen Iturrama, Zangoza eta Tafalla etxebizitza funtzionaletan desgaitasuna dutenei laguntza espezializatua emateko zerbitzua kudeatzeko. Adjudikazioa lotetan zatituta dago; hona hemen banaketa:

| Loteak | Tokiak, guztira |
|---|---|
| 1. lotea, Iturrama | 15 |
| 2. lotea, Tafalla | 11 |
| 3. lotea, Zangoza | 12 |

Kontratazio-espediente berriaren arrazoia da aurreko kontratuetako balizko luzapen guztiak amaitu direla. Zangozako eta Tafallako etxebizitzetako kontratuaren azken luzapena 2014ko abenduaren 31n amaitu zen, eta Iturramako etxebizitzako kontratuaren azken luzapena, berriz,

2015eko abenduaren 31n amaitu zen. Zerbitzuen prestazioa, kontratu berria adjudikatu artekoa, “aberaste bidegabearen teoriaren” figuraren bitartez gauzatzen zen.

Lizitazioa adjudikazio-prozedura irekiaren bitartez egiten zen, Europar Batasuneko atalasetik gora, eta zentro berekien konpromiso bera aurreikusten zen III. hitzarmen kolektiboaren betetze osoari dagokionez. 2016ko maiatzean argitaratu zen eta 2016ko uztailean adjudikatu, behin eskaintzan hautatzeko eta ebaluatzeko izapideak egin ondoren.

Adjudikazio-prozeduraren datuak, BEZik gabe, honako hauek dira:

| Loteak | Balio zenbatetsia | Lizitatzaileak | Lizitazioaren zenbatekoa | Adjudikazioaren zenbatekoa | Beherapenaren ehunekoa |
|---|---|---|---|---|---|
| 1. lotea, Iturrama | 1.980.237 | 1 | 411.361 | 411.361 | 0 |
| 2. lotea, Tafalla | 1.702.487 | 1 | 354.685 | 354.685 | 0 |
| 3. lotea, Zangoza | 1.667.821 | 1 | 342.463 | 342.463 | 0 |
| Guztira | 5.350.545 | | 1.113.509 | 1.113.509 | |

Lizitatzaile batek bi lotetarako eskaintzak aurkeztu zituen, eta beste batek, berriz, lote bakarrerako. Beherapenik gabe adjudikatu zitzaizkien, hurrenez hurren, eskainitako loteetako lizitatzaile bakoitzari.

Carmen Aldave zentroa

2017ko ekainean beste adjudikazio bat onetsi zen, garuneko perlesiak edo/eta desgaitasun anitzak edo/eta antzeko nahasteak larriki edo handiki kaltetutako pertsonen arreta integralaren zerbitzuaren kudeaketarako, honako zentro hauetan:

| Zentroak | Egoitzetako tokiak | Eguneko zentroetako tokiak | Tokiak, guztira |
|---|---|---|---|
| Carmen Aldave zentroa | 40 | | 40 |
| Ramón y Cajal egoitza | 30 | 62 | 92 |

Aurreko kontratua oraindik ere indarrean zegoen arren eta, horrenbestez, luza zitekeen arren, beste espediente bat izapidetu zen desgaitasunaren hitzarmen sektorialaren kostuen gaurkotzea —bai eta, zentro eta etxebizitza funtzionalen kasuan, Nafarroako Gobernuak eskari horri erantzuna emateko arestian aipatutako konpromisoa ere— kontuan hartu ahal izateko. Adjudikazio-prozedura aipatutako zentroetako jabe den entitatearekin negoziatutako prozedura da, Europar Batasunean publizitaterik egin gabekoa.

Honako hauek dira adjudikazio-prozeduraren datuak, laginean hautatutako Carmen Aldave zentroaren kasuan:

| Zentroa | Balio zenbatetsia | Lizitatzaileak | Lizitazioaren zenbatekoa | Adjudikazioaren zenbatekoa | Beherapenaren ehunekoa |
|---|---|---|---|---|---|
| Carmen Aldave | 11.995.627 | 1 | 2.437.504 | 2.437.504 | 0 |

Kontratuaren funtsezko baldintzak zuzenean negoziatu zirenez zentroaren jabea zen entitatearekin, ez dago adjudikazioko beherapenik.

### V.1.2. Buru-gaixotasunaren arloa

Félix Garrido zentroa

Felix Garrido Nafarroako Gobernuaren zentro propio bat da. Zentroa 2012an sortu zen, eta kontratu bakarra 2012ko martxoa-2016ko martxoa aldiari dagokiona da, 2012ko otsailean adjudikatua.

Zentro horretan ematen den zerbitzua gaixotasun mentala duten pertsonentzakoa da, eta honela banatzen da:

| Zentroa | Etxe-egoitza | Eguneko zentroa | Errehabilitazio psiko-soziala | Tokiak, guztira |
|---|---|---|---|---|
| Félix Garrido | 25 | 30 | 35 | 90 |

Kontratu hori Ganbera honek fiskalizatu zuen "Mendekotasunaren eremuko egoitzako eta eguneko arretarako zerbitzuak Nafarroan (2008-2012)" txostenean, 2013ko maiatzean egindakoan, eta ondorioztatu zuen adjudikazio-prozesua zuzena izan zela. Lizitazio-zenbateko berarekin adjudikatu zen; horrenbestez, ez zen beherapen ekonomikorik izan kontratuaren prezioan.

Haren indarraldia 2016ko martxoan amaitu zenetik, aurreko enpresa adjudikazio-hartzaileak berak jarraitzen du zerbitzua ematen, eta hura "aberaste bidegabearen teoriaren" izapidetzearen arabera ordaindu zen.

Ganbera honek txostena egiteko datan, beste espediente bat izapidetzen ari da, zeinak aukera emanen baitu zerbitzuen prestazioari legezko euskarri egokia emateko.

Tuterako tutoretzapeko etxebizitza

Kontratu horren jatorria 2005eko ekitaldian dago, eta 10 urteko indarraldia dauka, 2015eko abendura artekoa, Nafarroako Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko 10/1998 Foru Legearen arabera[10]. 2015eko abendutik, data horretan amaitu baitzen haren indarraldia, enpresa berak jarraitzen du zerbitzua ematen eta hura ordaintzen "aberaste bidegabearen teoria" delakoaren arabera.

Soil-soilik aztertu da ea fakturazioa hasierako kontratuan ezarritako baldintzen araberakoa den.

Ganbera honek txostena egiteko datan, beste kontratazio-espediente bat izapidetzen ari da gainerako tutoretzapeko etxebizitzen espedientearekin batera.

Padre Menni eta Benito Menni

"Ahizpa Ospitalariak" irabazi asmorik gabeko erakunde pribatu bat da, gaixo mentalak artatzen eta haiei osasun integrala ematen jarduten duena. Bi zentro dauzkate: Iruñeko Clínica Padre Menni eta Elizondoko Centro Hospitalario Benito Menni izena dute, eta toki pribatuak eta PAGNAk kontratatzen dituen beste toki batzuk badauzkate.

PAGNAk honako toki hauek dauzka kontratatuta:

| Zentroa | Egoitza-arreta | Psikogeriatria | Tutoretza-peko etxe-bizitzak | Errehabilitazio psikoso-zialeko zentroa | Eguneko zentroa Adinekoak | Tokiak, guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Padre Menni | 42 | 30 | 18 | 18 | 30 | 138 |
| Benito Menni | 40 | 45 | | | | 85 |
| Tokiak, guztira | 82 | 75 | 18 | 18 | 30 | 223 |

[10] Gaur egun indargabeturik dagoen esparru juridikoa

Horri dagokionez, honako hau adierazi behar dugu:

• Benito Menni zentroa kontratatua izatearekin, Elizondoko Errehabilitazio Psikosozialeko Zentroko tokiak ere kontratatuta daude; 2005ean adjudikatu ziren. Kontratua zerbitzu publikoa kudeatzeko kontratu gisa kalifikatu zen, 75 urteko iraupenarekin, indargabetuta dagoen 10/1998 Foru Legearen xedapenen arabera. Kontratu hori ez zen laginean jaso.

• Laginaren xede diren toki kontratatuei dagokienez, Padre Menni adinekoentzako eguneko zentroaren gastua, eta Psikogeriatriako gastua, bai Padre Mennin, bai Benito Mennin egindakoa, zaharrentzako arretari dagokio; hori dela eta, agentziak beste partida bati egozten dio[11], eta ez da txosten honetan fiskalizatzen.

• Osasun Departamentuak, esparru-kontratu baten bitartez, ospitaleratze psikiatrikorako Egonaldi Ertaineko Unitateko tokiak kontratatzen ditu. Esparru-kontratu honen bitartez, Padre Menni zentroko osasun arloko langileak finantzatzen dira (sendagileak, erizainak, hezitzaileak eta abar...), baina langile horiek aipatutako gaixoak ez ezik, PAGNAk itundutako tokietako erabiltzaileak ere artatzen dituzte.

Aztertutako kontratua 2013ko urrian adjudikatu zena da; Europar Batasunean publizitaterik egin gabeko prozedura negoziatuaren bitartez adjudikatu zen, 2013ko azaroa-2017ko azaroa aldirako.

Honako hau da adjudikazio-prozedurari buruzko informazioa, BEZik gabe:

| Zentroa | Balio zenbatetsia | Lizitatzaileak | Lizitazioaren zenbatekoa | Adjudikazioaren zenbatekoa | Beherapenaren ehunekoa |
|---|---|---|---|---|---|
| Padre Menni | 17.984.040 | 1 | 2.304.913 | 2.304.913 | 0 |
| Benito Menni | | 1 | 1.963.902 | 1.963.902 | 0 |

Lizitazio horrek adinekoentzako gastuaren zatia hartzen du, zeina ez baita txosten honen xedea.

2017ko azarotik, data horretan amaitzen baita kontratuaren indarraldia, aurreko adjudikazio-hartzailearen bitartez eusten zaio zerbitzuaren prestazioari, “aberaste bidegabearen teoria” figuraren araberako espedienteak izapidetuta.

Gaur egun, kontuan hartuta Itun Sozialei buruzko azaroaren 16ko 13/2017 Foru Lege berria onetsi dela , irabazi asmorik gabeko entitateekiko harremana arautze aldera, aurreikusita dago itun bakar bat izapidetzea, batera jasoko dituena bai Osasun Departamentuak kontratatutako tokiak, bai PAGNArenak ere.

### V.1.3. Adingabearentzako arretaren arloa

<u>Familia-orientazioko zerbitzua</u>

Zerbitzu hori Gizarte Zerbitzuei buruzko 15/2006 Foru Legean zerbitzu publiko eta espezializatu gisa jasota dago, eta Departamentuko zerbitzuen zorroan, berriz, bermatu gabeko prestazio tekniko baten moduan.

Zerbitzuak gatazkak prebenitzeko xedea dauka, eta aldi berean, laguntza, tratamendua eta gaikuntza ematekoa, familiako eta ezkontideen arteko bizikidetasun-zaitasuneko egoeran dauden 18 urtez azpiko seme-alaba adigabeen familiek dauzkaten arazoei aurre egiteko.

Oraingoaren aurreko kontratuaren indarraldia 2015eko abenduaren 31n amaitu zen, luzatzeko inongo aukerarik gabe. Hala eta guztiz ere, 2016ko azaroan kontratu berria adjudikatu arte, zerbitzuak aurreko enpresa adjudikazio-hartzaileak eman izan ditu, “aberaste bidegabearen teoriaren” figuraz baliatuta.

[11] Zaharrentzako zentroen kudeaketa

2016ko otsailean, kontratazio-espedientea onetsi eta Europako atalasetik gorako prozedura irekiaren bidezko lizitazioa, izapide urgentez bidezkoa, argitaratu zen. Maiatzean, atzera-egitea deklaratu zen, kontratuaren prezioa zehaztean akats bat aurkitu zelako, eta 2016ko uztailean behin betiko izapidetu eta argitaratu zen.

Adjudikazio-prozeduraren datuak, BEZik gabe, honako hauek dira:

| Kontratua | Balio zenbatetsia | Lizitatzaileak | Lizitazioaren zenbatekoa | Adjudikazioaren zenbatekoa | Beherapena-ren ehunekoa |
|---|---|---|---|---|---|
| Familia-orientazioa | 713.321 | 1 | 173.981 | 173.881 | -0,06 |

Adjudikazio-prozeduraren hautaketa eta geroko izapidetzea zuzenak izan badira ere Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legean ezarritako prozeduraren ikuspuntutik, aipatu beharra dago koherentziarik ez dagoela espedientea izapidetze urgentekotzat deklaratzearen eta haren izapidetze administratiboaren artean, Kontratazio Mahaiaren jarduketen izapidetzearen geroratzetik ondoriozta daitekeenaren arabera, are gehiago kontuan hartuta eskaintza bakarra zegoela. Kontratua uztailean lizitatu zen eta azaroaren amaieran adjudikatu zen; hau da, lau hilabete geroago; hori dela eta, kontratua izapidetze arrunteko espediente baten prozedura-epeetan gauzatu zen. Geroratze horrek guztiak aukera eman du aurreko kontratista 11 hilabetez zerbitzuaren prestazioaz arduratzen jarraitzeko.

Familia-bitartekotzarako zerbitzua

Zerbitzu hori Gizarte Zerbitzuei buruzko 15/2006 Foru Legean jasota dago, familiei laguntza emateko prestazio tekniko publiko eta espezializatu moduan. Zerbitzuen zorroan bermatu gabeko prestazio teknikotzat jasota dago, nahiz eta Seme-alaben jagoletza gurasoen bizikidetza hausten den kasuetarako arautzen duen martxoaren 17ko 3/2011 Foru Legeak zerbitzua emateko betebeharra ezartzen duen.

2016ko otsailean, kontratazio-espedientea onetsi eta Europako atalasetik gorako prozedura irekiaren bidezko lizitazioa, izapide urgentez bidezkoa, argitaratu zen. Maiatzean, prozesuaren atzera-egitea deklaratu zen, zeren eta kontratuan akats bat detektatu baitzen prezioa zehazterakoan, eta 2016ko uztailean izapidetu eta behin betiko argitaratu zen; hala eta guztiz ere, 2016ko irailean, eman gabe deklaratu zen, zeren eta aurkeztutako bi enpresen kaudimen-gabezia egiaztatu baitzuen Kontratazio Mahaiak.

Azkenik, abenduan beste lizitazio bat onetsi zen, eta iragarkia 2016ko abenduan argitaratu zen.

Lizitazio berrira, lau lizitatzaile aurkeztu ziren, eta Kontratazio Mahaiak eskaintzak ebaluatu eta baloratu ondoren, 2017ko martxoan adjudikatu zen kontratua.

Adjudikazioa ebatzi bitartean, zerbitzua aurreko enpresak ematen jarraitu zuen. Kontratuaren indarraldia 2015eko abenduan amaitu zen, eta ordainketa “aberaste bidegabearen teoriaren” figuraren arabera egin zen.

Adjudikazio-prozeduraren datuak, BEZik gabe, honako hauek dira:

| Kontratua | Balio zenbatetsia | Lizitatzaileak | Lizitazioaren zenbatekoa | Adjudikazioaren zenbatekoa | Beherapena-ren ehunekoa |
|---|---|---|---|---|---|
| Familia-bitartekotza | 399.753 | 4 | 83.281 | 74.954 | -10 |

Kontratazio horrek, familia-orientazioko zerbitzua bezala, eta espedientea urgentetzat kalifikatu arren, 14 hilabetez jarraitu du zerbitzua ematen, kontratuaren indarraldia amaituta egonda ere.

Egoitza-harrerako 36 tokiren kudeaketa

Kontratu honek helburu du egoitza-harrerako 36 tokiren kudeaketa; babesgabetasun-egoeran dauden adingabeentzako egoitza-harrerako tokiak dira, gatazka sozialaren profila dutenentzat. Kontratuko programak eta tokiak honela banatzen dira:

| Egoitza-harrerako 36 tokiren kudeaketa | Tokiak, guztira |
|---|---|
| Oinarrizko egoitza-harrera (OEH) | 29* |
| Jokabidearen nahasteengatik gainbegiratze eta esku-hartze psikohezkuntzakoaren premia bereziak dituzten gazteentzako egoitza-harrera (EHE) | 5 |
| Gazte finalistentzako edo autonomia-prozesuan daudenentzako egoitza-harrera (GEH) | 2 |

*Bi egoitzatan egiten da eta 16 eta 13 toki dauzkate, hurrenez hurren

Hasierako kontratuaren jatorria 2009ko azaroko adjudikazio bat da, 2012ko abendura arteko iraupena duena; halere, haren indarraldiak hamar urte bitartera zabaltzen da, luzapenak barne; hau da, 2019ko azarora arte. Adjudikazio-prozeduraren datuak, BEZik gabe, honako hauek dira:

| Kontratua | Balio zenbatetsia | Lizitatzai-leak | Lizitazioaren zenbatekoa | Adjudikazioaren zenbatekoa | Beherapena-ren ehunekoa |
|---|---|---|---|---|---|
| Egoitza-harrerako 36 toki-ren kudeaketa | 21.012.563 | 1 | 1.796.051 | 1.685.922 | -6,13 |

Adjudikazioa eta gero, kontratuan honako kontratu-aldaketa hauek egin ziren:

• 2010ean, GEH programan kontratatutako tokiak bi izatetik lau izatera pasa ziren, eta hezkuntzako laguntzaile baten kontratazioarekin, programa horretako gaueko arretari estaldura emateko.

• 2013an, beste baliabide bat sartu ahal izateko aldaketa egin zen; izan ere, hartan eskatzen zen hezitzaile bat egon zedila autonomia-araubidean dauden hamar gazte bakoitzari euskarri instituzional eta teknikoa emateko.

Aldaketak Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legean ezarritakoaren arabera izapidetu ziren.

Egoitza-harrerako hiru programaren eta ingurune irekiko programa baten kudeaketa, gatazka sozial handiko egoeraren profila duten adingabeentzat

Kontratu horren kudeaketaren jatorria aurreko kontratu batean dago, 2005eko ekitaldian, zailtasun edo gatazka sozialean dauden adingabeentzako barnetegi araubideko 20 toki erreserbatu eta betetzeko, adjudikatutako batean. Kontratu hori 10/1998 Foru Legearekin adjudikatu zen, zerbitzu publikoen kudeaketarako kontratuaren figuraren pean, eta hartan hamar urteko iraupena aurreikusten zen; hori dela eta, 2015eko apirilean amaitzen zen haren indarraldia.

Data horretan, zenbait aldaketa egin ondoren, honako toki hauek zeuden kontratatuta:

• 15 toki behaketako eta harrerako zentroko (BHZ) araubidean

• 10 toki oinarrizko egoitza-harrerako (OEH) araubidean

2016ko urrian iragarki bat argitaratu zen honako hauen kontrataziorako:

• 18 toki behaketako eta harrerako zentroko (BHZ) araubidean

• 18 toki oinarrizko egoitza-harrerako (OEH) araubidean

• 8 toki egoitza harrera espezializatuko (EHE) araubidean

• 10 toki autonomia-prozesuan dauden gazteen jarraipenerako.

Espediente berrian, alde batetik tokien kopurua handitzen da eta bestetik tokiak sortzen dira programa berrietan; esate baterako, EHEren kasuan eta autonomia-prozesuan dauden adingabeen jarraipenean.

Lizitazio hori eman gabe deklaratu zen 2017ko otsailean, lizitatzaileek ezin baitzituzten bete hasiera batean BHZren programarako exigitutako baldintzak. Egoera horretan, eta arazoari konponbidea emateko, beste espediente bat izapidetu zen, kontratua bi lotetan bereiziz: 1. lotea BHZ programako 18 tokietarako eta 2. lotea gainerakoetarako. Lizitazio prezioak 1. lotean okupatutako toki bakoitzeko urteko gehieneko prezioa eta 2. loteko urteko guztizko gehieneneko prezioa dira.

Espedientea 2017ko maiatzean lizitatu zen, eta entitate batek bi lotetarako eskaintza aurkeztu zuen eta beste entitate batek, berriz, soilik 1. loterako. 1. loteko eskaintzari dagokionez, erabaki zen eskaintza ez onartzea, eskatutako kaudimena ez betetzeagatik, eta eman gabe geratu zen. 2017ko urrian 2. loteko kontratua adjudikatu zen.

Adjudikazio-prozeduraren datuak, BEZik gabe, honako hauek dira:

| Loteak | Balio zenbatetsia | Lizitatzaileak | Lizitazioaren zenbatekoa | Adjudikazioaren zenbatekoa | Beherapenaren ehunekoa |
|---|---|---|---|---|---|
| 1. lotea* | 10.137.674 | 1 | 2.112.015 | Adjudikatu gabe | |
| 2. lotea | 9.857.881 | 2 | 2.053.725 | 2.028.046 | -1,25 |

*Balio zenbatetsiak eta lizitazio-zenbatekoak BHZko 18 toki finkoak ez ezik, behin-behineko beste bost toki ere hartzen ditu, zeinetan ez baitago toki-erreserbarik; eta arreta-kasuan, lizitazioaren zenbatekoa gehitzen da, pleguen araberako fakturazio-baldintza desberdinduekin.

Egindako berrikuspenetik, honako alderdi hauek nabarmendu behar ditugu:

• 2. loteari dagokion prozeduran, amaierara arte adjudikazio-hartzaile gertatu ez den entitatearen oroitidazki teknikoaren balorazioari eusten zaio, nahiz eta pleguetan eskatutako gutxienekora iritsi ez; izan ere, hura baztertu egin beharra zegoen.

• Espediente horiek izapidetze urgentekotzat kalifikatzen dira, baina izapidetze epeei begiratuta, hori ez da koherentea zuzendariordetzak nahi zuen urgentziarekin.

Aurreko kontratuaren indarraldia 2015eko apirilean amaitu zenetik 2. lotea (OEH, EHE eta adingabeen jarraipena) 2017ko urrian adjudikatu zen arte, zerbitzua aurreko adjudikazio-hartzaileak eman izan du, “aberaste bidegabearen teoria” figurari jarraituz. Egoera horretan bertan jarraitzen dute 1. loteko zerbitzuek (BHZ), lote hori eman gabe deklaratu baitzen.

**Azken batez**, aztertutako espedienteetako kontratazioan egindako adjudikazio-prozedurak, oro har, Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legean ezarritako xedapenen arabera gauzatu dira, eta 2016an egindako lizitazio berrien pleguetan[12] 2014/24/EB Zuzentarauko xedapen batzuk sartu dira, zeinek, barne antolamendurako transposizioa egin gabe dauden arren, zuzeneko eragina baitute transposizio-epea amaitu ondoren.

Izapidetzeko gelditzen dira kontratazio-espediente berriak, hasierako kontratuaren indarraldia amaituta egon arren ematen jarraitzen diren zerbitzu batzuei estaldura ematen dietenak.

[12] Besteak beste, lotekako banaketaren mekanismoa, loteen mugak eta proposamenak aurkezteko epeak.

## V.2. MODULUARI BURUZKO ZENBATESPENAK ETA LANGILEEN KOSTUAREN EBALUAZIOA ZERBITZU KONTRATATUEN LIZITAZIOETAN

### V.2.1. Aurretiazko gogoetak

Zentroen kudeaketaren kontratazioa, langileei dagokienez, oinarrituta dago sektoreko enpresen eta langileen lan-baldintzen erregulazioan, izaera sektorial nazionaleko edo/eta autonomikoko hitzarmen kolektiboei edo enpresako hitzarmen kolektiboei erreferentzia eginez, hitzarmen horiek aplikazio desberdina baitute arloetako bakoitzean, ondoren zehazten den bezala.

Desgaitasunaren arloa

Desgaitasuna dutenentzako arreta-zentroen, egoitzen, etxebizitzen eta eguneko zentroen kudeaketaren kontratazioa dela-eta, sektoreko autonomia erkidegoaren mailako lan-baldintzen erregulazioari begiratu behar zaio, zehazki, Nafarroako Gobernuarekin itunduta dauden desgaituentzako kudeaketa pribatuko arreta-zentroen hitzarmen kolektiboari; hain zuzen ere, honako hauek aplikatu dira:

- I. hitzarmen kolektiboa, 2005-2008 urteetakoa[13]
- II. hitzarmen kolektiboa, 2009-2011 urteetakoa[14]
- III. hitzarmen kolektiboa, 2011-2012 urteetakoa[15]
- IV. hitzarmen kolektiboa, 2017-2019 urteetakoa[16]

Kronologia horri dagokionez, honako hau esan beharra dago:

Konstante bat izan da sektoreko negoziazio kolektiboaren aurretik agentziarekiko aldez aurretiko finantzaketa-konpromiso bat egotea, zeinarekin hobekuntza ekonomikoaren esparru orokorra ezartzen baitzen. Hartara, hitzarmen bakoitzean sartutako hobekuntzek eta horiek zekarten kostuak, behin aurkeztu eta Gobernuak onartu ondoren, moduluaren prezioa handitzea ekartzen zuten, eta hartan gastu handiagoa baimentzen zen, aurreikusita zeuden lansari-berrikuspenen aplikazio erreala gaitzeko aldez aurretiko baldintza gisa. Konpromiso horiek onetsi egin ziren, bigarren hitzarmenean jasota ageri den bezala, Gobernuaren 2010eko ekainaren 28ko eta 2010eko abenduaren 13ko Erabakien bidez; izan ere, erabaki horiek baimena ematen zioten Nafarroako Mendekotasun Agentziari gastu-konpromiso batzuk hartzeko 2010erako proposatutako hobekuntzak finantzatze aldera.

2011ko ekitaldian, Nafarroako Foru Komunitatea, gainerako erkidegoak bezala, koiuntura ekonomiko eta aurrekontuko zailean zegoen; abagune horretan, izan ere, administrazio publikoak nahitaez aurrekontu-egonkortasuneko ibilbide jakin bati aurre egin beharrean aurkitzen ziren. Zehazki, Nafarroako Foru Komunitateak —Ganbera honek 2011ko ekitaldiko Nafarroako Kontu Orokorrei buruz egindako txostenetik ondorioztatzen den bezala— ez zuen betetzen aurrekontu-egonkortasunaren muga, aurreikusitakoaz 0,6 puntu portzentual gorago baitzegoen.[17]

Agertoki horretan, Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2011ko irailaren 27an, 14/2011 Foru Legea onetsi zuen, zeinak 2011ko Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko 22/2010 Foru Legea aldatu baitzuen; horren bidez, aukera eman zitzaion Gobernuari jada izenpetuta zeuden kontratuetako prestazio eta epeak alde bakarretik aldatzeko. Lege-gaikuntza horren arabera, aurrekontu-egonkortasunaren helburua betetzea interes publikoko arrazoia da, eta baldintza horrek gaikuntza ematen du kontratu publikoak aldatzeko, horixe aurreikusi baitzuen Kontratuei buruzko 6/2006 Foru Legeko 105. artikuluak.

[13] 76. NAO, 2005eko ekainaren 27koa. Honako zentro hauetan aplikatzekoa den hitzarmena da: Infanta Elena, Valle del Roncal, Santa María, La Atalaya, Oncineda eta Monjardín zentroak, eta Vencerol, Las Torchas eta Mendebaldea etxebizitza funtzionalak. Geroztik, hitzarmen honen baldintzei Ramón y Cajal, Carmen Aldave eta Adacen zentroak atxiki zitzaizkien, beren hitzarmenak aldatuz.

[14] 2010eko uztailaren 30eko NAO. Las Hayas gehitu zen,

[15] 2011ko abuztuaren 12k NAO

[16] 2017ko azaroaren 28ko NAO. Iturramako etxebizitza funtzionalak eta Tafalla, Zangoza eta Barañaingoak gehitu ziren.

[17] 2010ean, defizit-helburua, BPGaren erreferentzia hartuta, 2,4 zen, baina 3,03ra iritsi zen; 2011n, berriz, helburua 1,3 zen, eta egiazki 1,97ra iritsi zen.

14/2011 Foru Legeak indarra hartu zuenetik —haren bidez, gaikuntza ematen zaio Gobernuari kontratuen KPIaren araberako urteko gaurkotzea deuseztatzeko—, plegu berriek prezioak ez berrikusteari buruzko klausula bat jasotzen dute; hori dela eta, modulu ekonomikoaren prezioak aldatu gabe iraunen du kontratuek indarra duten bitartean. Aldaketa honekin, 2005etik jarraitu den ohiko prozedura eragozten da; izan ere, urte horretan ordura arteko lehen hitzarmena sinatzen da, negoziazio kolektiboan itundutako hobekuntzei estaldura ekonomikoa emateko.

Egoera horren aurrean, enpresa adjudikazio-hartzaileak hitzarmenean ezarritakoa ez aplikatzeko klausulari atxiki zitzaizkion, eta erabaki zuten eragin ekonomikoa zuten baldintzak ez aplikatzea; horrek eragina izan zuen, nagusiki, lansarien gaurkotzean, gaikuntzaren osagarrian eta lanaldian.

Enpresen erabaki horren aurrean, gatazka kolektiboko demandak aurkeztu ziren lan-arloko epaitegietan. Bide horretan eman ziren epaiak gero Nafarroako Auzitegi Nagusian berretsi ziren, eta txosten hau idazteko garaian guztiak epai irmoak dira.[18]

Epaiek pronuntziamendu judizial desberdinak, zentroaren eta enpresaren araberakoak, izan badituzte ere, aitortu dute hitzarmenean aurreikusitako lansari-berrikuspena ez zitzaiela enpresei exigitzekoa, zeren eta Nafarroako Gobernuak ez baitzituen ordaintzen lansari-igoera horiek; hau da, agentziak prezioak ez gaurkotzeak aukera ematen zien enpresa kontratatuei lansariak ez berrikusteko, hitzarmenena aurreikusitako klausula aplikatuz, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiaren jurisprudentziaren doktrinak aipatutako epaietan adierazi bezala.

Epai guztietan, Nafarroako Gobernua absolbitu egin da haren aurkako asmoetatik.

IV. hitzarmenaren testuan, bi aldaketa adierazgarri ikusten dira aurrekoekiko:

• “Lansarien berrikuspena” izenburua daraman 25. artikuluak Nafarroako Gobernuaren finantzaketa-proposamenera igortzen du, hain zuzen ere V. eranskin gisa jasotzen dena 2017-2019 aldirako; konpromiso formal hori ez da sartu aurreko hitzarmenetako testuan. Funtsean, konpromisoa honako honetan datza: 2017rako lansarien berrikuspen bat egitea, langile publikoei aplikatzekoa zaienaren parekoa gehi ehuneko bat eta txandakako lanaren osagarriaren finantzaketa. 2018ko eta 2019ko ekitaldietarako, lansarien berrikuspena aurreikusten da, langile publikoenaren parekoa, eta antzinatasuneko osagarri berri bat sortzea, bai eta 2019an lanaldia gutxitzeko konpromisoa ere.

• “Hitzarmenean ezarritakoa ez aplikatzeko klausula” izenburua daraman 46. artikulua murriztaileagoa da enpresen alde bakarreko aplikazioan, zeren eta soilik baimentzen baita honako kasu tasatu hauek gertatzen direnean:

a) PAGNAk ez ordaintzea edo ordainketetan atzerapen orokor bat izatea.

b) Kontratuaren aldaketa, langileen kostua estaltzen ez bada.

c) Kontratazio-pleguetan langileen kostuaren estaldura berariaz ez ezartzea.

Aipatu beharra dago hitzarmenean ezarritakoa ez aplikatzeko klausularen okerreko aplikazioa klausula administratiboen plegu berrietan kontratua azalerazteko arrazoi gisa jasotzen dela.

Gaixotasun mentalaren arloa

Aplikatzekoa dena estatuko hitzarmena da, zehazki XIV. hitzarmen kolektibo orokorra, desgaituei arreta emateko zentro eta zerbitzuena, 2012-2016 aldirakoa[19]. Hitzarmen hori 2017an ere indarrean egon da. Dena den, honako hau esaten da:

• Félix Garrido zentroan, lansariak osatzen dira langile bakoitzak modu pertsonalizatuan hartutako enpresa-erabakien bitartez, halako moduz non lansariak altuagoak izanen baitira aplikatzekoa den hitzarmenean ezarritakoak baino.

• Padre Menni eta Benito Menni zentroetan enpresaren hitzarmen kolektiboak dira aplikatzekoak.[20]

[18] 41/2013, 473/2014, 48/2014, 284/15, 148/2015, 128/2015, 171/2015, 241/2015, 478/2015, 14/2017 epaiak
[19] EAO 2012ko urriaren 9ko 243. zk.a

Adingabearentzako arretaren arloa

Jarduera horren erreferentziako hitzarmen kolektiboa Gazteak erreformatzearen eta adingabeen babesaren arlorako II. estatu-hitzarmena da, eta haren 2016rako lansari-berrikuspena[21]

Hala eta guztiz ere, entitate adjudikatzaileek enpresako hitzarmen kolektiboak aplikatzen dituzte.

### V.2.2. Kontratazio administratiboaren esparruaren eskakizun eta xedapenak

Klausula sozialak nahitaez sartzea kontratazio administratiboko pleguetan

Kontratuei buruzko 6/2006 Foru Legearen 49. artikulua urtarrilaren 22ko 1/2015 Foru Legearen bitartez aldatu zen, eta nahitaezko gutxieneko eduki gisa ezarri zen kontratazio-prozesuan izaera sozialeko eskakizun jakin batzuk sartzea. Exigentzia hori, lanaren arloari dagokionez, gauzatu beharra dago pleguetan lansariak bermatzeko klausula bat ezarriz; izan ere, haren arabera, nahitaez errespetatu behar dira aplikatzekoa den hitzarmen sektorialaren baldintzak.

Aldaketa horrek 2015eko otsailaren 3tik aurrera egiten diren lizitazio berriak ukituko ditu, data horretan hartuko baitu indarra aipatutako aldaketak.

Kontratuak adjudikatzeko irizpideak

6/2006 Foru Legearen 51. artikuluak nahitaezko baldintza bat ezartzen du: adjudikazio-irizpideen gutxienez ere ehuneko 50 formulen bitartez baloratzea, irizpide subjektiboen bitartez baloratu beharrean. Horrek indarra hartu zuen 2013ko martxoaren 5etik aurrera egindako lizitazio guztietarako, otsailaren 25eko 3/2013 Foru Legearen bidez egindako aldaketaren ondoren.

Prezioen berrikuspena

Aurrekontu-gastua gerarazteko neurriak aplikatuz, eta 14/2011 Foru Legearen babesean, Nafarroako Gobernuak 2012ko ekainaren 13ean erabaki bat onetsi zuen luzagarriak edo urte anitzekoak diren laguntza- eta hornidura-kontratuetarako; erabaki horren bidez, murriztapen batzuk ezartzen dira prezioen berrikuspenean, eta KPIaren gaurkotzea kentzen da egiten diren luzapenetan.

Neurri horren aplikazioa gauzatzen da, lehenengo eta behin, aurreko kontratuetarako eta kontratu indardunetarako prezioen klausula aldatuz; eta bigarrenik, prezioen berrikuspenik eza jasoz kontratazio berrietarako pleguetan. Erabaki horrek indarrean jarraitzen du, eta ez da berariaz indargabetu.

[20] Padre Menni zentroan 2006-2009 urteetarako hitzarmena aplikatu da, eta 2012ko prezioekin gaurkotu da. 2017ko ekitaldian, Padre Meni Klinika Psikiatrikoaren VII. hitzarmen kolektiboa, 2017koa, da aplikatzekoa. Benito Menni zentroan Enpresaren 2012-2015 urteetarako hitzarmen kolektiboa aplikatu da, bai eta Benito Menni zentroaren X. hitzarmen kolektiboa ere, 2016-2017 urteetakoa.

[21] 2012ko azaroaren 27ko EAOn argitaratua, eta 2016rako lansari-berrikuspena, berriz, 2016ko ekainaren 28ko EAOn.

### V.2.3. Kontratuetako prezioen zenbatespena eta langileen kostuarekin duen lotura

Honako hau da kontratuen prezioa zenbatesteko protokoloa:

• Langileen beharrak ebaluatzen dira arreta-mota bakoitzerako, eta baldintza teknikoen pleguak finkatzen dira. Beharrizan horiek gaixo bakoitzeko langile-ratioetan islatzen dira (langilea/gaixoa edo orduak), zeinak kategorien eta lanpostuen arabera sailkatzen baitira.

• Langile-gastuaren zenbatespen ekonomikoa kuantifikatzen da ezarritako ratioei aplikatuz aplikatzekoak diren hurrenez hurreneko hitzarmenetan ezarritako zenbatekoak eta lansari-egitura; horiei, gero, honako hauek gehituko zaizkie: zama sozialen zenbatespen bat, absentismoaren kostua eta beste gastu sozial batzuk. Azken hiru kontzeptu horiei dagokienez, homogeneotasunik ez dago ez zenbatespenean, ez kalkuluan; halere, oso adierazgarriak ez diren alde batzuk badaude.

• Zerbitzua emateko behar diren gainerako gastuen —bestelako ustiatze-gastutzat hartzen direnen— geroko ebaluazioa. Oro har, aurreko enpresa adjudikazio-hartzaileek aurkeztutako oroitidazki ekonomikoetatik abiatzen da, aldiaren batez besteko bat kalkulatuz eta prezioak KPIaren arabera gaurkotuz. Titulartasun pribatuko zentroen kasuan, titulartasun publikoa duten zentroetan ez bezala, ustiatze-gastuen barruan instalazioak amortizatzeari dagozkionak daude.

• Oro har, ehuneko hiruko etekin bat jasotzea[22] eta hori dagokion BEZa aplikatzea, salbu eta entitate adjudikazio-hartzailearen izaera fiskalarengatik, zerga-salbuespena aplikatu behar denean.

• Zerbitzu-emateak berekin dakartzan gastu zenbatetsien guztizkoa zati kontratatu behar diren tokien kopurua eragiketa egiten da gero, eta horrela toki bakoitzeko modulua lortzen da, erabiltzaile bakoitzeko kontratuaren prezio gisa.

Prozedura arlo guztietarako komuna den arren, honako berezitasun hauek badaude:

<u>Desgaitasunaren arloa (zentroak eta etxebizitza funtzionalak)</u>

2016an zentroetan egindako lizitazioko moduluen kalkulua honako informazio-iturri hauetan oinarritzen da:

• III. hitzarmen kolektiboa, 2011-2012 urteetakoa. 2011. urteari dagokion lansarien taula aplikatzen da, 2011ko KPIaren arabera gaurkotua + % 0,75; hau da, % 3,35.

• Langile horiei aplikatzekoa zaien garbiketaren arloko hitzarmena, soilik Oncinedan. Gainerako zentroek desgaitasunaren hitzarmena aplikatzearen alde egin zuten.

• Aurreko adjudikazio-hartzaileak eskuratutako langileen zerrenda, langileen subrogazioaren kalkuluaren ondoreetarako.

Carmen Aldave zentroaren kasuan, garbiketa-zerbitzua enplegu zentro berezi batekin azpikontratatu zen.

2. eranskinean, honako hauek ageri dira: zentro bakoitzeko ratioen zenbatespen bat, hitzarmenaren araberako lansari-egitura eta kalkulu xeherako gainerako osagaien aplikazioa. Behin informazioa gehituta, hurrengo tauletan aurkezten ditugu zentro eta etxebizitza bakoitzaren gastuaren zenbatespena, haren egitura eta egindako lizitazioetan kasuko modulua nola lortu den:

[22] Padre Menni eta Benito Menni zentroen kasuan, % 5,48 dela zenbatetsi da.

| Zentroak | Oncineda | % | Infanta Elena* | % | La Atalaya | % | Guztira | % |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Langileen gastuak** | **3.099.988** | **88** | **3.773.110** | **87** | **2.592.593** | **82** | **9.465.691** | **86** |
| Bestelako ustiapen-gastuak | 339.409 | 10 | 429.438 | 10 | 486.786 | 15 | 1.255.633 | 11 |
| **Gastuak, guztira** | **3.439.396** | **97** | **4.202.549** | **97** | **3.079.379** | **97** | **10.721.324** | **97** |
| Etekina: % 3 | 103.182 | 3 | 126.076 | 3 | 92.381 | 3 | 321.640 | 3 |
| **Aurrekontua, BEZik gabe** | **3.542.578** | **100** | **4.328.625** | **100** | **3.171.760** | **100** | **11.042.964** | **100** |
| Aurrekontua (BEZa barne) | 3.684.281 | | 4.501.770 | | 3.298.630 | | 11.484.683 | |
| **Eguneko zentroko tokiaren modulua (BEZa barne)** | **29.695** | | **25.556** | | **20.312** | | | |
| **Egoitzako tokiaren modulua (BEZa barne)** | **57.964** | | **59.930*** | | **59.469** | | | |

* Gobernanta-postua zuzendu eta garbiketa- eta sukalde-orduak doitu ondoren, modulu berria 60.760 eurokoa da

| Etxebizitza funtzionalak | Iturrama | % | Tafalla | % | Zangoza | % | Guztira | % |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Langileen gastuak** | **301.121** | **73** | **276.705** | **78** | **279.840** | **81** | **857.666** | **77** |
| Bestelako ustiapen-gastuak | 98.259 | 24 | 67.650 | 19 | 57.502 | 17 | 223.411 | 20 |
| **Gastuak, guztira** | **399.380** | **97** | **344.354** | **97** | **337.342** | **97** | **1.081.077** | **97** |
| Etekina, % 3 | 11.981 | 3 | 10.331 | 3 | 10.120 | 3 | 32.432 | 3 |
| **Aurrekontua, BEZik gabe** | **411.361** | **100** | **354.685** | **100** | **347.463** | **100** | **1.113.509** | **100** |
| **Aurrekontua (BEZa barne)** | **427.812** | | **368.872** | | **361.361** | | | |
| **Tokiaren modulua (BEZa barne)** | **28.521** | | **33.533** | | **30.113** | | | |

| Etxebizitza funtzionalak | Mendebaldea | % | Vencerol | % | Lastorchas | % | Guztira | % |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Langileen gastuak** | **307.620** | **80** | **328.679** | **77** | **315.088** | **81** | **951.386** | **79** |
| Bestelako ustiapen-gastuak | 66.849 | 17 | 84.808 | 20 | 62.452 | 16 | 214.108 | 18 |
| **Gastuak, guztira** | **374.469** | **97** | **413.486** | **97** | **377.540** | **97** | **1.165.495** | **97** |
| Etekina, % 3 | 11.234 | 3 | 12.405 | 3 | 11.326 | 2,9 | 34.965 | 3 |
| **Aurrekontua, BEZik gabe** | **385.703** | **100** | **425.891** | **100** | **388.866** | **100** | **1.200.460** | **100** |
| **Aurrekontua (BEZa barne)** | **401.131** | | **442.926** | | **404.420** | | | |
| **Tokiaren modulua (BEZa barne)** | **28.652** | | **24.607** | | **33.702** | | | |

| Carmen Aldave | Guztira | % |
|---|---|---|
| **Langile gastuak** | **1.798.853** | **74** |
| Bestelako ustiapen-gastuak[23] | 579.200 | 24 |
| **Gastuak, guztira** | **2.378.052** | **98** |
| Bestelako gastua (% 2,5) | 59.451 | 2 |
| **Aurrekontua, BEZik gabe (BEZetik salbuetsia)** | **2.437.504** | **100** |
| **Tokiaren modulua (BEZetik salbuetsia)** | **60.938** | |

Apartatu honetan garrantzitsua da aipatzea pleguetan zenbait klausula badaudela, honako ondore hauek ekarri dituztenak:

a) 23. klausula. Hitzarmen kolektiboa betetzeko betebeharra

6/2006 Foru Legearen arestian aipatutako 49. artikulua aplikatuz, kontratuaren klausula administratiboen pleguetan klausula bat jaso da, zeinean jasotzen baita adjudikazio-hartzaileak Nafarroako Gobernuarekin itundutako kudeaketa pribatuko desgaituentzako arreta-zentroen III. hi-

[23] Instalazioen amortizazioari dagozkion gastuak jasotzen dira

tzarmen kolektiboa, 2011-2012 urteetakoa, bete beharra daukala; klausula horrek ez du atzeraeraginik, eta haren bidez *“PAGNAk ez ditu inolaz ere bere eginen hitzarmen kolektiboa aplikatu ondorengo betebeharren ez-betetzeen ondorio ekonomikoak, betebehar horiek kontratua hasi aurreko data batean sortuak direnean, eta ezin izanen du hartu Kontratu Publikoei buruzko Foru Legearen 49.5 artikuluan ez-betetzeetarako aurreikusitako neurrietako bakarra ere, ez-betetze horiek kontratua hasi aurretik gertatu direnean”,* testuan hitzez hitz agertzen den moduan.

b) 28. klausula. Prezioen berrikuspena.

Klausula horretan jasota uzten da prezioen berrikuspena bidegabea dela, Gobernuaren 2012ko ekainaren 13ko Erabakia aplikatuz; izan ere, hartan ezari zen kontratuen luzapenetan ez zirela prezioak berrikusiko.

c) 29. klausula. Moduluak igotzea.

Aurreko klausulan ezarritakoa gorabehera, eta 6/2006 Foru Legearen 49. artikulua betetze aldera, 29. klausula gehitzen da, zeinak estaldura ematen baitio moduluen igoeraren aurreikuspenari, III. hitzarmen kolektiboaren edo hura ordezten duen hitzarmen kolektiboaren hobekuntzen betetze osorako berme finantzarioaren konpromisoagatik. Luzapenetan, ezartzen da gaikuntza-osagarria gaurkotu beharra dagoela, bai eta antzinatasuna ere, garbiketaren kasuan, kontratua betetzen den bitartean.

Horrenbestez, 23., 28. eta 29. klausulak aplikatzearen bidez, 2016an hasierako modulua zela-eta egin zen ebaluazio ekonomikoak zenbatespen hori eta haren gaurkotzea jasotzen ditu kontratuaren indarraldirako, honako zenbateko hauen arabera:

| Zentroak | Modulua | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Oncineda | Eguneko zentroa | 29.695 | 29.695 | 29.797 | 29.947 | 30.097 |
| | Egoitza | 57.964 | 57.964 | 58.164 | 58.464 | 58.764 |
| Infanta Elena* | Eguneko zentroa | 25.556 | 25.556 | 25.656 | 25.756 | 25.756 |
| | Egoitza | 59.930 | 59.930 | 60.180 | 60.330 | 60.430 |
| La Atalaya | Eguneko zentroa | 20.312 | 20.312 | 20.413 | 20.563 | 20.663 |
| | Egoitza | 59.469 | 59.469 | 59.822 | 60.172 | 60.422 |

* Akatsen zuzenketa eta moduluaren aldaketa, 60.760 euro egiten duena, lizitazioaren hasierako unearen ondorengoa da

| Etxebizitza funtzionalak | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 |
|---|---|---|---|---|---|
| Mendebaldea | 28.652 | 28.652 | 28.652 | 28.832 | 28.872 |
| Las Torchas | 33.702 | 33.702 | 33.702 | 33.781 | 33.861 |
| Vencerol | 24.607 | 24.607 | 24.747 | 24.827 | 25.067 |
| Iruña | 28.521 | 28.521 | 28.571 | 28.591 | 28.881 |
| Tafalla | 33.533 | 33.533 | 33.533 | 33.533 | 33.533 |
| Zangoza | 30.113 | 30.113 | 30.113 | 30.113 | 30.113 |

| Zentroa | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 |
|---|---|---|---|---|---|
| Carmen Aldave | 60.938 | 62.338 | 62.688 | 62.838 | 62.938 |

d) 17. klausula. Kontratua aldatzeko ahalmena

Klausula honek, kontratua Kontratuei buruzko 6/2006 Foru Legearen arabera aldatzeko kasuak jasotzeaz gainera, jasotzen du III. hitzarmen kolektiboa ordezten duen hitzarmen kolektiboaren hobekuntzak PAGNAk finantzatu beharko dituela; hona testua, hitzez hitz:

"*PAGNAk gertatzen den kostu-igoerari oniritzia eman baldin badio, eta aldaketa hori kontratazioaren esparruan ezarritako mugen barrenean baldin badago*".

2017an, IV. hitzarmena onetsi ondoren eta aipatutako klausula aplikatuz, bidezkoa da haren aplikazioak dakarren gainkostua finantzatzea; hori dela eta, moduluaren gaurkotze bat beharko da aipatutako hitzarmenak eragina duen kontratuaren indarraldi osorako.

Prozedura honako honetan oinarritu da: langileen kostua berriz kalkulatu behar da, desgaitasunaren hitzarmenari lotuta dauden langileen ehuneko biko igoera aplikatuz eta garbiketaren arloko langileen soldatari bere horretan eutsiz, zeren eta kolektibo horri Oncinedan beste hitzarmen bat aplikatu behar baitzaio. Ehuneko biko igoera oinarrizko soldataren gainean birkalkulatu da, eta gero ukitutako osagarrietan ere aplikatu da.

Gaurkotze hori PAGNAko zuzendari kudeatzailearen 2017ko urriaren 4ko Ebazpenaz onetsitako kontratu-aldaketa beten bitartez gauzatu zen; horren bidez, honako hauek onetsi ziren:

a) Urrian erregularizazio bat egitea, 2017ko urtarrilaren 1etik 2017ko abuztuaren 31ra arteko aldeari egoztekoa zaion igoeraren ordainketa baten bitartez; honako hauek dira aztertutako zentroetako zenbatekoak:

| | |
|---|---|
| Oncineda | 36.701 |
| Infanta Elena | 52.080 |
| La Atalaya | 35.923 |
| Las Torchas-Vencerol-Mendebaldea | 11.901 |
| Iruña | 4.089 |
| Tafalla-Zangoza | 7.261 |
| Carmen Aldave | 12.914 |

Irailetik aurrerako fakturazioa aldatutako moduluaren prezioaren arabera eginen da; hurrengo apartatuan islatzen da prezio hori.

b) 2017rako eta hurrengo urteetarako modulu berrien onespena, hurrengo bilakaeraren arabera eta adjudikazio-hartzailearekin, egin duen eskaintzaren arabera, kontratatutako moduluen zenbatekoaren gainean:

| Zentroak | IV. hitzarmeneko modulua | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 |
|---|---|---|---|---|---|
| Oncineda | Eguneko zentroa | 28.645 | 28.747 | 29.276 | 29.435 |
| | Egoitza | 57.382 | 57.586 | 58.645 | 58.964 |
| Infanta Elena | Eguneko zentroa | 25.039* | | | |
| | Egoitza | 58.804* | | | |
| Atalaya | Eguneko zentroa | 19.622 | 19.724 | 20.117 | 20.228 |
| | Egoitza | 58.960 | 59.317 | 60.397 | 60.679 |

* Ez da geroko ekitaldietara proiektatzen, ez baita kontratua luzatu.

| | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 |
|---|---|---|---|---|
| Carmen Aldave | 62.277 | 63.729 | 64.226 | 64.378 |

| Etxebizitza funtzionalak | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 |
|---|---|---|---|---|
| Mendebaldea | 28.786 | 28.787 | 29.387 | 29.457 |
| Las Torchas | 33.865 | 33.871 | 34.388 | 34.478 |
| Vencerol | 24.694 | 24.834 | 25.088 | 25.330 |
| Iruña | 28.931 | 28.985 | 29.340 | 29.657 |
| Tafalla | 32.737 | 32.737 | 32.824 | 32.824 |
| Zangoza | 29.412 | 29.412 | 29.493 | 29.493 |

Modulu berrien kalkuluan aipagarria ez den akats bat aurkitu badugu ere, uste dugu egindako gaurkotzea, oro har, zuzena dela.

Gaixotasun mentalaren arloa

Arlo hauetan, gastuen egitura antzekoa da, baina honako alde hauek badaude:

**Félix Garrido zentroa**

Kontratu hau 2012an adjudikatu zen 2012-2016 aldirako, eta honako zenbatespen ekonomikoan oinarrituta egin zen:

• PAGNAren ebaluazio ekonomikoak kontuan hartzen du Nafarroako Gobernuarekin desgaitasuna dutenentzako kudeaketa pribatuko arreta-zentro itunduen 2009-2011 urteetarako II. hitzarmen kolektiboaren lansari-egitura, nahiz eta hitzarmen hori aplikatzekoa ez izan. Kalkuluaren abiapuntua 2010eko ekitaldiko lansari-taulak dira, urte horretako KPIaren arabera gaurkotuak. Zentro berria denez, ez dago subrogatu beharreko langilerik, ez eta gaikuntza-osagarririk ere.

• Adjudikazio-hartzaile suertatu zen enpresak estatu mailako “Desgaituei arreta emateko zentro eta zerbitzuen XIV. hitzarmen kolektibo orokorra, 2012-2016 aldikoa” izeneko hitzarmena aplikatzen du, zeinak indarra baitu adjudikazioaren unetik; hitzarmen hori hobetu da langile bakoitzarekin adostu diren eta inongo enpresa-itunetan jasota ez dauden osagarri pertsonal berezi batzuekin, PAGNAk berak berretsi duen bezala.

Hala eta guztiz ere, bi alderdi hartu behar dira aintzat:

• Espedientea 6/2006 Foru Legearen 49. artikulua aldatu baino lehen izapidetu zen; horrenbestez, pleguetan ez dago kasuko hitzarmena betetzeko betebeharrari buruzko aipamenik, ez eta lansariak bermatzeko inongo klausularik ere.

• Pleguek prezioen berrikuspena aurreikusten zuten arren, Nafarroako Gobernuak geroago, 2012ko ekainaren 13an hartutako erabakiak eragina du klausula horretan; hori dela eta, modulua izozturik mantendu da kontratuaren indarraldi osoan.

3. eranskinean, honako hauek ageri dira: zentro bakoitzeko ratioen informazioa, hitzarmenaren araberako lansari-egitura eta kalkulu xeherako gainerako osagaien aplikazioa. Informazioa, gastuaren zenbatespena eta moduluaren kalkulua gehituta, honako taula hau ateratzen da:

| | **Guztira** | |
|---|---|---|
| **Félix Garrido** | **Lizitazioa** | **%** |
| **Langile-gastuak** | **958.140** | **72** |
| Bestelako ustiapen-gastuak | 328.676 | 25 |
| **Gastuak, guztira** | **1.286.817** | **97** |
| Etekina: % 3 | 38.604 | 3 |
| **Aurrekontua, BEZik gabe** | **1.325.421** | **100** |
| Aurrekontua (BEZa barne) | 1.389.898 | |

| | Egoitza | Eguneko zentroa | Programak |
|---|---|---|---|
| Tokiaren modulua (BEZa barne) | 1.908 | 811 | 20.629 |

**Padre Menni eta Benito Menni**

Espediente hau, zeina 2013ko urriaren adjudikatu baitzen, 6/2006 Foru Legearen 49. artikulua aldatu aurretik onetsi zen; hori dela eta, ez da aplikatzekoa lansariak nahitaezko estaltzeko klausulak sartzeko beharra. Halaber, Nafarroako Gobernuaren 2012ko ekainaren 13ko Erabakia aplikatuz, klausulek jasotzen duten prezioak ez direla berrikusiko.

Langileen gastua ebaluatzeko, zentroko plantilla hartzen da oinarri gisa -itundu gabeko baliabideak eta tokiak jasoz- eta enpresaren lansari-taulak aplikatzen dira, kasuan kasuko hitzarmenen arabera. Gero, modulua kalkulatzen da kontratatzen diren tokien arabera.

Zenbatespen ekonomikoa eta gastu-egitura ondoren azaltzen ditugunak dira:

| Padre Menni | RAEM | PSG* | PTEM | EPSZ | CD MAY* | Guztira | % |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Langile-gastuak** | **581.421** | **418.328** | **75.963** | **61.523** | **125.961** | **1.263.196** | **55** |
| Bestelako ustiapen-gastuak | 411.050 | 277.847 | 136.602 | 19.815 | 76.602 | 921.916 | 40 |
| **Gastuak, guztira** | **992.471** | **696.175** | **212.565** | **81.338** | **202.564** | **2.185.112** | **95** |
| Etekina: 5,48% | 54.413 | 38.168 | 11.654 | 4.459 | 11.106 | 119.801 | 5 |
| **Aurrekontua, BEZik gabe (salbue-tsia)** | **1.046.884** | **734.343** | **224.219** | **85.797** | **213.669** | **2.304.913** | **100** |

*Gastua “Zaharrentzako zentroen kudeaketa“ fiskalizatu gabeko partidari egoztea.

| Benito Menni | RAEM | PSG* | Guztira | % |
|---|---|---|---|---|
| **Langile-gastuak** | **612.902** | **686.140** | **1.299.042** | **66** |
| Bestelako ustiapen-gastuak | 262.392 | 300.392 | 562.784 | 29 |
| **Gastuak, guztira** | **875.294** | **986.532** | **1.861.826** | **95** |
| Etekina: 5,48% | 47.989 | 54.087 | 102.076 | 5 |
| **Aurrekontua, BEZik gabe (salbuetsia)** | **923.283** | **1.040.619** | **1.963.902** | **100** |

*Gastua “Zaharrentzako zentroen kudeaketa“ fiskalizatu gabeko partidari egoztea

Txosteneko V.2.3 atalean aipatu den bezala, titulartasun pribatuko zentroetan ustiatze-gastuen barruan instalazioak amortizatzeari dagozkionak sartzen dira. Bi zentro horietan, aipagarria da amortizazio horrek duen garrantzia, eta horrek berekin dakar langile-gastuek aurrekontu osoan egiten duten proportzioa txikiagoa izatea eta, bestetik, gastuaren bolumen osoa handitzen du.

Aurrez aipatutako zenbatespen ekonomikoei jarraituz, honako hau da moduluen zenbatekoa:

| Batez besteko tokia | Egoitza-arreta | Psikogeriatria* | Tutoretza-peko etxebi-zitzak | Errehabilitazio psikosoziala | Eguneko zentroa Zaharrak* |
|---|---|---|---|---|---|
| Aita Menni zentroko tokiak | 42 | 30 | 18 | 18 | 30 |
| Benito Menni zentroko tokiak | 40 | 45 | | | |
| **Tokiak, guztira** | **82** | **75** | **18** | **18** | **30** |
| **Aurrekontua, guztira** | **1.970.167** | **1.774.962** | **224.219** | **85.797** | **213.669** |
| **Urteko modulua** | **24.026** | **23.666** | **12.457** | **4.767** | **7.122** |
| **Hileko modulua** | **2.002** | **1.972** | **1.038** | **397** | **594** |

*Gastua “Zaharrentzako zentroen kudeaketa“ fiskalizatu gabeko partidari egoztea

Adingabearentzako arretaren arloa

Zenbatespen ekonomikoa egin da Eskubide Sozialetako Departamentuak kontratatutako zerbitzuak kudeatzen dituzten entitate batzuen lansarien batez bestekoa hartuz.

4. eranskinean, honako xehetasun hauek ematen dira: kontratu bakoitzeko ratioen informazioa, lansari-egitura eta kalkulu xeherako gainerako osagaien aplikazioa. Informazioa, gastuaren zenbatespena eta banakako moduluaren kalkulua gehituta, ondoren azaltzen dira berrikusitako kontratu bakoitzean.

Familia-orientazioko eta -bitartekotzako zerbitzuak

2016an lizitatutako espediente horiei aplikatzekoa zaie 6/2006 Foru Legearen 49. artikulua, 2015ean egindako aldaketaren ondoren; horrenbestez, lansari-bermeen betetzeari dagokion klausula sartzeari buruzko aipamena jaso da. Halaber, Nafarroako Gobernuaren 2012ko ekainaren 13ko Erabakia aplikatuz, prezioak ez berrikusteari buruzko dagokion klausula jaso da; hori dela eta, onetsitako modulua bera da kontratuaren indarraldi osoan zehar.

Honako hau da zerbitzuko gastuen egitura eta zenbatespen ekonomikoa:

| | Orientazioa | % | Bitartekotza | % |
|---|---|---|---|---|
| **Langile-gastuak** | **146.762** | **84** | **58.705** | **70** |
| Gainerako gastuak | 22.152 | 13 | 22.152 | 27 |
| **Gastuak, guztira** | **168.913** | **97** | **80.856** | **97** |
| Etekina: % 3 | 5.067 | 3 | 2.426 | 3 |
| **Aurrekontua, BEZik gabe** | **173.981** | **100** | **83.282** | **100** |
| **Aurrekontua, BEZa barne (% 10)** | **191.379** | | **91.610** | |

Kontratu horietan, ez dago moduluaren kontzepturik, zeren eta kontratuak ez baititu tokiak aipatzen, baizik eta lan-saioak.

Egoitza-harrerako 36 tokiren kudeaketa

2009ko ekainean lizitatutako espediente horretan, honako hauek hartu behar dira kontuan:

• Izapidetzearen data 6/2006 Foru Legearen 49. artikulua aldatu aurrekoa da; hori dela eta, ez dira aplikatzekoak lansariak estaltzeko klausulak.

• 2014an, 2014-2017 aldirako enpresa-hitzarmenak hartu zuen indarra. Klausula bat jasotzen da, zeinak lansarien urteko igoeretarako baldintza gisa ezartzen baitu Nafarroako Gobernuak, KPIaren araberako berrikuspenei jarraituz. Nafarroako Gobernuaren 2012ko ekainaren 13ko Erabakiaren aplikazioak eragina izan zuen luzapenetan, eta haietan, horrenbestez, ez zen prezioen berrikuspena aplikatu; hori dela eta, 2012tik izoztuta zegoen modulua ez da geroztik berrikusi, eta ez du, horrenbestez, aldaketarik izan.

Gastuen egitura eta modulua honako hauek dira:

| Kontzeptua | Lizitazioa | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Egoitza-harrera oinarrizkoa, 16 gazte | % | Egoitza-harrera oinarrizkoa, 13 gazte | % | Premia bereziak dituzten gazteak | % | Gazte finalistak | % | Guztira | % |
| **Langileen gastuak** | **579.450** | **76** | **403.951** | **71** | **365.955** | **86** | **21.506** | **48** | **1.370.862** | **76** |
| Bestelako ustiapen-gastuak | 157.117 | 21 | 146.857 | 26 | 46.743 | 11 | 22.160 | 49 | 372.877 | 21 |
| **Gastuak, guztira** | **736.566** | **97** | **550.808** | **97** | **412.698** | **97** | **43.667** | **97** | **1.743.739** | **97** |
| Etekina: % 3 | 22.097 | 3 | 16.524 | 3 | 12.381 | 3 | 1.310 | 3 | 52.312 | 3 |
| **Aurrekontua, BEZik gabe (salbuetsia)** | **758.663** | **100** | **567.332** | **100** | **425.079** | **100** | **44.977** | **100** | **1.796.051** | **100** |
| 2009ko tokiaren modulua (BEZetik salbuetsia) | 47.416 | | 43.641 | | 85.016 | | 22.488 | | | |
| **2010eko tokiaren modulua* (BEZetik salbuetsia)** | | | | | | | **26.071*** | | | |

* Toki-kopurua 2tik 4ra igo ondoren.

Egoitza-harrerako hiru programaren eta ingurune irekiko programa baten kudeaketa, gatazka sozial handiko egoeraren profila duten adingabeentzat

2017ko maiatzean lizitatutako espediente horri honako hauek aplikatu behar zaizkio:

• 6/2006 Foru Legearen 49. artikulua, 2015ean egindako aldaketaren ondoren; horrenbestez, lansari-bermeen betetzeari dagokion klausula sartzeari buruzko aipamena jaso da.

• Prezioak ez berrikusteari buruzko dagokion klausula jasotzea, 2012ko Erabakiari jarraituz; hori dela eta, onetsitako modulua bera da kontratuaren indarraldi osoan zehar.

Behar diren kredituak baloratzeko, kontuan hartu da Gazteak erreformatzearen eta adingabeen babesaren arlorako II. estatu-hitzarmen kolektiboaren 35. artikulua, zeinaren bidez ezartzen baita langileak nahitaez subrogatu behar direla; hartara, langile horientzat aurreko entitate adjudikazio-hartzaileak aplikatutako lansari-taulak hartzen dira abiapuntu gisa, eta subrogatu gabeko langileentzat, berriz, sektore berean operatzen duten entitateen lansarien batez bestekoa hartzen da.

Gastuen egitura eta moduluaren kalkulua honako hauek dira:

| Kontzeptua | 1. lotearen lizitazioa | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Espazio baten kostua | % | Bi espazioren kostua | % | 3 espazioren kostua | % |
| **Langile-gastuak** | **963.701** | **74** | **1.105.007** | **76** | **1.292.437** | **78** |
| Bestelako ustiapen-gastuak | 312.302 | 23 | 312.302 | 21 | 312.302 | 19 |
| **Gastuak, guztira** | **1.276.003** | **97** | **1.417.309** | **97** | **1.604.740** | **97** |
| Etekina: % 3 | 38.280 | 3 | 42.519 | 3 | 48.142 | 3 |
| **Aurrekontua, BEZik gabe** | **1.314.283** | **100** | **1.459.829** | **100** | **1.652.882** | **100** |
| **Tokiaren modulua (BEZetik salbuetsia)** | **73.016** | | **81.102** | | **91.827** | |

* Hiru aukera daude, erabili beharreko higiezinen arabera.

| Kontzeptua | 2. lotearen lizitazioa | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | OEH | % | EHE | % | Autonomia | % | Guztira | % |
| **Langileen gastuak** | **909.184** | **73** | **573.012** | **76** | **42.384** | **85** | **1.524.580** | **74** |
| Bestelako ustiapen-gastuak | 304.808 | 24 | 158.693 | 21 | 5.827 | 12 | 469.328 | 23 |
| **Gastuak, guztira** | **1.213.992** | **97** | **731.706** | **97** | **48.210** | **97** | **1.993.908** | **97** |
| Etekina: % 3 | 36.420 | 3 | 21.951 | 3 | 1.446 | 3 | 59.817 | 3 |
| **Aurrekontua, BEZik gabe** | **1.250.412** | **100** | **753.657** | **100** | **49.656** | **100** | **2.053.725** | **100** |
| **Tokiaren modulua (BEZetik salbuetsia)** | **69.467** | | **94.207** | | **4.138*** | | | |

* Hileko modulua

**Azken batez**, 2015eko otsailaren 3tik aurrera egindako lizitazioek —data horretan hartu zuen indarra Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legearen 49. artikuluaren aldaketak— pleguetan aipatutako artikuluan aurreikusitako klausulak jaso dituzte, aplikatzekoak diren lan-hitzarmenen betekizunei dagokienez. Kontratu hauetan eta izapidetzearen data dela-eta aipatutako lege-aurreikuspena aplikatzekoa ez zitzaien gainerakoetan, egiaztatu dugu lizitazio-aurrekontuak handiagoak direla langile-gastuen aurreikuspenak baino, hurrenez hurren aplikatzekoak diren hitzarmen kolektiboen arabera.

Halaber, Desgaitasunaren arlorako 2017-2019 urtetarako IV. Hitzarmena aplikatuta, eta Nafarroako Gobernuaren konpromiso formalaren arabera, zeina hitzarmen horren dokumentuan jasotzen baita, egiaztatu dugu desgaitasunaren arloko era guztietako kontratuen moduluaren igoera bat geratu dela, hartan aurreikusitako lansari-hobekuntzak bermatzeko; halako berrikuspenik, ordea, ez da egin gaixotasun mentalaren eta adingabeen arretaren arloetako aztertu ditugun gainerako kontratuetan.

## V.3. ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEEN BALORAZIOA ETA BEHERANZKO ESKAINTZEK APLIKATZEKOA DEN HITZARMEN SEKTORIALA BETETZEKO BERMEAN DUTEN ERAGINA.

Desgaitasunaren arloa

Adjudikazio-irizpideen balorazioa bat da zentroetarako eta etxebizitza funtzionaletarako, eta eskaintzarik onenean oinarritzen da, honako banaketa honen arabera:

| Adjudikazio-irizpideak* | Oncineda | Infanta Elena | La Atalaya | Carmen Aldave | Etxebizitza funtzionalak |
|---|---|---|---|---|---|
| Proposamen teknikoa** | 50 | 50 | 50 | Ez da aplikatzekoa | 50 |
| Formula objektiboen bidez baloratutako beste irizpide batzuk** | 30 | 30 | 30 | Ez da aplikatzekoa | 30 |
| Proposamen ekonomikoa | 20 | 20 | 20 | Ez da aplikatzekoa | 20 |
| Eskaintza baxuegitzat jotzea | % 5 | % 5 | % 5 | Ez da aplikatzekoa | % 5 |

* 6/2006 Foru Legearen 51. artikuluaren testu indardunaren arabera egokitutako irizpideak

** Gero, azpi-irizpideen bidez garatuak

Lizitazio berrietan , planteatu da ehuneko bosta izatea eskaintzak baxuegiak izateko muga. PAGNAren arabera, honako hau da justifikazioa:

• Langileen kudeaketa on batek berekin ekar dezake absentismoaren kostua ehuneko bi jaistea (hasiera batean, ehuneko bosta ezarri zen); beraz, ehuneko hiru geratzen da.

• Kontratazio efiziente batek berekin ekar dezake gainerako gastuen kontzeptuan ehuneko bat jaistea.

• Azkenik, suposatzen da kalkulatu den etekina —ehuneko hirukoa— ehuneko bira jaitsi ahal dela; beraz, ehuneko bat geratzen da.

Carmen Aldave zentroarekiko kontratuan, publizitaterik gabeko prozedura negoziatuarekin adjudikatu zenez, ez ziren aplikatu prozedura irekiaren adjudikazio-irizpideak, eta kontratuaren funtsezko baldintzak negoziatu eta ezarri ziren; baldintza horietan jasota dago III. hitzarmen kolektiboa bete beharra, eta aipatutako moduan eta baldintzetan ezartzen da kontratuko prezioaren aurrekontua.

Egin den berrikuspenaren ondorioak ondoko alderdi hauek dira:

• “Formula objektiboen bidez baloratutako beste irizpide batzuk” atalaren balorazioa, gehienez ere 30 puntukoa izan behar zuena, ez da erabakigarria izan, zeren eta lizitatzaile guztiei puntuaziorik handiena eman baitzaie.

• Adjudikazio-irizpideen balorazioan, erabakigarria izan da “proposamen teknikoa” atala, nahiz eta amaierako adjudikazio-hartzailea ez izan eskaintza ekonomikorik onena aurkeztu zuena.

• Oncineda eta La Atalaya zentroen eta Tafalla, Vencerol, Mendebaldea eta Iturrama etxebizitza funtzionalen adjudikazioa enpresa beraren alde egin dira, eta egindako eskaintzetan batez besteko beherapena ehuneko 1,39koa izan da. Zentroen eta etxebizitzen adjudikazioaren zenbatekoa, kontratuaren lehenengo urtean, 8.134.913 eurokoa izan da berrikusitako kontratuetan[24].

[24] Adjudikazioaren zenbatekoak, horren barne direla laginean aztertu gabeko zentroak, eta 2017ko lizitazio berriaren bidez Infanta Elena eta Valle del Roncal zentroetan atera direnek 20.586.527 euro egiten dute.

Langile-gastuek kontraturen prezioan egiten duten ehunekoak, bai lizitazioaren hasierako unean, bai geroko adjudikazioan, honako datu hauek ematen ditu:

| | Zentroak | | | | Etxebizitza funtzionalak | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Oncineda | Infanta | Atalaya | C. Aldave | Iturrama | Mendebaldea |
| Lizitazioaren zenbatekoa* | 3.542.578 | 4.328.626 | 3.171.760 | 2.437.504 | 1.113.509 | 1.200.460 |
| Adjudikazioaren zenbatekoa* | 3.450.444 | 4.112.194 | 3.084.653 | 2.437.504 | 1.113.509 | 1.188.455 |
| Beherapena | 92.134 | 216.431 | 87.107 | 0,00 | 0,00 | 12.004 |
| Beherapenaren ehunekoa | % 2,60 | % 5 | 2,75% | % 0 | % 0,00 | % 1,00 |
| | | | | | | |
| Langileen gastuak | 3.099.988 | 3.773.110 | 2.592.593 | 1.798.853 | 857.666 | 951.386 |
| | | | | | | |
| Langile-gastuak/lizitazioa (%) | % 88 | % 87 | % 82 | % 74 | % 77 | % 79 |
| Langile-gastuak/adjudikazioa (%) | % 90 | % 92 | % 84 | % 74 | % 77 | % 80 |

* Zenbatekoak BEZik gabe:

Gaixotasun mentalaren arloa

Arlo honetan, honako adjudikazio-irizpide hauek ezarri ziren:

| Adjudikazio-irizpideak | Félix Garrido* | Padre Menni** | Benito Menni** |
|---|---|---|---|
| Proposamen teknikoa*** | 70 | Ez da aplikatzekoa | Ez da aplikatzekoa |
| Proposamen ekonomikoa | 30 | Ez da aplikatzekoa | Ez da aplikatzekoa |
| Eskaintza baxuegia | % 18 | Ez da aplikatzekoa | Ez da aplikatzekoa |

* Ez da aplikatzekoa 6/2006 Foru Legeko 51 artikuluaren egungo testua

** Ez da aplikatzekoa, zeren eta publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez adjudikatu baita, 6/2006 Foru Legearen 73.1.b) artikuluaren arabera

*** Gero, azpi-irizpideen bidez garatuak

Padre Menni eta Benito Menni zentroen kasuan, publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez adjudikatu direnez, zuzenean negoziatu dira baldintza ekonomikoak, beren enpresa-hitzarmenaren lansari-egituratik abiatuta, eta kontratuaren funtsezko baldintzen zati bat bilakatu dira.

Lizitazioetan izandako beherapenen eragina eta langile gastuen estalduraren bermea honako taula honetan islatu dira:

| | Félix Garrido | Padre Menni | Benito Menni |
|---|---|---|---|
| Lizitazioaren zenbatekoa* | 1.325.421 | 2.304.913 | 1.963.902 |
| Adjudikazioaren zenbatekoa* | 1.325.421 | 2.304.913 | 1.963.902 |
| Beherapena | 0 | 0 | 0 |
| Beherapenaren ehunekoa | % 0 | % 0,00 | % 0,00 |
| | | | |
| Langileen gastuak | 958.140 | 1.263.196 | 1.299.042 |
| | | | |
| Langile-gastuak/lizitazioa (%) | % 72 | % 55 | % 66 |
| Langile-gastuak/adjudikazioa (%) | % 72 | % 55 | % 66 |

* Zenbatekoak BEZik gabe:

Adingabearentzako arretaren arloa

Honako hauek dira espedienteetan erabili diren adjudikazio-irizpideak:

| Adjudikazio-irizpideak | Familia-orientazioa* | Familia-bitartekotza* | Egoitza-harrerako 36 tokiren kudeaketa** | Hiru egoitza-programaren eta ingurune irekiko programa baten kudeaketa* |
|---|---|---|---|---|
| Proposamen teknikoa*** | 65 | 70 | 70 | 50 |
| Formula objektiboen bidez balo-ratutako beste irizpide batzuk*** | | | | 30 |
| Proposamen ekonomikoa | 30 | 30 | 30 | 20 |
| Eskaintza baxuegia | % 10 | % 10 | Ez da zehazten | 1. lotean % 8 eta 2. lotean % 9 |

* 6/2006 Foru Legearen 51. artikuluaren testu indardunaren arabera egokitutako irizpideak
** Ez da aplikatzekoa 6/2006 Foru Legeko 51 artikuluaren egungo testua
*** Gero, azpi-irizpideen bidez garatuak.

Egin den berrikuspenaren ondorioz, honako alderdi hauek aipatu behar ditugu:

- Proposamen teknikoaren balorazioa faktore erabakigarria izan da adjudikazioan.

Lizitazioetan izandako beherapenen eragina eta langile gastuen estalduraren maila honako taula honetan islatu dira:

| | Familia-orientazioa | Familia-bitartekotza | Egoitza-harrerako 36 tokiren kudeaketa | Hiru egoitza-programaren eta ingurune irekiko programa baten kudeaketa |
|---|---|---|---|---|
| Lizitazioaren zenbatekoa* | 173.981 | 83.281 | 1.796.051 | 2.053.725 |
| Adjudikazioaren zenbatekoa* | 173.881 | 74.954 | 1.685.922 | 2.028.054 |
| Beherapena | 100 | 8.327 | 110.129 | 25.672 |
| Beherapenaren ehunekoa | -% 0,06 | -% 10,00 | -% 6,13 | -% 1,25 |
| | | | | |
| Langileen gastuak | 146.762 | 58.705 | 1.370.862 | 1.524.580 |
| | | | | |
| Langile-gastuak/lizitazioa (%) | % 84 | % 70 | % 76 | % 74 |
| Langile-gastuak/adjudikazioa (%) | % 84 | % 78 | % 81 | 75% |

* Zenbatekoak BEZik gabe:

**Azken batean**, pleguetan aurreikusitako adjudikazio-irizpideak Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legean exigitutakoaren araberakoak dira. Oro har, adjudikazioetan irizpide erabakigarria proposamen teknikoa izan da, gainerako irizpide objektiboen gainetik.

Lizitazio-prezioan eta gero adjudikazio-prezioan langile-gastuen estaldura-maila nahikoa ikusten den arren, lizitazio-aurrekontuak oso doiak dira. Horren eraginez, behin aplikatzekoak diren hitzarmen kolektiboetan aurreikusitako lansari-maila aurrekontuen bidez bermatuta, kontratuaren amaierako prezioko gainerako atalen geroko doikuntzan adjudikazio-hartzaileentzako kudeaketan gertatzen diren ondorioek eragina izan dezakete zerbitzuaren kalitatean, edo nabarmen jaitsi dezakete enpresen etekina eta zerbitzuaren prestazioan jarraitutasuna nahastu; egoera hori agerian jarri da Infanta Elena eta Valle del Roncal zentroetan, enpresak pleguetan aurreikusitako beherapenik handienarekin egin baitzuen eskaintza, ehuneko bostarekin, eta gero kontratua ez luzatzeko eskatu baitzuen, bideragarria ez izateagatik.

Gure ustez, egoera horrek eragina izan dezake maniobra-tartean eta, horrenbestez, enpresa txiki eta ertainek gisa honetako zerbitzuak kontratatzerako daukaten interesean, lehiakortasunaren ikuspuntutik.

## V.4. KONTRATUEN BETETZEA, ETA APLIKATUTAKO JARRAIPENA ETA KONTROLA

Kontratuen betetzeari buruzko honako alderdi hauek aztertu dira:

Zerbitzu-ematea eta kontratuaren prezioa ordaintzea

• Oro har, aztertutako fakturak kontratatutako modulu eta baldintzen arabera ordaindu dira.

• Betebeharrak kontabilizatzeko 2017ko ekitaldiaren itxierako arauetan aurreikusitako epeak —arau horiek Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilariaren 84/2017 Foru Legean deskribatuta daude—, 2017ko azaroko eta abenduko fakturazioa 2018ko aurrekontuari egotzi zaio, eta horrek berekin ekarri du aurrekontu-betetzea txikiagoa izatea 2017ko aurrekontuan.

Honako hauek dira zenbatekoa, aurrekontu-partiden arabera:

| Aurrekontuko partidak | Zenbatekoa* |
|---|---|
| Desgaitasuna duten pertsonentzako zentroen kudeaketa | 4.767.419 |
| Gaixotasun mentaleko zentroen kudeaketa | 742.618 |
| Familiari laguntzeko zerbitzuak: familia-orientazioa eta -bitartekotza | 15.315 |
| Adingabeentzako laguntzak | 1.037.662 |
| Guztira | 6.563.014 |

* 2018ko aurrekontuari egotzitako 2017ko fakturen zenbatekoa

Hurrengo ekitaldirako aurrekontu-egozpenak suposatzen du ezen, 2017an egotzi ez den gastua urte horretan jaso izan balitz, egiazki 2016arekin alderatuta 2.925.473 euroko igoera bat egonen zela.

• Pleguek ezartzen dute aukera dagoela agentziak enpresei dokumentazio osagarria eskatzeko; besteak beste, nominak. PAGNAk aplikatzekoak diren hitzarmenetan lansari-egitura bete dadila kontrolatzen du, ukitutakoak direla-eta erreklamazioak dauden neurrian; agentziak erreklamazio horiek enpresekin izapidetu ditu, aztertutako dokumentazioan ageri den bezala. Nominen lagin bat aztertu eta egiaztatu ahal izan dugu ordainsariak eta osagarriak aplikatzekoak diren kasuko hitzarmen kolektiboetan aurreikusitako lansari-mailaren eta -egituraren araberakoak direla.

Zerbitzuaren ebaluazio teknikoa

Pleguek ezartzen dute PAGNAk emandako zerbitzuak ebaluatuko dituela, kalitate materialaren eta funtzionamenduaren maila egiaztatzeko. Horretarako, urtero enpresa-adjudikaziohartzaileak txosten tekniko bat bidaliko du.

Oro har, desgaitasunaren eta gaixotasun mentalaren arloetarako, honako hauek ikusi ditugu:

• Mendebaldea, Las Torchas, Vencerol eta Iturrama etxebizitzetako eta Oncineda zentroko 2017ko ekitaldiko oroitidazkiak falta dira. Alegazioen fasean, ez dizkigute aipatutako oroitidazkiak eman.[25]

• Gaixotasun mentalaren arloan, enpresei ez zaizkie exigitzen “aberaste bidegabearen” teoriaren arabera ordaintzen diren zerbitzuen oroitidazkiak.

• Oroitidazkiak aurkeztu diren gainerako zentroetan, dokumentazioa enpresaren beraren txosten eta ziurtagirietan datza, baina batzuetan informazio hori egiaztatzea bideratzen duten egiaztagiri edo ziurtagiririk gabe; horixe da prestakuntza-ikastaroen kasua.

[25] Bosgarren alegazioaren arabera aldatutako paragrafoa.

• Ez dago dokumentaziorik ziurtatzen duenik PAGNAk haiek berrikusi izana eta, kasua bada neurriak hartu izana; agentziak berak berretsi du hala dela horretarako denborarik eta baliabiderik ez dutelako.

Adingabearen arretaren arloan, jasota dago oroitidazkiak aurkeztu egiten direla, baina aurreko arloen aldean dagoen desberdintasuna da adingabearentzako eta familiarentzako zerbitzu-ematearen jarraipen tekniko bat egiten dela, Familia Zuzendariordetzak aldiro-aldiro bilerak egien baititu adingabeen ardura duten lantalde teknikoekin, eta haietan espediente bakoitza banaka aztertzen baita.

Desgaitasunaren arloan, gainera, "Formula objektiboen bidez baloratutako beste irizpide batzuk" delako baloraziorako baliatu ziren sei atalen gauzatzeari edo antolatzeari buruzko egiaztagirien ebaluazio teknikoa aurkeztu beharra dago, kontratua gauzatzerakoan haiek bete diren baloratu ahal izateko, eta ez-betetze kasuan pleguetan zehapenen kasuko araubidea ezartzen da. Dokumentazio hori eskatu dugu, eta honako alderdi hauek nabarmendu behar ditugu:

• PAGNAren balorazioa "Jokabide egokien akta" izeneko dokumentuan ageri da. Dokumentu hori 2018ko apirilean egin zen, kontratuaren lehenengo urtearen amaiera 2017-08-01 zenean etxebizitzetarako, eta 2017-11-18, berriz, zentroetarako. Txosten hau emateko datan, jasota dago aipatutako aktan kuantifikatutako zehapenak aplikatu eta ezartzeko kasuko espedientea hasita dagoela.

• Agentziak interpretatu du, pleguen idazkerari jarraituz, kontratuaren lehenengo urtean baloratzekoak zirela soilik sei irizpideetatik hiru; guztiak kontratu-betetzearen bigarren urtetik aurrera dira baloratzekoak. Gure iritziz eta klausulen hitzez hitzeko testuaren arabera, sei irizpideak kontratuaren lehenengo urtetik baloratu behar dira. Horrek eragotziko luke Infanta Elena zentroko enpresa adjudikazio-hartzailearen kasua; izan ere, kontratua luzatu ez denez, ez dira atal guztiak baloratuko.

• Agentziak ebaluaziorako adierazleen eta asebetetze-maila neurtzeko inkestak pleguetan jaso baditu ere adjudikazio-hartzaileen betebehar gisa, horretan 2013ko maiatzeko txostenean egin genituen gomendioei erantzunez, uste dugu ebaluazio-adierazleei dagokienez, gehienak jarduera-adierazleei dagozkiela, eta deskriptibo hutsak direla. Asebetetze-maila neurtzeko inkestei dagokienez, uste dugu txostena mugatzen dela haiek egin diren egiaztatzera, baina ez dago jasota emaitzen analisia egiten denik, horren bidez ondorio baliagarriak ateratzeko, zerbitzuaren kalitatea ebaluatu eta behar diren hobekuntzak hartzeari begira.

Zerbitzuaren ebaluazio ekonomikoa

Pleguetan ezartzen den bezala, urtero, txosten teknikoarekin batera, oroitidazki ekonomiko bat aurkeztu beharra dago. Horiek aztertuta, honako hau ikusten da:

• Mendebaldea, Las Torchas, Vencerol eta Iturrama etxebizitzetako eta Oncineda zentroko 2017ko ekitaldiko oroitidazki ekonomikoak falta dira. Alegazioen fasean, ez dizkigute aipatutako oroitidazkiak eman.[26]

• Oroitidazkiak aurkeztu diren gainerako zentroetan, detektatu da inkoherentzia batzuk badaudela edukietan, agentziak ikusi gabekoak, zeren eta txosten teknikoekin agerian jarri den bezala, ez baitira dokumentazio hori berrikusten, denbora eta baliabideak falta direlako. Horien artean, honako hauek nabarmendu behar dira:

a) Mendebaldea, Las Torchas eta Vencerol etxebizitza funtzionaletarako psikologo bat kontratatu dela jasota ageri den arren, pleguetan eskatutakoaz gorako arduraldiarekin, 2016ko oroitidazkietan ez dago jasota etxebizitza horietako bakoitzari zenbat psikologo-ordu esleitu zaion, pleguetan etxebizitza horietarako ezarritako ordu-esleipena egiaztatu ahal izateko.

b) Oncineda zentroaren 2016ko oroitidazkian, nabarmentzen dugu bi ziurtagiri jaso direla, lanpostu bakoitzaren txanda eta lanorduei buruzkoa bata eta opor edo beherapengatiko ordezka-

[26] Paragrafo hau aldatuta dago, zazpigarren alegazioaren lehen apartatuari jarraituz.

penei buruzkoa bestea. Bi ziurtagiri horiek direla-eta Enpresa Batzordeak berariaz adierazi du bere desadostasuna, baina ez dago jasota PAGNAk horri buruzko erabakirik hartu duenik.

c) Lansarien kontabilitate-datuak eta langileen kostuaren xehetasunak, ordezkapenei eta absentismoari buruzko informazioa barne, ez datoz bat kasu guztietan.

Kudeatzaileak une oro haiei buruzko zalantzak argitzen saiatu badira ere, ezin dugu berretsi oroitidazki teknikoan eta ekonomikoan eskatutako betekizun guztiak bete direnik.

• Oro har, oroitidazkiak erabiltzen dira etorkizuneko kontratazio-espedienteetan erabiltzekoak diren datu ekonomikoei eusteko, eta ez da bestelako berrikuspen edo gainbegiratzerik egiten; agentziak berretsi digu hori denbora- eta baliabide-faltarengatik izan dela.

Jarraipen Batzordea

Pleguetako batean, partaidetza-organoak zehazten dira. Desgaitasunaren arloan, Jarraipen Batzordea egituratzen da: Administrazioak, enpresa batzordeak, enpresa adjudikazio-hartzaileak eta familiek osatzen dute. Pleguetan honako eginkizun hauek aurreikusten dira:

• Kontratuaren betetzeari buruzko informazioa jasotzea.

• Kontratazio-organoari antzemandako gabeziei buruz informatzea.

• Zerbitzua kontratuan exigitutako kalitatearekin ematen dela segurtatzeko komenigarri irizten diren proposamenak egitea.

Batzorde desberdinen aktak eskuratu ditugu, eta honako hauek dira ondorioak:

• Zangozako eta Tafallako etxebizitza funtzionalen kasuan, 2016. eta 2017. urteetan ez da urteko bilerarik egin. Oncineda zentroan eta Las Torchas, Vencerol, Mendebaldea eta Iturrama etxebizitzetan 2016an ez da urteko bilerarik egin, ezta Carmen Aldave zentroan ere 2017an. Pleguek urtean gutxienez ere deialdi bat egiteko betebeharra ezartzen dute.

• Batzordeak aldeei eskatzen die idatziz aurkez ditzaten langileen eta enpresen artean sortutako desadostasunak, bai eta senideek planteatzen dituzten gaiak ere. Oro har, gai batzuk badaude agentziak zerbitzuko irregulartasuntzat hartzen ez dituena, zeren eta ez baitira pleguen berariazko ez-betetzetzat hartzen. Hala eta guztiz ere, ondorengo bileren aktetan haien egoera eta tratamendua jasotzen dira. Halaber, ez dugu jasota agentzian informaziorik dagoenik egindako berrikuspenen egoera egiaztatzen duenik.

Zerbitzuen ikuskatzea

Errealitate Sozialaren eta Politika Sozialen Plangintzarako eta Ebaluaziorako Behatokiaren Zuzendaritza Nagusiari atxikita dago Kalitate eta Ikuskapen Zerbitzua. 2017ko urtarrilaren 11ko 2/2017 Foru Dekretuak zerbitzuaren egitura aldatu zuen: Kalitate Atala kendu eta Ikuskapen Zerbitzua baizik ez zuen utzi.

Zerbitzuko gaur egungo langileak zerbitzuburu bat, atalburu bat, administrari bat eta hiru ikuskatzaile dira. 2013ko maiatzeko gure txostenean, eta ikuskatze-lanetarako plantilla bera zegoela, agerian jarri zen zerbitzua indartu beharra zegoela, bere eginkizunak hobeki betetze aldera.

Jarduketaren esparru materialari dagokionez, ikuska daitezkeen 596 zentro dauzka; halakotzat hartzen dira baimen administratiboa behar duten zentro guztiak, edozein finantzaketa-araubide dutela ere. Ikuskatze-lana zentroen arabera beharrean zerbitzuen arabera zenbatzen da, zeren eta litekeena baia zentro bat hiru zerbitzu desberdin ematen aritzea (egoitza-arreta, eguneko egonaldia eta eguneko zentroa). Irizpide horrekin, 672 dira ikuska daitezkeen zerbitzuak.

Ekitaldi bakoitzean foru agindu bidez onesten den Ikuskapen Plana[27]. Aipatutako planetan, ikuskatze-loteak zehazten dira, Kalitate eta Ikuskapen Zerbitzuak egiten duen programazioaren eta prestaketaren emaitza gisa.

Bisita arrunten bidez ikuskatutako zerbitzuez gainera, honako lan hauek egiten dira:

• Zentroak baimentzea.

• Erreklamazioak eta salaketak.

• Gizarteratze-errentaren eta Errenta Bermatu berriaren onuradun izateko baldintzak ikuskatzea.

Honako hauek dira 2016an eta 2017an txostenaren xede diren eremuetan egindako ikuskapenak:

• 2016an, desgaitasunaren arloko bi zerbitzuren plangintza eta ikuskatzea egin zen, eta gaixotasun mentalaren arloan, berriz, lau zerbitzuren plangintza eta ikuskatzea.

• 2017an, desgaitasunaren arloko 25 zerbitzuren plangintza eta ikuskatzea egin zen, eta gaixotasun mentalaren arloan, berriz, hiru zerbitzuren plangintza eta ikuskatzea.

Ikuskatze plan bakoitzean urtero jasotzen diren zerbitzuek ez dituzte jasotzen baliabide faltarengatik formalizatutako kontratu guztiak, ataletik argudiatu dutenez; baliabide falta horrek eragotzi du, halaber, adingabearen arretaren arloko ikuskapenak egitea.

Bisita aurrez abisua eman gabe egiten da, asteko edozein egunetan eta edozein ordutan. Ikuskatzaileak aplikatzekoak diren irizpide homogeneo batzuk eta adierazle batzuk badauzka, zeinek determinatzen baitute Gizarte zerbitzuen arloko baimenen, arau-hausteen eta zehapenen araubideari buruzko maiatzaren 23ko 209/1991 Foru Dekretuan ezarritako araudi indarduna betetzen den; ikuskatze horrek erreferentzia egiten die zentroek aipatutako foru dekretuaren terminoetan dauzkaten baldintza funtzional eta materialei ez ezik, kontratazio-pleguetan ezarritako zerbitzu-ratioen eta -mailen egiaztatzeari ere. Bisita bakoitzean betetzen den barne-txosten batean islatzen da emaitza, eta gero kasuko ikuskatze-akta egiten da. Oinarrizko araudia ez betetzeagatiko irregulartasunen bat aurkitzen denean, zerbitzuak berak proposatzen du espedientea ireki dadila, eta Departamentuko idazkaritza nagusia da zehapen-prozeduraren instrukzioaz arduratzen dena.

Pleguak ez betetzeari buruzko irregulartasunak detektatzekotan, agerian jartzen dira txostenean, eta enpresak 15 eguneko epea dauka alegazioak aurkezteko. Behin haiek aurkeztuta, agentziara igortzen dira, haiek balora ditzan eta balizko ondorioak sor ditzaten. Agentziara igortzen direnetik, Kalitate eta Ikuskapen Zerbitzuak ez du prozesuan esku hartzen; amaierako emaitzaz informatzen zaio soil-soilik.

Ezarritako langile-baldintzak betetzen diren ala ez zehazteko prozedura enpresak ausaz aukeratutako zortzi asteren aldi batean emandako datuen urteko estrapolazio-sistema batean oinarritzen da. Betekizunak pleguetan exigitutako ratioen eta zentroak okupazioari eta erabiltzaileen mendekotasun mailari buruz emandako informazioaren arabera kalkulatzen dira, eta kontratua betetzeari ala ez betetzeari buruzko ondorioak ateratzen dira.

Egindako ikuskatzeen aktak, txostenak eta dokumentazioa aztertu ondoren —laginaren xede diren kontratuei buruzkoak dira—, honako alderdi hauek azpimarratu behar ditugu:

• Aztertutako txostenetan inongo aipamenik ez dago aurreko ikuskatzeetan egindako errekerimendu edo gomendioei buruz. Hala eta guztiz ere, berretsi egin digute hemendik aurrera aurreko ikuskatzeetan egindako errekerimenduei buruzko berariazko balorazio bat jasoko dela.

• Aztertutako txostenetan, PAGNAren txosten bat ageri da, zeinaren bidez Ikuskapen Atalari adierazten baitio zein izan den detektatutako irregulartasunaren emaitza[28].

[27] 2016ko otsailaren 10eko 27 NAOn, abenduaren 21eko 316/2015 Foru Agindua Argitaratu zen, zeinaren bidez Nafarroako gizarte zerbitzuen arloko plana onetsi baitzen, 2016. urterako.
2017ko otsailaren 21eko 36 NAOn, 40/2017 Foru Agindua argitaratu zen, zeinaren bidez 2017. urterako Nafarroako gizarte zerbitzuen arloko plana onetsi baitzen.

• Langileen orduei eta ordezkapenen arloko zenbait ez-betetzeri buruzko gabezia batzuk ondorioztatzen dira. PAGNAri langile-ratioen ez-betetzeengatiko eta zehapenak ezartzeari buruzko itzulketa-espedienteak eskatuta, egiaztatu dugu halakoak exigitzen ari direla eta horretarako kasuko espedientea izapidetzen ari dela. Horrek kudeaketaren arloko hobekuntza bat adierazten du, Ganberaren aurreko txostenarekin alderatuta; izan ere, txosten horretan ondorioztatzen zen langileen arloko gabezia batzuk detektatuak zirela, zehapenik ezartzen ez zelako eta ez zelako itzulketarik exigitzen, zeren eta pleguek ez baitzuten argiro ezartzen kontratuaren ez-betetzea zer zen, ez eta ez-betetzeen larritasuna eta zehapenak ere. Egungo pleguetan, berriz, xehetasun guztiekin ezartzen da zein diren ez-betetze arinak, astunak eta oso astunak, bai eta haiei dagokien zehapena ere.

• Lagineko etxebizitza funtzional guztietan, ez dago bertaratzearen bidezko kontrolerako prozedura egokirik; hori dela eta, ezinezko gertatzen da Kalitate eta Ikuskapen Zerbitzuak egiaztatzea pleguetan zehaztutako langile-betekizunak betetzen diren ala ez. Gabezia horren aurrean, ikuskapean egiaztatu da txanden urteko plangintza teorikoak pleguetan ezarritako betekizuna betetzen duela, eta betetzen ez bada agerian jartzen du hori.

• Etxebizitza ia guztietan, lantalde teknikoaren bileren aktak dauden arren, erabiltzaileen banakako jarraipena agerian jartzen dutenak, Partaidetza Kontseilurik ez dago, exigitzen den osaerarekin, eta hori pleguen ez-betetze bat da.

**Azken batean**, kontratuen fakturazioa termino orokorretan hartzen da aintzat, kontratatutako baldintzekin bat. Hala eta guztiz ere, ikuskatzearen eta kontrolaren arloko defizit batzuk badaude, bai PAGNAn, bai Kalitate eta Ikuskapen Zerbitzuan baliabideak falta direlako. Baliabide falta hori aintzat hartu beharko litzateke kontrol egokiagoa segurtatze aldera, pleguetan ezarritako betekizunen betetzea egiaztatzeari begira.

## V.5. ZERBITZUEN KALITATEA

“Fiskalizazioaren helburua eta norainokoa” atalean adierazitakoari jarraituz, eta horri buruz iritzia emateko aukera emanen digun informaziorik izan ez badugu ere, zerbitzuaren kalitateari buruzko hurbilketa batzuk egin ditugu, soil-soilik desgaitasunaren arloari dagokionez eta Foru Komunitateko arau-esparruari eta ondoren deskribatzen dugun gastuaren bilakaerari erreferentzia eginez.

### Arau-esparrua

Gizarte Zerbitzuei buruzko 15/2006 Foru Legeak ezartzen du kalitate planak onetsi behar direla gizarte zerbitzuetarako, lau urteko indarraldiarekin. Onetsitako plan bakarra 2010-2013 aldiari dagokiona da. Plan hau Kalitate eta Ikuskapen Zerbitzuak ebaluatu du kanpoko enpresa baten laguntzarekin 2016. urtearen amaieran, eta emaitzak 2017ko martxoan argitaratu ditu Errealitate Sozialaren Behatokiaren eta Gizarte Politiken Plangintzaren eta Ebaluazioaren Zuzendaritza Nagusiak.

Bestalde, Nafarroako Foru Komunitatean, indarrean jarraitzen du maiatzaren 23ko 209/1991 Foru Dekretuak, Gizarte zerbitzuen arloko baimen, arau-hauste eta zehapenen araubideari buruzko azaroaren 13ko 9/1990 Foru Legea garatzen duenak; izan ere, foru dekretuan ezartzen dira zentroen baimen administratiboa emateko —bai jardueraren hasierarako, bai geroko funtzionamendurako— gutxienez ere nahitaez bete beharrekoak diren baldintzak eta betekizunak.

Langileen arloko betekizunak direla-eta zenbait irizpide ezartzen dira, tipologiari dagokionez:

• Erantzuleak.

Erdi mailako unibertsitate-tituluduna edo hiru urteko esperientzia duena antzeko kategoriako lanpostuan, 50 toki arteko egoitzetarako. 50 toki baino gehiagoko zentroetan, arduradunak izan beharko du goi mailako unibertsitate-titulua, edo bost urteko esperientzia antzeko kategoriako lanpostuan, edo erdi mailako unibertsitate-titulua gehi bi urteko esperientzia.

[28] Bederatzigarren alegazioaren arabera aldatutako paragrafoa.

Alderdi horiek egiaztatuta, ikusi da aztertu diren zentro eta etxebizitza funtzionalek haiek bete egiten dituztela

• Zuzeneko arretako langileak.

Zaintzaileek eta zerbitzu orokorretako langileek osatzen dute talde hori. Erabiltzaile bakoitzeko zuzeneko arretarako langileen proportzioa honela ezartzen da:

a) Zentroetan 0,30 eta 0,65 bitarte, minusbaliotasun graduaren arabera.

b) Etxebizitza funtzionaletan, egoiliar bakoitzeko 0,15.

Ratio horiek langilea/erabiltzailea erlazio baten gisara ezartzen dira. Pleguek zuzeneko arretarako lanpostuak urteko orduen arabera zehazten dituzten neurrian, langilea/erabiltzailea ratioa orduak/erabiltzailea ratio bihurtu beharra dago, hitzarmenean lanpostu bakoitzerako deskribatutako urteko lanaldiaz baliatuta.

Honako hauek dira datuak:

| Ratioen betekizuna zentroetan, 209/1991 Foru Dekretua | Zentroetako batez besteko ratioa |
|---|---|
| 1.028,3 ordu/erabiltzaile | 1.843,93 ordu/erabiltzaile |
| Ratioen betekizuna etxebizitzetan, 209/1991 Foru Dekretua | Etxebizitza funtzionaletako batez besteko ratioa |
| 237,3 ordu/erabiltzaile | 785,65 ordu/erabiltzaile |

Taulako datuen arabera, ikusten da pleguetan exigitutako ratioek zabal gainditzen dituztela foru dekretuan eskatutakoak; hau da, agentziak egiten duen kontratazioko baliabideen maila zentro batek baimen administratiboa lortzeko ezarritako gutxieneko mailatik askoz gorago dago.

• Zerbitzu profesionalak, propioak, itunduak edo publikoak, hurrengo espezialitate hauetakoak: Medikuntza, Erizaintza, Fisioterapia, Psikopedagogia, Gizarte Lana eta Terapia Okupazionala.

Foru dekretuan ez dira errekerimenduak ezartzen. Hala eta guztiz ere, pleguek zerbitzu horiek jaso egiten dituzte.

Lizitazioen arloko gastuaren bilakaera

Hiru zentrotan —bi publikoak dira eta bat pribatua— eta etxebizitza funtzionaletan aztertu da nolakoa izan den pleguen betekizunen bilakaera azken bi lizitazioetan, kontuan hartuz kontratatutako tokien kopuruan ez dela aldaketarik izan. Zehazki, langile-beharrak (ordutan edo langiletan) eta gastu-aurrekontua alderatu dira.

2016ko pleguetan eta 2013ko, 2014ko eta 2015eko ekitaldietako pleguetan exigitzekoa dena alderatu da, Oncineda, Infanta Elena eta Carmen Aldave zentroetan. Hona hemen emaitzak:

| | Oncineda 2013-2016 | | Infanta Elena 2014-2016 | | Carmen Aldave 2015-2016 | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Δ Orduak | Δ Pertsonak | Δ Orduak | Δ Pertsonak | Δ Orduak | Δ Pertsonak |
| | 3.480,75 | 1,25 | 6.249,50 | -1,45 | 751 | 0,75 |
| Δ Langileak | 382.188 | | 372.771 | | 119.443 | |
| Δ Beste gastu batzuk | -126.964 | | -149.760 | | -16.538 | |
| Δ Guztira | 255.223 | | 223.011 | | 102.905 | |
| Δ Etekina | -8.264 | | 46.486 | | 2.573 | |
| Δ Aurrekontua, BEZik gabe | 246.959 | | 269.496 | | 105.477 | |

Kasu guztietan ikusten da 2016ko lizitazioan finantzaketa handiagoa aurreikusi dela, nagusiki lansari-mailen gaurkotzearen ondorioz[29]. Hala eta guztiz ere, langile-gastuen eta gainerako gastuen arteko aldeak beste arrazoi hauei ere zor zaizkie:

• Oncineda Zentroa, langile-ratioetan izandako doikuntza batzuk egin ondoren eta zenbait gastu gutxitu ondoren. Etekina % 3,5 izatetik % 3 izatera pasa da.

• Infanta Elena zentroa. Alde nagusia sukalde-zerbitzua barneratzearen ondorioz gertatu da. Etekina ehuneko bi izatetik ehuneko hiru izatera pasa da.

• Carmen Aldave. Erizaintzako eta aisialdiko begiralearen orduak handitu dira eta zenbait gastu doitu dira. Etekinaren portzentajeak % 2,5ekoa izaten jarraitzen du bi lizitazioetan.

2016ko pleguetan exigitzekoa dena alderatu da 2010eko ekitaldiko pleguetan Iturrama, Zangoza eta Tafalla etxebizitzetan eta 2011ko ekitaldian Mendebaldea, Vencerol eta Las Torchas etxebizitzetan exigitzekoa denarekin. Hona hemen emaitzak:

| | Mendebaldea 2011-2016 | | Vencerol 2011-2016 | | Las Torchas 2011-2016 | | Iturrama 2010-2016 | | Zangoza 2010-2016 | | Tafalla 2010-2016 | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Δ Orduak | Δ Pertsonak | Δ Orduak | ΔPertsonak | ΔOrduak | ΔPertsonak | ΔOrduak | ΔPertsonak | ΔOrduak | ΔPertsonak | ΔOrduak | ΔPertsonak |
| | 263,79 | 0,00 | 484,00 | 0,00 | 986 | 0,00 | 2.715 | -0,22 | 1.742 | -0,30 | 1.641 | -0,30 |
| Δ Langileak | 47.798 | | 33.069 | | 52.733 | | 87.561 | | 100.899 | | 107.524 | |
| Δ Beste gastu batzuk | -7.685 | | -19.110 | | -1.261 | | -2.284 | | 1.315 | | -4.374 | |
| Δ Guztira | 40.113 | | 13.959 | | 51.471 | | 85.277 | | 102.214 | | 103.150 | |
| Δ Etekina | -5.484 | | -7.572 | | -4.977 | | -3.724 | | 10.331 | | 10.120 | |
| Δ Aurrekontua, BEZik gabe | 34.629 | | 6.387 | | 46.494 | | 81.553 | | 112.545 | | 113.270 | |

Aldeak zor zaizkie lansari-mailen gaurkotzeengatik langile-gastuak handiagoak izateari ez ezik[30], honako arrazoi hauei ere:

• Garbiketa-orduak gutxitu izana, zaintzaile orduak handitu izana eta psikologo- eta sukalde-orduak jaso izana, lehen ez baitzeuden jasota. Gainerako gastuetan, jaitsiera sukalde-zerbitzua barneratu izanari zor zaio.

• Mendebaldea, Vencerol eta Las Torchas etxebizitza funtzionaletan, 2012ko etekina ehuneko bostekoa zen, eta 2016an, berriz, ehuneko hirukoa.

• Iturrama, Zangoza eta Tafalla etxebizitza funtzionaletan, 2012ko etekina ehuneko bostekoa zen Iturraman eta ehuneko zerokoa, berriz, Zangozan eta Tafallan. 2016an, etekina ehuneko hirukoa da guztietan.

**Azken batean**, Gizarte Zerbitzuei buruzko 15/2006 Foru Legean gizarte zerbitzuetarako lau urteko indarraldia izanen zuten kalitate planak nahitaez ezartzeari buruz ezarritako agindua gorabehera, onetsitako plan bakarra 2010-2013 aldiari dagokiona da.

209/1991 Foru Dekretuan gutxieneko gisa exigitzen diren langile-betebeharrak zabal gainditzen dira zerbitzuen kontrataziorako pleguetan.

Gizarte zerbitzuei buruzko erkidegoetako arau-esparrua heterogeneoa da oso horrelako zerbitzuak emateko ratioen egituratzeari dagokionez, eta, bestetik, lansari-mailetan eta -egituretan aldeak badaude aplikatzekoak diren hitzarmen kolektibo autonomiko desberdinen arabera; inguruabar horiek, bada zail egiten dute, neurri handi batean, autonomien arteko alderaketa egitea.

[29] III. hitzarmen kolektiboa eta KPIaren gaurkotzea
[30] III. hitzarmen kolektiboa eta KPIaren gaurkotzea

Erreferentzia-esparru homogeneo bat ez izate hori muga bat da beste autonomia erkidego batzuekiko alderaketa-terminoetan balorazio egokia egin ahal izateko.

Miguel Ángel Aurrecoechea Gutiérrez auditorea arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarrean dagoen araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2018ko ekainaren 21ean

Lehendakaria,
Asunción Olaechea Estanga

## 1. ERANSKINA ZENTROEN ETA KONTRATATUTAKO TOKIEN ZERRENDA

**DESTAGAITASUNA**

### Titulartasun publikoa

| Zentro berekiak, baliabide propioekin kudeatuak | Toki-kopurua | |
|---|---|---|
| | Egoitza-arreta | Eguneko arreta |
| San José zentroa | 80 | 0 |
| Iruñeko Arreta Goiztiarreko Zentroa: zentro anbulatorioa. Baliagarritasunaren arabe-rako tokiak | | |

| Zentro berekiak, kudeaketa kontratatua dutenak | Toki-kopurua | |
|---|---|---|
| | Egoitza-arreta | Eguneko arreta |
| Atalaya zentroa | 50 | 16 |
| Infanta Elena zentroa | 70 | 12 |
| Oncineda zentroa | 61 | 5 |
| Valle del Roncal zentroa | 104 | 10 |
| Monjardín eguneko zentroa | 0 | 35 |

| Etxebizitza funtzional berekiak, baliabide propioekin kudeatuak | Toki-kopurua | |
|---|---|---|
| | Egoitza-arreta | Eguneko arreta |
| Lur Gorri egoitza | 11 | 0 |

| Kudeaketa kontratatua duten etxebizitza funtzionalak | Toki-kopurua |
|---|---|
| Las Torchas etxebizitza funtzionalak | 12 |
| Mendebaldea etxebizitza funtzionala | 14 |
| Vencerol etxebizitza funtzionala | 18 |
| Iturramako etxebizitza funtzionala | 15 |
| Barañaingo etxebizitza funtzionala | 4 |

### Titulartasun pribatua

| Besteren zentroak, kudeaketa kon-tratatua dutenak | Toki-kopurua | |
|---|---|---|
| | Egoitza-arreta | Eguneko arreta |
| ADACEN zentroa | 9 (etxebizitza funtzi-onala) | 40 |
| Ademna zentroa | 0 | 11 |
| Carmen Aldave zentroa (ASPACE) | 40 | 0 |
| Ramón y Cajal zentroa (ASPACE) | 30 | 62 |

| Kudeaketa kontratatua duten etxebizi-tza funtzionalak | Toki-kopurua |
|---|---|
| Zangozako etxebizitza funtzionala (ANFAS) | 12 |
| Tafallako etxebizitza funtzionala (ANFAS) | 11 |

**GAIXOTASUN MENTALA**

**Titulartasun publikoa**

| Zentro berekiak, baliabide propioekin kudeatuak | Toki-kopurua: Egoitza-arreta | Toki-kopurua: Eguneko arreta |
|---|---|---|
| San Frantzisko Xabierkoa zentroa | 190 | 45 |

| Zentro berekiak, kudeaketa kontratatua dutenak | Toki-kopurua: Egoitza-arreta | Toki-kopurua: Eguneko arreta | Toki-kopurua: EPSZ programa |
|---|---|---|---|
| Félix Garrido | 25 | 30 | 35 |

| Kudeaketa kontratatua duten etxebizitza funtzionalak | Toki-kopurua |
|---|---|
| Tuterako etxebizitza | 4 |

**Titulartasun pribatua**

| Besteren zentroak, kudeaketa kontratatua dutenak | Toki-kopurua: Egoitza-arreta | Toki-kopurua: Eguneko arreta | Toki-kopurua: EPSZ programa | Toki-kopurua: Tutoretzapeko etxebizitza |
|---|---|---|---|---|
| Ordoiz EPSZ | | 30 | 35 | |
| Argako EPSZ | | 30 | 35 | |
| Queiles EPSZ | | 30 | 35 | |
| CRPS Benito Menni | | | 16 | |
| Padre Menni eta Benito Menni (tokiak, guztira) | 336 | 40 | 34 | 18 |
| Padre Menni eta Benito Menni (toki itunduak) | 157 | 30 | 18 | 18 |

**ADINGABEARENTZAKO ARRETA**

**Titulartasun publikoa**

| Zentro berekiak, kudeaketa kontratatua dutenak | Toki-kopurua |
|---|---|
| Aranguren heziketa zentroa | 22 |
| Félix Echegaray zentroa | 16 |
| Ilundain BHZ | 10 |
| Zandueta zentroa | 4 |

| Kudeaketa kontratatua duten etxebizitza funtzionalak | Toki-kopurua |
|---|---|
| Nuevo Futuro Barañáin 2 etxea | 6 |
| Nuevo Futuro Orvina etxea | 6 |
| Nuevo Futuro Tutera etxea | 8 |
| Villava I etxe funtzionala | 8 |
| Villava II. etxe funtzionala | 8 |

**Titulartasun pribatua**

| Besteren zentroak, kudeaketa kontratatua dutenak | Toki-kopurua |
|---|---|
| Gaztebide etxea | 13 |
| Urdax EHE | 5 |
| Gurimendi etxea | 4 |
| Zolina BHZ | 5 |
| Mutilva egoitza | 10 |
| Mendebaldea BHZ | 12 |
| Mendebaldea EHE | 5 |

| Kudeaketa kontratatua duten etxebizitza funtzionalak | Toki-kopurua |
|---|---|
| Elkarbizi egoitza | 6 |
| Nuevo Futuro Barañáin 1 etxea | 6 |
| Nuevo Futuro Barañáin 3 etxea | 6 |
| Nuevo Futuro Ermitagaña etxea | 8 |
| Nuevo Futuro Uharte etxea | 8 |
| Nuevo Futuro Iñigo Arista etxea | 8 |
| Nuevo Futuro Villava etxea | 8 |
| Barañáin etxea | 8 |
| Ermitagaña etxea | 8 |
| Buztintxuri etxea | 8 |
| Arrotxapeko eguneko zentroa | 18 |

## 2. ERANSKINA DESGAITASUN ARLOKO ZENTRO BAKOITZEKO RATIOEN ZENBATESPENA ETA LANSARI-EGITURA

| ONCINEDA | | INFANTA ELENA | | LA ATALAYA | |
|---|---|---|---|---|---|
| Tokia | Ratioak | Tokia | Ratioak | Tokia | Ratioak |
| Zuzendaritza | Pertsona 1 | Zuzendaritza | Pertsona 1 | Zuzendaritza | Pertsona 1 |
| Koordinatzailea/Administrazioa | Pertsona 1 | Koordinatzailea/Administratzailea | Pertsona 1 | Koordinatzailea | Pertsona 1 |
| Harrera | 2.555 ordu | Harrera | 3.654 ordu | Harrera | 2.555 ordu |
| | | Harrera (asteburua) | 1.456 ordu | | |
| Mantentzea/Garraioa | 2 pertsona | Mantentzea/Garraioa | 2,3 pertsona | Mantentzea/Garraioa | 1,5 pertsona |
| DZetako garraiorako laguntza | 744 ordu | DZetako garraiorako laguntza | 744 ordu | DZetako garraiorako laguntza | 744 ordu |
| Sendagilea | Pertsona 0,5 | Sendagilea | Pertsona 1 | Sendagilea | Pertsona 0,5 |
| Psikologia | Pertsona 1 | Psikologia | Pertsona 1 | Psikologia | 1,5 pertsona |
| Erizaintza | 1,5 pertsona | Erizaintza | 11.200 ordu | Erizaintza | 1. 860 ordu |
| Fisioterapeuta | Pertsona 1 | Fisioterapeuta | 2 pertsona | Fisioterapeuta | Pertsona 1 |
| Terapeuta okupazionala | 0,5 pertsona | Terapeuta okupazionala | Pertsona 1 | Terapeuta okupazionala | Pertsona 1 |
| Erdi mailako teknikaria | 2 pertsona | Erdi mailako teknikaria | Pertsona 0,65 | Erdi mailako teknikaria | Pertsona 1 |
| Gizarte Lana | Pertsona 1 | Gizarte Lana | Pertsona 1 | Gizarte langilea | Pertsona 1 |
| | | | | Gizarte hezitzailea | 5.110 ordu |
| Garbiketa | 28.100 ordu | Garbiketa | 22.795 ordu | Garbiketa | 13.200 ordu |
| Garbitegia | 3.630 ordu | Garbitegia | 3.850 ordu | Garbitegia | 3.630 ordu |
| Sukaldaritza | 5.715 ordu | Sukaldaritza | 6.300 ordu | Sukaldaritza | 5.940 ordu |
| Aisiako eta aisialdiko begiralea | 1.638 ordu | Aisiako eta astialdiko begiraleak | 3,15 pertsona | Aisia eta astialdiko begiraleak | 1.638 ordu |
| Zaintzaileak | 73.607 ordu | Zaintzaileak | 90.778 ordu | Zaintzaileak | 65.553 ordu |
| | | | | Eguneko zentroko zaintzaileak | 3.720 ordu |

| LANPOSTUA | ONCINEDA | INFANTA ELENA | LA ATALAYA |
|---|---|---|---|
| Oinarrizko soldata | 1.717.293 | 2.103.437 | 1.518.963 |
| Dedikazio osagarria | 15.658 | 17.981 | 17.405 |
| Jaiegunetako orduak | 96.393 | 143.641 | 86.336 |
| Gaikuntza-osagarria | 191.568 | 288.378 | 164.721 |
| Osagarri pertsonala | 31.800 | 7.138 | 16.158 |
| Antzinatasunaren osagarri pertsonala | 147.074 | 96.216 | 35.420 |
| Jarduera/Produktibotasun-osagarria | 0 | 22.408 | 0 |
| Gabonetako plusa | 5.150 | 10.172 | 6.341 |
| Erantzukizunagatiko osagarria | 9.562 | 5.976 | 6.694 |
| Ordainsariak, guztira | 2.214.498 | 2.695.348 | 1.852.038 |
| Absentismo, % 5 | 110.725 | 134.767 | 92.602 |
| Gizarte segurantza, % 32 | 744.071 | 905.637 | 622.285 |
| Beste gastu batzuk, % 1 | 30.693 | 37.358 | 25.669 |
| Langile-gastuak, guztira | 3.099.988 | 3.773.110 | 2.592.594 |

| Tokia | RATIOAK | | |
|---|---|---|---|
| | MENDEBALDEA | VENCEROL | LAS TORCHAS |
| Koordinatzailea/Administrazioa | Pertsona 1 | Pertsona 1 | Pertsona 1 |
| Psikologia | 280 ordu | 360 ordu | 240 ordu |
| Garbiketa eta garbitegia | 1.240 ordu | 2.480 ordu | 1.100 ordu |
| Sukaldaritza | 1.260 ordu | 1.440 ordu | 1.080 ordu |
| | Sukaldeko ratioa (90 ordu/erabiltzaile) | Sukaldeko ratioa (80 ordu/erabiltzaile) | Sukaldeko ratioa (90 ordu/erabiltzaile) |
| Zaintzailea | 8.043 ordu | 8.488 ordu | 7.769 ordu |

| Tokia | RATIOAK | | |
|---|---|---|---|
| | ITURRAMA | TAFALLA | ZANGOZA |
| Koordinatzailea/Administrazioa | Pertsona 1 | Pertsona 1 | Pertsona 1 |
| Psikologia | 300 ordu | 220 ordu | 240 ordu |
| Garbiketa eta garbitegia | 1.240 ordu | 1.100 ordu | 1.100 ordu |
| Sukaldaritza | 1.200 ordu | 880 ordu | 960 ordu |
| | Sukaldeko ratioa (80 ordu/erabiltzaile) | Sukaldeko ratioa (80 ordu/erabiltzaile) | Sukaldeko ratioa (80 ordu/erabiltzaile) |
| Zaintzailea | 8.797 ordu | 8.123,50 ordu | 8.123 ordu |

| Tokia | MENDEBALDEA | VENCEROL | LAS TORCHAS | ITURRAMA | TAFALLA | ZANGOZA |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Oinarrizko soldata + Hitzarmeneko osagarria | 164.130 | 187.188 | 156.263 | 171.902 | 156.769 | 158.060 |
| Jaiegunak | 10.005 | 10.005 | 10.005 | 10.005 | 7.176 | 7.176 |
| Egun bereziak | 579 | 579 | 579 | 579 | 579 | 579 |
| Gaikuntza-osagarria | 20.214 | 18.954 | 21.621 | 13.393 | 0 | 0 |
| Antzinatasunaren osagarri pertsonala | 14.428 | 7.275 | 26.468 | 8.159 | 22.675 | 23.625 |
| Prestasun-osagarria | 3.187 | 3.187 | 3.187 | 3.187 | 3.187 | 3.187 |
| 15 ordutik gorako lanaldiengatiko osagarria | 7.207 | 7.606 | 6.961 | 7.882 | 7.279 | 7.279 |
| Ordainsariak, guztira | 219.751 | 234.794 | 225.085 | 215.108 | 197.666 | 199.906 |
| Absentismo, % 5 | 10.988 | 11.740 | 11.254 | 10.755 | 9.883 | 9.995 |
| Gizarte segurantza, % 32 | 73.836 | 78.891 | 75.629 | 72.276 | 66.416 | 67.168 |
| Beste gastu batzuk, % 1 | 3.046 | 3.254 | 3.120 | 2.981 | 2.740 | 2.771 |
| Langile-gastuak, guztira | 307.620 | 328.679 | 315.087 | 301.121 | 276.705 | 279.840 |

## 3. ERANSKINA GAIXOTASUN MENTALAREN ARLOKO ZENTRO BAKOITZEKO RATIOEN ZENBATESPENA ETA LANSARI-EGITURA

| RATIOAK | Profila Profesionala | Urteko lanegunak | | Txandak Goizez | Arratsaldez | Gauez | Oro har guztia | Arreta Egoitza | EPSZ Oro har | DZ | EPSZ | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Zuzendaritza | Helbidea | Lanegunak* | | | | | 1,00 per. | 0,28 per. | | 0,33 per. | 0,39 per. | 1,00 per. |
| | Koordinatzailea | Lanegunak* | | | | | 1,00 per. | 0,28 per. | | 0,33 per. | 0,39 per. | 1,00 per. |
| | Administraria | Lanegunak* | | | | | 1,00 per. | 0,28 per. | | 0,33 per. | 0,39 per. | 1,00 per. |
| | Harrera-egilea | Lanegunak* | | | | | 1,00 per. | | | 0,50 per. | 0,50 per. | 1,00 per. |
| Zerbitzuak Orokorrak | Garbiketa, Garbitegia | Lanegunak* | | | | | 5.488 h. | 2,55 per. | | 0,73 per. | 0,18 per. | 3,45 per. |
| | Sukaldaritza | Lanegunak* | | | | | 3.330 h. | 1,42 per. | | 0,68 per. | | 2,10 per. |
| Arreta Soziosanit. Errehabilit. | Psikologoa | Lanegunak | | | | | | | 0,50 per. | 0,33 per. | 0,17 per. | 0,50 per. |
| | Terapeuta okupazionala | Lanegunak | | | | | | | 1,00 per. | 0,46 per. | 0,54 per. | 1,00 per. |
| | Gizarte langilea | Lanegunak | | | | | | | 1,00 per. | 0,46 per. | 0,54 per. | 1,00 per. |
| | Lan-hezitzailea | Lanegunak | | | | | | | | | 1,00 per. | 1,00 per. |
| | Gizarte-hezitzailea | Lanegunak | | | | | | | | 1,00 per. | 2,00 per. | 3,00 per. |
| Arreta Lagun. | Zaintzaileak | Lanegunak | | | | | | | | 1,00 per. | | 1,00 per. |
| Arreta Egoi. | Teknikaria Gizarteratzea | Lanegunak | 228 | 6 o. | | 2 o. | | | | | | |
| | | Jaiegunak | 137 | 7 o. | 7 o. | 2 o. | | 4.016 o. | | | | 2,53 per. |
| | Zaintzaileak | Lanegunak | 228 | 6 o. | | 10 o. | | | | | | |
| | | Jaiegunak | 137 | 7 o. | 7 o. | 10 o. | | 6.936 o. | | | | 4,37 per. |

| Kontzeptuak | Zenbatekoa | Egoitza | Eguneko zentroa | EPSZ |
|---|---|---|---|---|
| Oinarrizko soldata | 500.705 | 223.966 | 138.290 | 138.449 |
| Dedikazio-osagarria | 10.591 | 1.916 | 3.879 | 4.796 |
| Jaiegunetako osagarria | 14.573 | 14.573 | 0 | 0 |
| Gabonetako egunen plusa | 1.148 | 1.148 | 0 | 0 |
| Erantzukizunagatiko osagarria | | | | |
| Ordainsariak, guztira | 527.017 | 241.603 | 142.169 | 143.245 |
| Absentismo, % 5 | 26.351 | 12.080 | 7.108 | 7.162 |
| Gizarte segurantza, % 32 | 177.078 | 81.179 | 47.769 | 48.130 |
| Bestelako gizarte gastuak, % 2 | 25.149 | 12.406 | 6.806 | 3.971 |
| Langileen kostua, guztira* | 755.595 | 347.268 | 203.852 | 202.509 |

* 12 hilabetetarako kalkulua. Kontratuaren lehen aldirako lizitazioak 15 hilabete hartzen ditu.

| PADRE MENNI | | Egoitza-arreta Gaixotasun mentala | PSIKO | Gaixotasun mentala dutenentzako tutoretzapeko etxebizitzak | EPSZ | Adinekoentzako eguneko zentroa |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Zentroko toki baimenduak, guztira | 90 | 91 | 18 | 18 | 40 |
| | Leku itunduak | 42 | 30 | 18 | 18 | 30 |
| Kudeaketako Zuzendaritza | L. baliokidea | | | 0,5 | | |
| Giza baliabideen arduraduna | L. baliokidea | | | 0,5 | | |
| Administrazioko arduraduna | L. baliokidea | | | 0,5 | | |
| Administrazioko eta informatikako langileak (1) | L. baliokidea | | | 4 | | |
| Kalitate teknikaria | | | | 0,5 | | |
| Harrera | L. baliokidea | | | 3 | | |
| Gobernantza, Gizarte Segurantza | L. baliokidea | | | 1 | | |
| Garbiketa | Urteko orduak | | | 22.156,05 | | |
| | Orduak/erabiltzailea | 112,83 | 119,99 | 25,68 | 10,69 | 10,69 |
| Garbitegia | Orduak/erabiltzailea/urtea | 1878,66 | 1341,9 | 805,14 | | |
| | Orduak/erabiltzailea | | 44,73 | | | |
| Mantentze-lanak | L. baliokidea | | | 1 | | |
| Aisialdiko begiralea | L. baliokidea | | | 0,5 | | |
| Kontroleko laguntzailea | L. baliokidea | 1 | | | | |
| Sendagile orokorra, Geriatra | L. baliokidea | | | 0,12 | | |
| EDU erizaintza | L. baliokidea | | | 0,7 | | |
| Lanerako prestatzeko terapeuta | L. baliokidea | | | 0,15 | | |
| Gizarte-langilea | L. baliokidea | | | 0,15 | | |
| Zaintzako langileak | Orduak/urtea | | | 133.209,37 | | |
| | Orduak/erabiltzailea/urtea | 625,05 | 686,37 | 143,96 | 220,44 | 198,4 |
| Eguneko zaintzailea | | | | 111.309,37 | | |
| Gaueko zaintzailea | | | | 21.900 | | |
| **Igande eta jaiegunetan** | | | | | | |
| Garbiketa (igande eta jaiegunetan 6 ordu baino gehiago lan egiten duten pertsonak) | 64 | | | 286,72 lanaldi | | |
| Garbitegia | | | | 384,00 lanaldi | | |
| Zaintzaileak | | | | 2.304,00 lanaldi | | |
| **Gabonak eta Urte Berria** | | | | | | |
| Garbiketa (igande eta jaiegunetan 6 ordu baino gehiago lan egiten duten pertsonak) | 2 | | | 8,96 lanaldi | | |
| Garbitegia | | | | 12,00 lanaldi | | |
| Zaintzaileak | | | | 72,00 lanaldi | | |

| PADRE MENNI | Kostua, guztira | Egoitza-arreta Gaixotasun mentala | PSIKO | Gaixotasun mentala dutenentzako tutoretzapeko etxebizitzak | EPSZ | Adinekoentzako eguneko zentroa |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Urteko lansariak, guztira | 826.526 | 373.550 | 272.463 | 52.050 | 42.155 | 86.308 |
| Jaiegunak, guztira | 39.602 | 25.428 | 14.174 | 0 | 0 | 0 |
| Antzinatasuna, guztira | 56.195 | 25.546 | 18.806 | 3.415 | 2.766 | 5.663 |
| Ordainsariak, guztira | 922.324 | 424.525 | 305.443 | 55.464 | 44.921 | 91.971 |
| Absentismo, % 5 | 46.116 | 21.226 | 15.272 | 2.773 | 2.246 | 4.599 |
| Bestelako gastu sozialak, % 0,51 | 4.955 | 2.281 | 1.641 | 298 | 241 | 494 |
| Gizarte Segurantza, % 29,92 | 289.800 | 133.389 | 95.972 | 17.427 | 14.114 | 28.898 |
| Itunduetako langile-gastua, guztira | 1.263.196 | 581.421 | 418.328 | 75.963 | 61.523 | 125.961 |

| BENITO MENNI | | Gaixotasun mentalaren arloko egoitza-arreta | Psikogeriatriako egoitza-arreta |
|---|---|---|---|
| | Zentroko toki baimenduak, guztira | 68 | 87 |
| | Itundu beharreko tokiak | 40 | 45 |
| Kudeaketako Zuzendaritza | L. baliokidea | 0,5 | |
| Giza baliabideen arduraduna | L. baliokidea | 0,5 | |
| Administrazioko arduraduna | L. baliokidea | 0,5 | |
| Administrazioko eta informatikako langileak (1) | L. baliokidea | 4 | |
| Kalitate teknikaria | | 0,5 | |
| Harrera | L. baliokidea | 3 | |
| Gobernantza, Gizarte Segurantza | L. baliokidea | 1 | |
| Garbiketa | Urteko orduak | 19.007,89 | |
| | Orduak/erabiltzailea | 107,08 | 130,1 |
| Garbitegia | Orduak/erabiltzailea | 50,49 | |
| Sukaldaritza | Urteko orduak | 11.895 | |
| | Orduak/erabiltzailea | 75,05 | |
| Mantentze-lanak | L. baliokidea | 2 | |
| Lorezaintza (1) | Urteko orduak | 0,5 | |
| Aisialdiko begiralea | L. baliokidea | 0,5 | |
| Kontroleko laguntzailea | L. baliokidea | 1 | |
| Zaintzako langileak | Orduak/erabiltzailea/urtea | 661,79 | 580,3 |
| Eguneko zaintzailea | | 91.528,32 o. | |
| Gaueko zaintzailea | | 6.570,00 o. | |
| **Igande eta jaiegunetan** | | | |
| Garbiketa (igande eta jaiegunetan 6 ordu baino gehiago lan egiten duten pertsonak) | | 64 | 191,36 lanaldi |
| Garbitegia | | | 96,00 lanaldi |
| Zaintzaileak | | | 1.792,00 lanaldi |
| **Gabonak eta Urte Berria** | | | |
| Garbiketa (igande eta jaiegunetan 6 ordu baino gehiago lan egiten duten pertsonak) | | 2 | 5,98 lanaldi |
| Garbitegia | | | 3,00 lanaldi |
| Zaintzaileak | | | 56,00 lanaldi |

| BENITO MENNI | KOSTUA | Egoitza-arreta Gaixotasun mentala | PSIKO |
|---|---|---|---|
| Urteko lansariak, guztira | 821.276,72 | 386.483,16 | 434.793,56 |
| Jaiegunak, guztira | 47.125,32 | 22.176,62 | 24.948,70 |
| Antzinatasuna, guztira | 73.387,48 | 35.686,87 | 37.700,62 |
| **Ordainsariak, guztira** | **941.789,52** | **444.346,65** | **497.442,87** |
| Absentismo, % 5 | 47.089,48 | 22.217,33 | 24.872,14 |
| Bestelako gastu sozialak, % 0,51 | 5.712,26 | 2.695,11 | 3.017,15 |
| Gizarte Segurantza, % 29,92 | 304.451,14 | 143.643,39 | 160.807,74 |
| **Itunduetako langile-gastua, guztira** | **1.299.042,40** | **612.902,48** | **686.139,92** |

## 4. ERANSKINA ADINGABEARENTZAKO ARRETAREN ARLOKO ZENTRO BAKOITZEKO RATIOEN ZENBATESPENA ETA LANSARI-EGITURA

| Kontzeptua | Familia-orientazioko Zerbitzua | Familia-bitartekotzarako Zerbitzua |
|---|---|---|
| Ordainsariak | 104.383 | 41.753 |
| Absentismoa (% 5) | 5.219 | 14.029 |
| Gizarte Segurantza (% 32) | 35.073 | 2.088 |
| Bestelako gastuak (% 2) | 2.088 | 835 |
| Langile-gastuak, guztira | 146.762 | 58.705 |

| Egoitza-harrerako 36 tokiren kudeaketa | Egoitza-arreta oinarrizkoa, 16 gazte | Egoitza-arreta oinarrizkoa, 13 gazte | Premia bereziak dituzten gazteak | Gazte finalistak | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|
| Zuzendaritza taldearen kostua | 42.537 | 34.561,37 | 13.292,83 | 5.317,13 | 95.708,40 |
| Zuzeneko arretako langileen kostua | 354.213 | 244.519,96 | 244.659,38 | 9.450,00 | 852.842,68 |
| Langileen antzinatasunaren kostua | 13.508 | 6.921,69 | 1.148,97 | 459,59 | 22.038,66 |
| Urteko lansariak, guztira | 410.259 | 286.003 | 259.101 | 15.227 | 970.590 |
| Gizarte Segurantza | 131.283 | 91.521 | 82.912 | 4.873 | 310.589 |
| Absentismoa (% 5, GS barne) | 27.077 | 18.876 | 17.101 | 1.005 | 64.059 |
| Bestelako gizarte gastuak (% 2, GS barne) | 10.831 | 7.550 | 6.840 | 402 | 25.624 |
| Langileen kostua, guztira | 579.450 | 403.951 | 365.955 | 21.506 | 1.370.861 |

| Hiru egoitza-programaren eta ingurune irekiko programa baten kudeaketa | 1-1 lotea | 1-2 lotea | 1-3 lotea |
|---|---|---|---|
| Zuzendaria | 420 | 420 | 420 |
| Psikologoa | 2.604 | 2.604 | 2.604 |
| Koordinatzailea | 1.736 | 1.736 | 1.736 |
| Gizarte-langilea | 2.604 | 2.604 | 2.604 |
| Administrariak | 868 | 868 | 868 |
| Garbiketa eta sukaldea | 2.170 | 2.170 | 2.170 |
| Zuzeneko arretako hezitzaileak | 18.980 | 22.630 | 26.280 |
| Laguntzako hezitzaileak eta egoitzako akonpainamendua | 12.134 | 17.520 | 26.280 |
| Oinarrizko prestakuntza akademikoa duen teknikaria | 868 | 868 | 868 |
| Segurtasuna | 13.870 | 13.870 | 13.870 |
| Guztira | 56.254 | 65.290 | 77.700 |

| 1. lotea, espazio bat | Behar diren orduak | Kostua, guztira |
|---|---|---|
| Zuzendaria | 420 | 7.530 |
| Psikologoa | 2.604 | 37.709 |
| Koordinatzailea | 1.736 | 27.088 |
| Gizarte-langilea | 2.604 | 36.847 |
| Administrariak | 868 | 8.654 |
| Garbiketa eta sukaldea | 2.170 | 21.875 |
| Hezitzaileak | 18.980 | 250.299 |
| Laguntzako hezitzaileak eta egoitzako akonpainamendua | 12.134 | 117.978 |
| Oinarrizko prestakuntza akademikoa duen teknikaria | 868 | 11.103 |
| Segurtasuna | 13.870 | 166.691 |
| Urteko lansariak, guztira | 56.254 | 685.774 |
| Absentismo, % 5 | | 33.912 |
| Gizarte segurantza, % 32 | | 230.299 |
| Bestelako gizarte gastuak, % 2 | | 13.715 |
| Langileen kostua, guztira | | 963.701 |

| 1. lotea, bi espazio | Behar diren orduak | Kostua, guztira |
|---|---|---|
| Zuzendaria | 420 | 7.530 |
| Psikologoa | 2.604 | 37.709 |
| Koordinatzailea | 1.736 | 27.088 |
| Gizarte-langilea | 2.604 | 36.847 |
| Administrariak | 868 | 8.654 |
| Garbiketa eta sukaldea | 2.170 | 21.875 |
| Hezitzaileak | 22.630 | 298.433 |
| Laguntzako hezitzaileak eta egoitzako akonpainamendua | 17.520 | 170.346 |
| Oinarrizko prestakuntza akademikoa duen teknikaria | 868 | 11.103 |
| Segurtasuna | 13.870 | 166.691 |
| Guztira | 65.290 | 786.276 |
| Absentismo, % 5 | | 38.937 |
| Gizarte segurantza, % 32 | | 264.068 |
| Bestelako gizarte gastuak, % 2 | | 15.726 |
| Langileen kostua, guztira | | 1.105.007 |

| 1. lotea, hiru espazio | Behar diren orduak | Kostua, guztira |
|---|---|---|
| Zuzendaria | 420 | 7.530 |
| Psikologoa | 2.604 | 37.709 |
| Koordinatzailea | 1.736 | 27.088 |
| Gizarte-langilea | 2.604 | 36.847 |
| Administrariak | 868 | 8.654 |
| Garbiketa eta sukaldea | 2.170 | 21.875 |
| Hezitzaileak | 26.280 | 346.568 |
| Laguntzako hezitzaileak eta egoitzako akonpainamendua | 26.280 | 255.519 |
| Oinarrizko prestakuntza akademikoa duen teknikaria | 868 | 11.103 |
| Segurtasuna | 13.870 | 166.691 |
| Guztira | 77.700 | 919.583 |
| Absentismo, % 5 | | 45.603 |
| Gizarte segurantza, % 32 | | 308.859 |
| Bestelako gizarte gastuak, % 2 | | 18.392 |
| Langileen kostua, guztira | | 1.292.437 |

| Profilaren eta programaren arabera behar diren orduak, 2. lotea | OEH | EHE | Autonomia | Guztira |
|---|---|---|---|---|
| **Zuzendaria** | 420 | 420 | 420 | 1.260 |
| Psikologoa | 2.604 | 1.736 | 0 | 4.340 |
| Koordinatzailea | 2.604 | 868 | 0 | 3.472 |
| Gizarte-langilea | 2.604 | 1.736 | 0 | 4.340 |
| Administrariak | 1.736 | 868 | 0 | 2.604 |
| Garbiketa eta sukaldea | 2.170 | 651 | 0 | 2.821 |
| Zuzeneko arretako hezitzaileak | 24.268 | 13.870 | 1.736 | 39.874 |
| Laguntzako hezitzaileak eta egoitzako akonpainamendua | 17.520 | 5.110 | 0 | 22.630 |
| Oinarrizko prestakuntza akademikoa duen teknikaria | 434 | 434 | 0 | 868 |
| Segurtasuna | 0 | 8.760 | 0 | 8.760 |
| Guztira | 54.360 | 34.453 | 2.156 | 90.969 |

| Profilaren eta programaren arabera behar diren langileen kostua, 2. lotea | OEH | EHE | Autonomia | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|
| **Zuzendaria** | 8.420 | 8.420 | 8.420 | 25.260 |
| Psikologoa | 37.916 | 25.277 | 0 | 63.194 |
| Koordinatzailea | 40.461 | 13.487 | 0 | 53.948 |
| Gizarte-langilea | 37.054 | 24.703 | 0 | 61.756 |
| Administrariak | 17.308 | 8.654 | 0 | 25.962 |
| Garbiketa eta sukaldea | 20.765 | 6.230 | 0 | 26.995 |
| Zuzeneko arretako hezitzaileak | 309.219 | 176.729 | 22.120 | 508.069 |
| Laguntzako hezitzaileak eta egoitzako akonpainamendua | 170.346 | 49.684 | 0 | 220.030 |
| Oinarrizko prestakuntza akademikoa duen teknikaria | 5.551 | 5.551 | 0 | 11.103 |
| Segurtasuna | 0 | 89.207 | 0 | 89.207 |
| Guztira | 647.041 | 407.943 | 30.540 | 1.085.524 |
| Absentismo, % 5 | 31.931 | 19.976 | 1.106 | 53.013 |
| Gizarte segurantza, % 32 | 217.271 | 136.934 | 10.127 | 364.332 |
| Bestelako gizarte gastuak, % 2 | 12.941 | 8.159 | 611 | 21.710 |
| Langileen kostua, guztira | 909.184 | 573.012 | 42.384 | 1.524.580 |

**BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK**

2016ko ekitaldian Nafarroako Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Agentziaren zerbitzuak direla-eta egindako kontratazio publikoari buruz Kontuen Ganberak egin duen fiskalizazioko behin-behineko txostenari dagokionez, honako alegazio hauek aurkeztu ditugu:

**ALEGAZIOAK.**

**Behin-behineko txosteneko IV. ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK atalari dagokionez:**

1.- 15. orrialdean, azkenaurreko paragrafoan, honako hau esaten du:

"*Kalitate eta Ikuskapen Atalak, une honetan, hiru ikuskatzaile dauzka; horrek eragotzi egiten du PAGNAren kontratuen gainbegiratze- eta kontrol-eginkizunak betetzea, aztertutako arlo guztietan*".

**Alegazioak:**

Azken paragrafo horri dagokionez, zuzendu beharra dago ez dela Kalitate eta Ikuskapen Zerbitzua baizik eta Ikuskapen Atala gaur egun hiru ikuskatzaile dituena.

Bestalde, berezi beharrekoak dira kontratuen gainbegiratzea dela-eta PAGNAri dagozkion eginkizunak eta kontratu horien kontrola, zeina Ikuskapenari baitagokio.

Ikuskapen Atalak bere kontrol-lana ikuskapen-planen bitartez egiten du. Plan horiek urtero onesten dira foru aginduen bitartez, eta haietan PAGNAren kontratuak hartzen dira.

Azken bi urteetan, 2016an eta 2017an, ikuskapen-planen helburuak bete izan dira, Departamentuaren web-orrian, publikotasunari eta ezagutzari begira, jartzen diren hurrenez hurreneko oroitidazkietan ageri den bezala. Horrenbestez, PAGNAk kontratuen gainean egiten duen kontrola urteko Ikuskapen-planean segurtatuta dago.

2.- 15. orrialdean, azken paragrafoan, honako hau dio txostenak:

*“Desgaitasunaren arloan, eta pleguetan aurreikusitakoaz bestera, gure iritziz betetze-fasean ez dira ebaluatu adjudikazio-hartzaileei adjudikazio-irizpide moduan baloratutako apartatu guztiak”.*

**Alegazioak:**

Gai horri dagokionez, informatu beharra dago atal guztiak baloratu direla, jokabide egokiei buruzkoak izan ezik; izan ere, klausula administratiboen pleguak jasotzen zuen bezala, hura “kontratu-betetzearen lehenengo urtetik” egiaztatu beharra zegoen. Uste dugu balorazio egokia egiteko gutxienez ere zerbitzu-kudeaketaren gutxieneko aldi bat behar dela.

Horri dagokionez, eta PAGNAk orientazio horrekin lan egiten duela frogatzeko modu gisa, maiatzaren 10ean eta 17an jokabide egokiei buruzko bi jardunaldi egin ziren, PAGNAk antolatuak, eta horietan egoitza-zerbitzuetan eta etxebizitzetan garatutako jokabide egokiak, txosten honen xede direnak, erakutsi eta aurkeztu ziren. 300 profesional bertaratu ziren.

3.- 16. orrialdean, zortzigarren puntuan:

"*PAGNAren eta Kalitate eta Ikuskapen Zerbitzuaren artean adostutako prozedura bat zehaztea, pleguen balizko ez-betetzeetarako.”*

**Alegazioak:**

2018. urtearen hasieratik, bada Ikuskapen Zerbitzuak eta Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziak adostutako prozedura bat, zeinaren kopia bat erantsi baitugu. Prozedura horrek jasotzen du zein urrats egin behar diren Kalitate eta Ikuskapen Zerbitzuak irregulartasunen bat detektatzen duenean, eta formalki nola komunikatzen zaion PAGNAri. Prozedura ebazpen administratibo baten biez hasten da. (Ikus 1. eranskina).

**V3 atalari dagokionez, "Adjudikazio-irizpideen balorazioa eta beheranzko eskaintzek aplikatzekoa den hitzarmen sektoriala betetzeko bermean duten eragina" (ZERBITZUEN KONTRATAZIOAREN ANALISIA):**

4.- 45. orrialdearen amaieran eta 46. orrialdearen hasieran, honako hau dio txostenak:

*"Lizitazio-prezioan eta gero adjudikazio-prezioan langile-gastuen estaldura-maila nahikoa ikusten den arren, lizitazio-aurrekontuak oso doiak dira. Horren eraginez, behin aplikatzekoak diren hitzarmen kolektiboetan aurreikusitako lansari-maila aurrekontuen bidez bermatuta, kontratuaren amaierako prezioko gainerako atalen geroko doikuntzan adjudikazio-hartzaileentzako kudeaketan gertatzen diren ondorioek edo eragina izan dezakete zerbitzuaren kalitatean, edo nabarmen jaitsi dezakete enpresen etekina eta zerbitzuaren prestazioan jarraitutasuna nahastu; egoera hori agerian jarri da Infanta Elena eta Valle del Roncal zentroetan, enpresak pleguetan aurreikusitako beherapenik handienarekin egin baitzuen eskaintza, ehuneko bostarekin, eta gero kontratua ez luzatzeko eskatu baitzuen, bideragarria ez izateagatik.*

*Egoera horrek eragina izan dezake maniobra-tartean eta, horrenbestez, enpresa txiki eta ertainek gisa honetako zerbitzuak kontratatzerako daukaten interesean, lehiakortasunaren ikuspuntutik."*

**Alegazioak:**

Nafarroako Gobernuaren desgaitasunaren arlorako zentroen kudeaketa-kontratuen lizitazioan, ahaleginak egin ziren lizitazio-prezioa zerbitzuaren kostu errealei —hau da, merkatuko prezioari— egokitu zekien; eta lizitazioan beherapen desproportzionatuak saihesteko, eskaintza baxuegitzat jo zen lizitazio-aurrekontuaren % 5etik beherako eskaintza oro. Gogorarazi beharra dago orduan indarrean zen kontratuei buruzko foru legearen arabera eskaintza baxuegia zela % 30 gainditzen zuena —pleguan baimendutakoa baino % 25 gehiago—. Gainera, eskaintza ekonomikoaren puntuaketa kalkulatzeko, formula matematiko bat finkatu zen, zeina termino proportzionaletan onura egiten baitzien % 2,5etik gorako beheratzea gainditzen ez zuten eskaintzei. Enpresek, beren eskaintza ekonomikoa egin baino lehen, behar zen informazio guztia zeukaten (subrogatu beharreko langileak, lan-kostuak, absentismoak eta abar) zerbitzuaren kudeaketaren arloko efizientziarekin bat zetorren eskaintza ekonomiko bat egin ahal izateko; izan ere, lizitaziora aurkeztu ziren enpresa guztiek lizitazioan beherapenak egin zituzten (ikus II. eranskinak).

Enpresa txiki eta ertainak lehia errazteko, kontratuaren lizitazioa bost lotetan zatitu zen (aurreko lizitazioan ez bezala, lote bakarrean izan baitzen) eta, gainera, enpresa bat adjudikazio-hartzaile suerta zitekeen lote kopurua ere mugatu zen.

5.- Behin-behineko txostenaren "Zerbitzuaren ebaluazio teknikoa" azpiatalean, 47. orrialdean, honako hau ageri da:

*"Oro har, desgaitasunaren eta gaixotasun mentalaren arloetarako, honako hauek ikusi ditugu:*

*Mendebaldea, Las Torchas, Vencerol eta Iturrama etxebizitzetako eta Oncineda zentroko 2017ko ekitaldiko oroitidazkiak falta dira".*

**Alegazioak:**

Kontratua kudeatzen duen entitateak azken egunetan etxebizitzetako eta Oncineda zentroko memoriak igorri ditu, baina egia da Kontuen Ganberaren behin-behineko txostena igortzeko datan, kontratua kudeatzen duen enpresa haiek igorri gabe zegoela.

6.- Behin-behineko txostenaren "Zerbitzuaren ebaluazio teknikoa" azpiatalean, 48. orrialdean, honako hau ageri da:

*"Agentziak ebaluaziorako adierazleen eta asebetetze-maila neurtzeko inkestak pleguetan jaso baditu ere adjudikazio-hartzaileen betebehar gisa, horretan 2013ko maiatzeko txostenean egin genituen gomendioei erantzunez, uste dugu ebaluazio-adierazleei dagokienez, gehienak jarduera-adierazleei dagozkiela, eta deskriptibo hutsak direla. Asebetetze-maila neurtzeko inkestei dagokienez, uste dugu txostena mugatzen dela haiek egin diren egiaztatzera, baina ez dago jasota emaitzen analisia egiten*

*denik, horren bidez ondorio baliagarriak ateratzeko, zerbitzuaren kalitatea ebaluatu eta behar diren hobekuntzak hartzeari begira."*

**Alegazioak:**

Plegu berriak banakako arreta-planaren ebaluazioari eta profesionalen prestakuntzari buruzko adierazleak jasotzen ditu, bai eta erabiltzaileen eta senideen asebetetzeari buruzko inkestak ere, arretaren kalitatea ebaluatzeari begira.

7.- Behin-behineko txostenaren “Zerbitzuaren ebaluazio ekonomikoa” azpiatalean, 48. orrialdean, honako hau ageri da:

*“Pleguetan ezartzen den bezala, urtero, txosten teknikoarekin batera, oroitidazki ekonomiko bat aurkeztu beharra dago. Horiek aztertuta, honako hau ikusten da:*

*Mendebaldea, Las Torchas, Vencerol eta Iturrama etxebizitzetako eta Oncineda zentroko 2017ko ekitaldiko oroitidazki ekonomikoak falta dira.*

*Oroitidazkiak aurkeztu diren gainerako zentroetan, detektatu da inkoherentzia batzuk badaudela edukietan, agentziak ikusi gabekoak, zeren eta txosten teknikoekin agerian jarri den bezala, ez baitira dokumentazio hori berrikusten, denbora eta baliabideak falta direlako. Horien artean, honako hauek nabarmendu behar dira:*

*a) Mendebaldea, Las Torchas eta Vencerol etxebizitza funtzionaletarako psikologo bat kontratatu dela jasota ageri den arren, pleguetan eskatutakoaz gorako arduraldiarekin, 2016ko oroitidazkietan ez dago jasota etxebizitza horietako bakoitzari zenbat psikologo-ordu esleitu zaion, pleguetan etxebizitza horietarako ezarritako ordu-esleipena egiaztatu ahal izateko.*

*b) Oncineda zentroaren 2016ko oroitidazkian, nabarmentzen dugu bi ziurtagiri jaso direla, lanpostu bakoitzaren txanda eta lanorduei buruzkoa bata eta opor edo beherapengatiko ordezkapenei buruzkoa bestea. Bi ziurtagiri horiek direla-eta Enpresa Batzordeak berariaz adierazi du bere desadostasuna, baina ez dago jasota PAGNAk horri buruzko erabakirik hartu duenik."*

**Alegazioak:**

Aurreko atalean aipatu den bezala, enpresak berriki bidali ditu 2017tik bidali gabe zauzkan oroitidazkiak.

Txostenak aipatzen dituen inkoherentziei dagokienez, ez gaude ados kontsiderazio horrekin, zeren eta a) atalari dagokionez, pleguetan argiro zehazturik baitago orduak/erabiltzailea ratioaren araberako zerbitzua, hurrengo taulak aipatzen duen bezala (plegu teknikoaren kopia).

| LOTE 1 Piso *Mendebaldea (Pamplona)* *Plazas: 14* | Horas anuales totales | Horas anuales por usuario | Personal equivalente |
|---|---|---|---|
| Coordinación (1) | | | 1,00 |
| Psicólogo/a | 280 | 20 | |
| Servicios generales (limpieza y lavandería) | 1.240 | | |
| Cocina | | 90 | |
| Cuidador/a | 7.511 | | |
| Ocio fines de semana | 312 | | |
| Bolsa de horas para incidencias | 220 | | |
| TOTAL HORAS Cuidador/a | 8.043 | | |

| LOTE 2 Piso *Vencerol (Tudela)* *Plazas: 18* | Horas anuales totales | Horas anuales por usuario | Personal equivalente |
|---|---|---|---|
| Coordinación (1) | | | 1,00 |
| Psicólogo/a | 360 | 20 | |
| Servicios generales (limpieza y lavandería) | 2.480 | | |
| Cocina | | 80 | |
| Cuidador/a | 7.157 | | |
| Ocio fines de semana | 624 | | |
| Bolsa de horas para incidencias | 707 | | |
| TOTAL HORAS Cuidador/a | 8.488 | | |

| LOTE 3 Piso *Las Torchas (Estella)* *Plazas: 12* | Horas anuales totales | Horas anuales por usuario | Personal Equivalente |
|---|---|---|---|
| Coordinación (1) | | | 1,00 |
| Psicólogo/a | 240 | 20 | |
| Servicios generales (limpieza y lavandería) | 1.100 | | |
| Cocina | | 90 | |
| Cuidador/a | 7.157 | | |
| Ocio fines de semana | 312 | | |
| Bolsa de horas para incidencias | 300 | | |
| TOTAL HORAS Cuidador/a | 7.769 | | |

(1) Titulación mínima de Grado Universitario o Diplomatura equivalente en el ámbito de las Ciencias Sociales o de Ciencias de la Salud. Con disponibilidad fuera del horario laboral.

Bigarren gaiari dagokionez, kontratua betetzeari buruzko kontuak, horren barne dela kontratuak arautzen dituzten klausulen pleguetako betekizunen ez-betetze bat ekar dezaketen lanaldi eta txandekin zerikusia duen guzia, dagokien jarraipen batzordeetan aztertzen dira eta bestela (baita aurrez ere) Agentziari ematen zaizkio jakitera edozein bide erabiliz (telefonoa, posta elektronikoa, langileen eta Agentziaren arteko bilerak eta abar). Agentziak ez ditu baloratzen laneko kontu hutsak direnak, hitzarmen kolektiboan, klausula administratiboen pleguetan edo kontratuaren betetze egokian eraginik ez dutenak.

<u>8.- Behin-behineko txostenaren “Jarraipen Batzordea” azpiatalean, 49. orrialdean, honako hau ageri da:</u>

*“Batzordeak aldeei eskatzen die idatziz aurkez ditzaten langileen eta enpresen artean sortutako desadostasunak, bai eta senideek planteatzen dituzten gaiak ere. Oro har, gai batzuk badaude agentziak zerbitzuko irregulartasuntzat hartzen ez dituena, zeren eta ez baitira pleguen berariazko ez-betetzetzat hartzen. Hala eta guztiz ere, ondorengo bileren aktetan haien egoera eta tratamendua jasotzen dira. Halaber, ez dugu jasota agentzian informaziorik dagoenik egindako berrikuspenen egoera egiaztatzen duenik”.*

**Alegazioak:**

PAGNAren dokumentuaren kopia bat gehitu dugu, zeinean jarraipen batzordeetan aztertutako kontuen jarraipena egiten baita (III. eranskina).

Kontuan hartu behar dira, halaber, gurasoen elkarteekin eta langileen komiteekin PAGNAk egin dituen elkarteak, bai eta Agentziaren aldetik jarraipen hori egiaztatzen duten posta elektronikoko ezin konta ahala mezu ere.

Halaber, aintzat hartu beharko litzateke ezen 2017tik aldizkako bilera batzuk ezarri direla, eta haietara adimen-desgaitasuna dutenentzako egoitzetako eta etxebizitzetako zuzendaritza guztiak joaten direla, zentro propioak nahiz itunduak izan, eta bilera horiek hiru hilez behin egiten direla. Bilera horien helburua da hobetzea erabiltzaileei zein familiei eskaintzen zaizkien prozedurak, protokoloak eta programak, bai eta, horrenbestez, ematen den arretaren kalitatea ere. 2017an, arreta-zerbitzuetako etikari

buruzko jardunaldi bat programatu zen, eta hartara 200 profesional joan ziren; hari buruzko ebaluazio-txostena erantsi dugu.

9.- Behin-behineko txostenaren “Zerbitzuen ikuskatzea” azpiatalean, 49. orrialdearen amaieran eta 50. orrialdearen hasieran, honako hau ageri da:

*“Espedienteren batean, PAGNAren txostena ageri da, zeinaren bidez Ikuskapen Atalari adierazten baitio zein izan den detektatutako irregulartasunaren emaitza. Gainerakoetan, ez dakigu amaitutako ikuskapenak diren edo haietan lan egiten ari den.”*

**Alegazioak:**

Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziak komunikatzen edo/eta helarazten dio Ikuskapen Zerbitzuari zein izan den amaierako emaitza (etetea, artxibatzea eta abar), zerbitzu horrek balizko irregulartasunengatik igorritako prozedura guztien kasuan.

**V5 atalari, “Zerbitzuen kalitatea”, dagokionez (ZERBITZUEN KONTRATAZIOAREN ANALISIA):**

10.- Behin-behineko txostenaren 55. orrialdean, honako hau aipatzen da:

*“Azken batean, Gizarte Zerbitzuei buruzko 15/2006 Foru Legean gizarte zerbitzuetarako lau urteko indarraldia izanen zuten kalitate planak nahitaez ezartzeari buruz ezarritako agindua gorabehera, onetsitako plan bakarra 2010-2013 aldiari dagokiona da.”*

**Alegazioak:**

Gure iritziz, kalitate planek gizarte zerbitzuen kalitatearen hobekuntza jarraiturako esparru orokorra osatzen dute, eta ildo horretan lan egiten ari da Eskubide Sozialetako Departamentuan, Kalitate-sare bat sortuz; sare horretan, entitate kudeatzaileek eta zerbitzuetako titularrek hartzen dute parte, adierazleen taula bat ezartzeko eta haien partaidetzaz baliatu ahal izateko plan berrietan eta gizarte zerbitzuen kalitatearekin lotutako plan eta arauetan.

Baina modu zorrotzago eta zehatzago batean, gizarte zerbitzuen kalitatea segurtatzen duten arau-mekanismoak Gizarte zerbitzuen arloko baimenen, arau-hausteen eta zehapenen araubideari buruzko maiatzaren 23ko 209/1991 Foru Dekretutik ateratzen direnak dira, zeren eta arau horretan ezartzen baitira zentro eta zerbitzuetako baldintza teknikoak eta langile-ratioak.

Iruñean, 2018ko ekainaren 6an.

Eskubide Sozialetako Kontseilaria: Miguel Laparra Navarro

**JARRAITU BEHARREKO PROZEDURA, IKUSKAPEN ZERBITZUAK IKUSTEN DUENEAN PAGNAREKIN IZENPETUTAKO HITZARMEN/KONTRATU/ITUNETAN EZ-BETETZEREN BAT EGON DELA.**

1) Ikuskapenak zentroari komunikatzen dio bisitaren emaitzarekin egin duen txostena.

a) Araudiaren ez-betetzeren bat egonez gero, zehapen prozedura bat hasiko du, bidezkoa bada.

b) Paraleloan, Ikuskapenak Agentziako kasuko zuzendariordetzari aditzera emanen dizkio kontratuaren ez-betetzeren bat ekar dezaketen egitateak; Agentziak baloratuko du bidezkoa den kontratuaren ez-betetzea dela-eta zehapen bat ezartzeko prozedura irekitzea.

2) Irekitzen ez badu, komunikazio bat igorriko zaio Ikuskapenari, jakin dezan espedienteak ez duela aurrera eginen.

3) Irekitzen badu, Itunen Atalak ebazpen bat emanen du hari hasiera emateko. Ebazpena, Ikuskapenaren txostenarekin batera, zentroari jakinaraziko zaio, eta alegazioetarako epe bat emanen da. Ebazpen hori Ikuskapenari helaraziko zaio, ematen diren urratsen berri izan dezan.

4) Itunen Atalak beheratzeen prozedura hasiko du, bai eta zehapenak ezartzekoa ere, eta horiek kuantifikatuko ditu Ikuskapenaren txostenean ageri diren datuen arabera. Hamabost eguneko epea emanen da nahi dutena alegatu dezaten, bai egozten diren egitateei buruz, bai kuantifikazioari buruz ere. Aurkeztutako alegazioak ikusita, kasuko atalak izanen dira (Zaharrena edo Desgaitasunarena) alegazioak baloratu eta haiei buruz informatuko dutenak, salbu eta alegatutako soil-soilik juridikoa bada (Araubide Juridikoa) edo orduak edo egitateak eztabaidan jartzen badira (Ikuskapena).

5) Alegazioak baiestekotan, espedientea artxibatzeko ebazpena emanen da.

6) Partzialki baiesten badira eta zenbatekoetan aldaketaren bat egiten bada, prozedura ebazpen batekin amaituko da; horretan, alegatutako baietsi eta zenbateko berriak ezarriko dira. Amaierako ebazpen hori Ikuskapen Atalari ere jakinarazi beharko zaio.

7) Kasu guztietan, beharrezkoa da Ikuskapenaren edozein jarduketaren aurrean Agentziak jardun dezan dela dagokion prozedurari hasiera emanez, dela artxibatzea aginduz, prozedura hastea bidezkoa ez dela uste duelako. Nolanahi ere, hartzen den erabakia Ikuskapenari eman beharko zaio aditzera.

| 2017ko JARRAIPEN BATZORDEETAN SORTUTAKO GAIAK DIRELA-ETA PAGNAK EGITEN DUEN JARRAIPENA | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **BALIABIDEA** | **ESKARIA/KEXA** | **PAGNAREN KONPROMISOA** | **EGIN DA** | **LANA HASITA DAGO** | **EGITEKO DAGO** |
| **Iturrama etxebizitza** | Etxebizitzaren mantentzea eta egokitzea. 6. pisura iristeko zailtasunak | NASUVINSAri eskatu zaio etxebizitza beste toki batean jartzea. | | NASUVINSAk igorritako dokumentua aztertzeko zain | |
| **Etxebizitza funtzionalak** | Psikologoaren lanaldia luzatzea | Psikologoaren lanaldia lanaldi erdira luzatzen den aztertzea | X | | |
| | Tasubinsan zigorrak eta zehapenak ezartzea | Tasubinsarekin bilera egitea, gaia aztertzeko | | | X |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Infanta Elena zentroa** | Erizaintzako orduak gutxitzea | PAGNAri enpresaren kalkuluak bidaltzea, Agentziarenak kontrastatzeko.<br>Enpresak ordutegien banaketarako alternatibarik onena bilatu behar du | Jarraipen batzordearen hurrengo bileran gaia aztertzeko zain | |
| | Iturriak | Gaia aztertzen ari da, ikusteko eragin ekonomikoari nola egiten zaion aurre | | |
| | Aire egokitua | Enpresa berriaren aldian eginen da | | |
| | Furgoneta | Zenbait aukera aztertzen ari dira | | |
| | Tresna informatikoa | Sistema informatiko bat ezartzea aztertzen ari da | | X |
| | Unibertsalak izan beharko liratekeen protokoloak | Kontratua adjudikatu ondorengo lehenengo batzordean landuko da gaia | | Jarraipen batzordearen bilera noiz deituko zain |
| **Valle del Roncal zentroa** | Aldi baterako egonaldiak eta erabiltzaileentzako laguntza puntualak | Zentroetako zuzendariekin protokolo komun bat lantzea planteatzen diren zailtasunak ebazteko.<br>Laguntzen balorazio objektibo bat egitea, erabiltzailearen erreferentziako zentroaren txostenetan oinarritua, eta desgaituentzako zerbitzuen atalean laster psikologo bat sartzea | X | |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Valle del Roncal zentroa** | Zainketa aringarriak | Jantokietako obren ondoren, aurrekontua berrikustea, ikuste aldera ea obrarik egin ote daitekeen zainketa aringarrietarako banakako gelaren batean, eta gaia Obren Atalarekin konprobatzea | | X |
| | Patioa egokitzea, erorikoak izateko arriskuarengatik | Patioa birmoldatzeko proiektua badago, eta proiektuaren betetzea urgentziaren arabera aztertuko da | | X |
| | Patioko zuhaitz baten mantentzea | Eskaera horren aurrean, irizpide teknikoak erabiliko dira | X | |
| | Zentrora sartzeko kaleak egokitze-, garbitasun- eta segurtasun-baldintza txarretan daude | Barrutiko sarbideak Agentziaren erantzukizuna dira, eta haien egoera aztertuko da<br>Harremanetan hasi da enpresarekin atzealdeko igerilekuen estalduraren aurrekontua egiteko, gainetik belarra jarrita | X | |
| | Aisia eta aisialdia, batez ere asteburuan | Erantzulea enpresa da, baina PAGNAk aztertuko du hori nola egin den beste zentro batzuetan, eta irizpideak bateratzeko ahalegina eginen da | X | |
| | Janaria eskasa izatea | Enpresaren nutrizio-zerbitzuaren txostena, aldaketak justifikatzen dituena, igortzea. Ura gutxitzea ez da komenigarria, eta kasu bakoitza pertsonalizatuko da | X | |

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **Oncineda zentroa** | Aldi baterako egonaldiak eta erabiltzaileentzako laguntza puntualak | Zentroetako zuzendariekin protokolo komun bat lantzea planteatzen diren zailtasunak ebazteko. Laguntzen balorazio objektibo bat egitea, erabiltzailearen erreferentziako zentroaren txostenetan oinarritua, eta desgaituentzako zerbitzuen atalean laster psikologo bat sartzea. | X | | |
| | Aste urdina | PAGNAk konpromisoa hartzen du Kirolaren Institutuarekin informatzeko, ikuste aldera ea jarduera berreskura daitekeen, eta zentroari erabiltzaileen eta pasatuko liratekeen gauen zerrenda bat eskatzea. | | | X |
| | Zuzeneko arretako orduak gutxitzea beste ekintza batzuk egin ahal izateko; esate baterako, garraioko akonpainamendua | PAGNAk konpromisoa hartzen du pleguetan ageri diren orduak berrikusteko, eta antzeko beste zentro batzuekiko alderaketa bat eginen du, planteatzen duten arazoari erantzun zehatzago bat emateko | Egin da eta Oncinedako zuzendariarekin aztertu da | | |

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **La Atalaya zentroa** | Furgoneta | Gaia aztertzen ari da | X | | |
| | Langileen kopurua handitzea: lanaldi erdia EDU eta sendagilea, psikologoa; sukaldeko ordu gehiago, PAD bat goizeko txandan eta goiz eta arratsaldeko zerbitzuetarako bat. T.O orduak handitzea | Batzordearen hurrengo bileran aztertuko da. | Langile-kopurua handitu da, eguneko zentrorako 3 lanpostu gehiagorekin | | |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Las Hayas zentroa** | Zentroetako ratioak | Errealitate Sozialaren Behatokia eta ordezkari sindikalak ebaluatzen ari dira ratioak.<br>Azterlana ezagutzen denean, kasuak baloratzeko bilera bat egitea proposatzen da | Azterlana egin da eta egoera berria lantzen ari da | |
| | Toldoak | Urte amaieran aurrekontua ikusi eta gero gaia aztertuko da | Toldoen sistema onena aztertzen ari da Obren Atalarekin, zeren eta guztiak ezin baitira jarri, zentroaren arkitektura dela eta | |
| | Zisternak ez dira erabiltzen<br>ura oso bero ateratzen delako eta erretzeko arriskua dagoelako | PAGNAk gogoan hartu du | | |
| | Furgoneta | PAGNA aztertzen ari da | X | |

| Licitación | LOTE | CENTRO | Nº | Licitador | A) Prop. Técnica | B) Form. Obje |
|---|---|---|---|---|---|---|
| CVR-CIE 2017 | 1 | VALLE RONCAL | 1 | Sar | 36,52 | 30 |
| CVR-CIE 2017 | 1 | VALLE RONCAL | 2 | Valoriza | 28,46 | 29 |
| CVR-CIE 2017 | 2 | INFANTA ELENA | | | | |
| Infanta Elena 2017 | | INFANTA ELENA | 1 | Domus Vi | 32,51 | 29,3 |
| Centros 2016 | 1 | LAS HAYAS | 1 | SARQUAVITE | 46,6 | 30 |
| Centros 2016 | 1 | LAS HAYAS | 2 | Maresme | 35 | 30 |
| Centros 2016 | 1 | LAS HAYAS | 3 | Tasubinsa | 27,6 | 30 |
| Centros 2016 | 1 | LAS HAYAS | 4 | Grupo 5 | 27,2 | 30 |
| Centros 2016 | 2 | LA ATALAYA | 1 | SARQUAVITE | 46,6 | 30 |
| Centros 2016 | 2 | LA ATALAYA | 2 | Avanvida | 41,6 | 30 |
| Centros 2016 | 2 | LA ATALAYA | 3 | Maresme | 35 | 30 |
| Centros 2016 | 2 | LA ATALAYA | 4 | Hospitalarias | 35,2 | 25 |
| Centros 2016 | 2 | LA ATALAYA | 5 | Tasubinsa | 27,6 | 30 |
| Centros 2016 | 2 | LA ATALAYA | 6 | Grupo 5 | 27,2 | 30 |
| Centros 2016 | 3 | ONCINEDA | 1 | SARQUAVITE | 46,6 | 30 |
| Centros 2016 | 3 | ONCINEDA | 2 | Maresme | 35 | 30 |
| Centros 2016 | 3 | ONCINEDA | 3 | Tasubinsa | 27,6 | 30 |
| Centros 2016 | 3 | ONCINEDA | 4 | Grupo 5 | 27,2 | 30 |
| Centros 2016 | 4 | VALLE RONCAL | 1 | SARQUAVITE | 46,6 | 30 |
| Centros 2016 | 4 | VALLE RONCAL | 2 | Avanvida | 41,6 | 30 |
| Centros 2016 | 4 | VALLE RONCAL | 3 | Maresme | 35 | 30 |
| Centros 2016 | 5 | INFANTA ELENA | 1 | SARQUAVITE | 46,6 | 30 |
| Centros 2016 | 5 | INFANTA ELENA | 2 | Maresme | 35 | 30 |
| Centros 2016 | 5 | INFANTA ELENA | 3 | Tasubinsa | 27,6 | 30 |
| Barañain 2016 | 1 | PS BARAÑIAN | 1 | ANFAS | | |
| PF Ajenos 2016 | 1 | PF PAMPLONA | 1 | SARQUAVITE | | |
| PF Ajenos 2016 | 2 | PF TAFALLA | 1 | ANFAS | | |
| PF Ajenos 2016 | 3 | PF SANGÜESA | 1 | ANFAS | | |
| PF Propio 2016 | 1 | PF MENDEBALDEA | 1 | SARQUAVITAE | 79,6 | |
| PF Propio 2016 | 1 | PF MENDEBALDEA | 2 | FUND MARESME | 65,2 | |
| PF Propio 2016 | 1 | PF MENDEBALDEA | 3 | H. HOSPITALARIAS | 60,4 | |
| PF Propio 2016 | 1 | PF MENDEBALDEA | 4 | ANFAS | 57,2 | |
| PF Propio 2016 | 1 | PF MENDEBALDEA | 5 | EL CASTILLO | 45,4 | |
| PF Propio 2016 | 1 | PF MENDEBALDEA | 6 | VALORIZA | 45 | |
| PF Propio 2016 | 2 | PF LAS TORCHAS | 1 | SARQUAVITAE | 79,6 | |
| PF Propio 2016 | 2 | PF LAS TORCHAS | 2 | FUND MARESME | 65,2 | |
| PF Propio 2016 | 2 | PF LAS TORCHAS | 3 | H. HOSPITALARIAS | 60,4 | |
| PF Propio 2016 | 2 | PF LAS TORCHAS | 4 | ANFAS | 57,2 | |
| PF Propio 2016 | 2 | PF LAS TORCHAS | 5 | EL CASTILLO | 45,4 | |
| PF Propio 2016 | 3 | PF VENCEROL | 1 | SARQUAVITAE | 79,6 | |
| PF Propio 2016 | 3 | PF VENCEROL | 2 | FUND MARESME | 65,2 | |
| PF Propio 2016 | 3 | PF VENCEROL | 3 | ANFAS | 57,2 | |
| PF Propio 2016 | 3 | PF VENCEROL | 4 | EL CASTILLO | 45,4 | |

| Mod Res / Piso | Mod CD | Ppto Ofertado | % Bajada | C) Ofer. Eª | Total | Puesto |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 49.189,86 | 19.552,57 | 5.311.271,14 | 1,63% | 12,09 | 78,61 | 1 |
| 49.935,59 | 20.488,42 | 5.398.185,56 | 0,02% | 0,33 | 57,79 | 2 |
| | | | | | | |
| 59402,06 | 24680,03 | 4454304,56 | 0,63% | 6,8 | 68,61 | 1 |
| 63.554,49 | 21.941,80 | 4.165.105,50 | 2,73% | 15,56 | 92,16 | 1 |
| 61.608,94 | 21.941,80 | 4.067.828,00 | 5,00% | 20 | 85 | 2 |
| 62.257,46 | 22.172,76 | 4.110.647,20 | 4,00% | 18,33 | 75,93 | 4 |
| 61.933,20 | 22.149,67 | 4.093.395,15 | 4,40% | 19,04 | 76,24 | 3 |
| 55.755,31 | 18.555,49 | 3.084.653,34 | 2,75% | 15,61 | 92,21 | 1 |
| 57.021,68 | 18.555,49 | 3.147.971,84 | 0,75% | 7,64 | 79,24 | 3 |
| 54.325,68 | 18.555,49 | 3.013.171,84 | 5,00% | 20 | 85 | 2 |
| 54.897,53 | 18.750,81 | 3.044.889,46 | 4,00% | 18,33 | 78,53 | 4 |
| 55.126,27 | 18.828,93 | 3.057.576,38 | 3,60% | 17,55 | 75,15 | 6 |
| 54.611,61 | 18.887,53 | 3.032.780,98 | 4,38% | 19 | 76,2 | 5 |
| 54.341,12 | 27.127,23 | 3.450.444,47 | 2,60% | 15,22 | 91,82 | 1 |
| 52.947,76 | 27.127,23 | 3.365.449,51 | 5,00% | 20 | 85 | 2 |
| 53.588,70 | 27.455,61 | 3.406.188,75 | 3,85% | 18,04 | 75,64 | 4 |
| 53.226,43 | 27.698,33 | 3.385.303,88 | 4,44% | 19,1 | 76,3 | 3 |
| 48.356,13 | 18.745,89 | 5.216.496,42 | 1,37% | 11 | 87,6 | 1 |
| 48.544,63 | 18.745,89 | 5.236.100,42 | 1,00% | 9,16 | 80,76 | 3 |
| 46.510,40 | 18.745,89 | 5.024.540,50 | 5,00% | 20 | 85 | 2 |
| 57.048,70 | 23.344,60 | 4.273.544,20 | 1,27% | 10,54 | 87,14 | 1 |
| 54.743,70 | 23.344,60 | 4.112.194,20 | 5,00% | 20 | 85 | 2 |
| 57.048,70 | 24.327,53 | 4.285.339,36 | 1,00% | 9,16 | 66,76 | 3 |
| 26.647,00 | | | 3,83% | | | 1 |
| 27.424,09 | | | 0,00% | | | 1 |
| 32.244,07 | | | 0,00% | | | 1 |
| 28.955,23 | | | 0,00% | | | 1 |
| 27.274,73 | | | 1,00% | 9,16 | 88,76 | 1 |
| 26.172,72 | | | 5,00% | 20 | 85,2 | 2 |
| 26.999,23 | | | 2,00% | 13,42 | 73,82 | 3 |
| 26.804,00 | | | 2,71% | 15,51 | 72,71 | 4 |
| 25.346,21 | | | 8,00% | 20 | 65,4 | 5 |
| 27.216,90 | | | 1,21% | 10,26 | 55,26 | 6 |
| 32.081,43 | | | 1,00% | 9,16 | 88,76 | 1 |
| 30.785,21 | | | 5,00% | 20 | 85,2 | 2 |
| 32.081,43 | | | 1,00% | 9,16 | 69,56 | 4 |
| 31.396,00 | | | 3,12% | 16,51 | 73,71 | 3 |
| 29.164,93 | | | 10,00% | 20 | 65,4 | 5 |
| 23423,98 | | | 1,00% | 9,16 | 88,76 | 1 |
| 22477,56 | | | 5,00% | 20 | 85,2 | 2 |
| 23064 | | | 2,52% | 15 | 72,2 | 3 |
| 21767,74 | | | 8,00% | 20 | 65,4 | 4 |

| Adjud | Ppto Max | Mod Max Res/Piso | Mod Max CD | Comentario |
|---|---|---|---|---|
| Si | 5.399.150,46 | 49.938,94 | 20.550,07 | |
| · | 5.399.150,46 | 49.938,94 | 20.550,07 | |
| · | 4.482.403,76 | 59.580,80 | 25.978,98 | Desierto |
| Si | 4.482.403,76 | 59.580,80 | 25.978,98 | |
| Si | 4.281.924,35 | 64.851,52 | 23.096,63 | |
| · | 4.281.924,35 | 64.851,52 | 23.096,63 | |
| · | 4.281.924,35 | 64.851,52 | 23.096,63 | |
| · | 4.281.924,35 | 64.851,52 | 23.096,63 | |
| Si | 3.171.759,94 | 57.184,93 | 19.532,09 | |
| · | 3.171.759,94 | 57.184,93 | 19.532,09 | |
| · | 3.171.759,94 | 57.184,93 | 19.532,09 | |
| · | 3.171.759,94 | 57.184,93 | 19.532,09 | |
| · | 3.171.759,94 | 57.184,93 | 19.532,09 | |
| · | 3.171.759,94 | 57.184,93 | 19.532,09 | |
| Si | 3.542.578,18 | 55.734,48 | 28.554,98 | |
| · | 3.542.578,18 | 55.734,48 | 28.554,98 | |
| · | 3.542.578,18 | 55.734,48 | 28.554,98 | |
| · | 3.542.578,18 | 55.734,48 | 28.554,98 | |
| · | 5.288.990,48 | 48.958,32 | 19.732,52 | |
| · | 5.288.990,48 | 48.958,32 | 19.732,52 | |
| Si | 5.288.990,48 | 48.958,32 | 19.732,52 | |
| · | 4.328.625,62 | 57.624,95 | 24.573,26 | |
| Si | 4.328.625,62 | 57.624,95 | 24.573,26 | |
| · | 4.328.625,62 | 57.624,95 | 24.573,26 | |
| Si | | 27.707,63 | | No hubo puntuación técnica, solo se constanto el cumplimiento exigencias del proyecto. |
| Si | | 27.424,09 | | No hubo puntuación técnica, solo se constanto el cumplimiento exigencias del proyecto. |
| Si | | 32.244,07 | | No hubo puntuación técnica, solo se constanto el cumplimiento exigencias del proyecto. |
| Si | | 28.955,23 | | No hubo puntuación técnica, solo se constanto el cumplimiento exigencias del proyecto. |
| Si | | 27.550,23 | | |
| · | | 27.550,23 | | |
| · | | 27.550,23 | | |
| · | | 27.550,23 | | |
| · | | 27.550,23 | | Oferta anormalmente baja |
| · | | 27.550,23 | | |
| Si | | 32.405,48 | | |
| · | | 32.405,48 | | |
| · | | 32.405,48 | | |
| · | | 32.405,48 | | |
| · | | 32.405,48 | | Oferta anormalmente baja |
| Si | | 23.660,59 | | |
| · | | 23.660,59 | | |
| · | | 23.660,59 | | |
| · | | 23.660,59 | | Oferta anormalmente baja |

## BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI KONTUEN GANBERAK EMANDAKO ERANTZUNA

Eskerrak eman nahi dizkiogu Eskubide Sozialetako Departamentuari aurkeztu dizkigun alegazioengatik. Horiek aztertuta, haietako bi partzialki eta beste bi osorik jaso dira behin betiko txostenean. Gainerako alegazioek ez dituztenez aldarazten behin-behineko txostenaren ondorio orokorrak, txosten hori behin betikotzat eman da. Halere, Ganberak honako alderdi hauek aipatu nahi ditu:

1. Lehenengo alegazioaren lehen paragrafoari dagokionez, onartu egiten da, eta txosteneko kasuko atala aldatzen da.

Alegazioren bigarren paragrafoari dagokionez, zeinean aipatzen baita gainbegiratze- eta kontrol-eginkizunak bereizi behar direla, esan beharra daukagu 2016ko eta 2017ko ekitaldietako ikuskatze-planak onesten dituzten foru aginduetako bosgarren apartatuan ezartzen dela Ikuskatze Atalaren helburuak izanen direla gainbegiratze- eta kontrol-eginkizunei dagozkienak. Eginkizun horiek berariaz eta hitzez hitz aipatzen dira Ikuskapen Atalak egindako oroitidazkietan, haien artean bereizketarik egin gabe.

Agentziaren kontratuen kontrola urteko ikuskapen-planean segurtatuta dagoela adierazten duen atalari dagokionez, esan beharra daukagu adingabearentzako arretaren arloari dagozkion kontratuak ez direla jaso ikuskapen-planetatik bakarrean ere.

2. Bigarren alegazioari dagokionez, bertan aipatzen baita atal guztiak baloratu direla jokabide egokien aplikazioari dagozkionak izan ezik, esan beharra daukagu pleguek adjudikaziorako sei irizpide ezartzen dituztela. Horietatik, ebaluazio-adierazleak zehazteari dagokiona ez da baloratu izan, eta horietako bi, jokabide egokiei dagozkienak, kontratuaren lehenengo betetze-urtetik aurrera aplikatu beharrekoak ziren, eta aldi hori, pleguen arabera, kontratua betetzen hasten den egunean hasten da.

3. Hirugarren alegazioari dagokionez, alegazioen fasean dokumentu bat aurkeztu diguten, zeinean ez baita hura onetsi duen organo administratiboa ageri, ez eta haren onespenaren data ere. Nolanahi ere, alegazioaren beraren arabera 2018ko ekitalditik aurrera aplikatu beharko den prozedura bati dagozkio.

4. Laugarren alegazioari dagokionez, Ganbera honen ustez, behin aplikatzekoak diren kasuko hitzarmen ekonomikoen betetzea segurtatuta —eta ezertan kendu gabe agentziak arrazoiz motibatu izana ahal den beherapen ekonomiko bideragarri handiena, baimendutako etekin-tarte eskasarekin—, kontratuen egituratze ekonomikoak tarte ekonomiko mugatua uzten du goranzko edozein aldaketatarako, bai aurreikusitako gainerako gastuetan, bai langile-gastu propioetan ere, eta horrek zaildu egin dezake enpresa txiki eta ertainen bideragarritasun ekonomikoa.

5. Bosgarren alegazioari dagokionez, zeinean behin-behineko txostena emateko datan aurkeztu ez diren oroitidazkiak aurkezten baitira, onartu egiten da eta txostena kasuko atalean aldatzen da.

6. Seigarren alegazioari dagokionez, ez dago jasota alegazioaren testuan aipatzen diren ebaluazio-adierazleak biltzen dituen plegurik dagoenik.

7. Zazpigarren alegazioaren lehen atalari dagokionez, zeinean behin-behineko txostena emateko datan aurkeztu ez diren oroitidazkiak aurkezten baitira, onartu egiten da eta txostena kasuko apartatuan aldatzen da.

Bigarren atalari dagokionez, bertan aipatzen baita pleguetan argiro zehazturik dagoela zerbitzua eta haren etxebizitza funtzionalen araberako ordu-banaketa, esan beharra daukagu aurkeztutako oroitidazkietan ez dagoela jasota psikologo-zerbitzuengatiko orduen betetzea.

Hirugarren atalari dagokionez, zeinean aipatzen baita kontratuaren betetzearekin lotutako gaiak jarraipen batzordeetan aztertu behar direla eta, bestela, Agentziari helarazi behar zaizkiola, esan beharra daukagu 2016ko ekitaldian ez zela jarraipenerako urteko batzorderik egin, eta 2017ko ekitaldiko batzordearen aktan ez dagoela jasota agerian jarritako desadostasuni inongo tratamendurik eman zaionik. Bestalde, ordezkapenei dagozkien alderdiak baldintza teknikoen pleguen zati bat dira; horrenbestez, eragina dute kontratua zuzen betetzeari begira.

8. Zortzigarren alegazioaren lehen atalari dagokionez, zeinean aipatzen baita jarraipen batzordeetan landutako gaien jarraipena egiten dela, dokumentu bat helarazi digute, datarik eta sinadurarik gabekoa, zeina ez baitziguten eskuratu azterketa-lana egiteko fasean, eskatu genuen arren.

Bigarren eta hirugarren atalei dagokienez, esan beharra daukagu pleguetan aurreikusitako partaidetza-organo bakarra Jarraipen Batzordea dela.

9. Bederatzigarren alegazioari dagokionez, onartu egiten da, eta dagokion paragrafoa aldatzen da.

10. Hamargarren alegazioari dagokionez, alde batera utzita 209/1991 Foru Dekretuak zentro eta zerbitzuetako baldintza teknikoak eta langile-ratioak ezartzen dituela, 15/2006 Foru Legeak ezartzen du gizarte zerbitzuetarako lau urteko indarraldia izanen duten kalitate planak nahitaez aurkeztu behar direla; onetsitako plan bakarra, ordea, 2010-2013 aldiari dagokiona da.

Iruñean, 2018ko ekainaren 19an

Lehendakaria,
Asunción Olaechea Estanga

Lege Gordailua: NA – 363-1995 ISSN: 2254–1950